

## **EAEF-REN ESTATUTUAK 2023**

**9. bertsioa: 2023ko azaroaren 4a**

## AURKIBIDEA

### ATARIKO XEDAPENAK

#### I. TITULUA: ESPAINIAKO ATLETISMOKO ERREGE FEDERAZIOA (EAEF)

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA: HELBURUAK ETA JARDUKETA-PRINTZIPIOAK

III. KAPITULUA: EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK

IV. KAPITULUA: NAZIOARTEKO EREMUJA

#### II. TITULUA: ESTATUTUAK, ARAUDIAK ETA EAEF-REN BESTE BARNE-ARAU BATZUK

#### III. TITULUA: EAEF-REN KIDEAK ETA PARTAIDEAK

I. KAPITULUA: EAEF-REN KIDEAK ETA PARTAIDEAK

II. KAPITULUA: EAEF OSATZEN DUTEN AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ATLETISMOKO KIROL-FEDERAZIOAK

#### IV. TITULUA: EAEF-REN EGITURA ORGANIKOA

I. KAPITULUA: GOBERNU- ETA ORDEZKARITZA-ORGANOAK

LEHEN ATALA: XEDAPEN OROKORRAK

BIGARREN ATALA: BATZAR NAGUSIA

HIRUGARREN ATALA: BATZAR NAGUSIAREN BATZORDE ESKUORDETUA

LAUGARREN ATALA: EAEF-REN PRESIDENTETZTA

II. KAPITULUA: ORGANO OSAGARRIAK

LEHEN ATALA: PRESIDENTEORDETZAK

BIGARREN ATALA: ZUZENDARITZA KONTSEILUA

HIRUGARREN ATALA: BATZORDE BETEARAZLEA

LAUGARREN ATALA: EAEF OSATZEN DUTEN AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO

ATLETISMOKO KIROL-FEDERAZIOEN BATZORDEA

BOSGARREN ATALA: GOBERNU BATZORDEA

SEIGARREN ATALA: ZUZENDARITZA BETEARAZLEA

III. KAPITULUA: DIZIPLINA-ORGANOAK

IV. KAPITULUA: LEHIAKETA-ORGANOAK

V. KAPITULUA: HAUTESKUNDE-ORGANOAK

VI. KAPITULUA: GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO KONPONTZEKO ORGANOAK

VII. KAPITULUA: ORGANO TEKNIKOAK

VIII. KAPITULUA: BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ORGANOAK

IX. KAPITULUA: KONTROL-ORGANOAK

LEHEN ATALA: ZAINTEZKO ETA BABESTEKO ORGANOAK

BIGARREN ATALA: ARAUDIA BETETZEKO ORGANOAK

HIRUGARREN ATALA: KONTROL EKONOMIKOAREN ORGANOAK

LAUGARREN ATALA: ETIKA-ORGANOAK

X. KAPITULUA: INTEGRITATE ATALA

#### V. TITULUA: GOBERNANTZA ETA GARDENTASUNA

I. KAPITULUA: GOBERNANTZA

II. KAPITULUA: GARDENTASUNA

#### VI. TITULUA: LEHIAKETAK ETA LIZENTZIAK

I. KAPITULUA: LEHIAKETAK

LEHEN ATALA: XEDAPEN OROKORRAK

BIGARREN ATALA: LEHIAKETAK

II. KAPITULUA: LIZENTZIAK ETA GAITZEN DUTEN BESTE TITULU BATZUK

VII. TITULUA. HAUTESKUNDE-PROZESUAK ETA ZENTSURA-MOZIOA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA. HAUTESKUNDE-PROZESUAK

III. KAPITULUA. ZENTSURA-MOZIOA

VIII. TITULUA: ARAUBIDE EKONOMIKOA

IX. TITULUA: AGIRIEN ARAUBIDEA

X. TITULUA: SARIAK, OHORAGARRIAK ETA AIPAMENAK

XI. TITULUA: DIZIPLINA ARAUBIDEA

I. KAPITULUA: KIROLEKO DIZIPLINA ARAUBIDEA

II. KAPITULUA: DIZIPLINA SOZIALEKO ARAUBIDEA

XII. TITULUA: GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO KONPONTZEA

XIII. TITULUA: EAEF DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

AZKEN XEDAPENAK

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK ETA IRAGANKORRAK

## ATARIKO XEDAPENAK

### LEHENENGOA. BERDINTASUNA ETA PAREKIDETASUNA

Espainiako Atletismoko Errege Federazioak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra bermatzen du, indarreko legeria eta Estatuak, Olinpiar Mugimenduak, World Athletics-ek, European Athletics-ek eta Federazioak berak nazioarte mailan hartutako konpromisoak betez. Federazioaren jarduteko oinarrizko printzipioetako bat izango da.

EAEFk parekidetasun arloan dauden zuzentarauak eta gomendioak betetzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako, zuzenean izendatzen diren kideak dituzten organoak azaroaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian ezarrita den eraketa orekatuaren irizpideari atxikiko dira, behar bezala arrazoiturik diren zio funtsezko nola objektiboak gertatzen direnean izan ezik. Sexuen araberako osaera orekatuaren irizpidea betetzeari buruzko estatutu-erreferentzia guztiak xedapen horren edukiari egindakotzat hartuko dira, eta horrek esan nahi du gutxiegi ordezkatura den sexuak, gutxienez, % 40ko ordezkartza izango duela.

### BIGARRENA. TERMINOLOGIA EZ-BAZTERTZAILEA

Aurreko xedapenean adierazitakoaren ildo beretik, jakitera ematen da EAEFren irizpideari jarraituz Estatutu hauetan kolektiboak aipatzeko maskulinoa erabiliz egiten diren aipamen generiko guztiak emakumezkoen zein gizonezkoen buruzkoak direla beti, horrela ez dela berariaz adierazten diren kasuetan izan ezik.

### HIRUGARRENA. HIZKUNTZA KOOFIZIALEKIKO ERRESPECTUA

EAEFk Espainian dagoen hizkuntza-pluraltasuna errespetatzen du. Hala ere, hirugarrenek egindako eta EAEFren aurrean baliozko ondorioak izan ditzakeen edozein dokumentu edo datu-txertatze informatiko gaztelaniaz behintzat azaldu beharko da, hizkuntza koofizial batean ere azaldu ahal izatearen kalterik gabe. Bigarren kasu horretan, bi testuak berdina izan beharko dira, eta, horien artean desadostasunik bada, gaztelaniazkoaren edukia lehenetsiko da EAEFren ondorioetarako.

Dokumentu eta datu batzuk hizkuntza koofizialean bakarrik argitaratzen badira, gaztelaniazko testurik edo itzulpenik gabe, igorri edo txertatu gabe utzi ahalko dira (beraz, ez dute ondoriorik sortuko).

### LAUGARRENA. DEFINIZIOAK

Estatutu hauen ondorioetarako, definizio hauek erabiltzen dira:

**Atletak** – Nazioarte, estatu edo erkidego mailan atletismoko kirol-modalitatean aritzen diren pertsonak.

**Klubak** – Beren xede sozialaren artean atletismoa egitea duten kirol-erakundeak, klub gisa edo horiei lotutako atleten bidez parte hartuz.

**Batzorde Betearazlea** – EAEFren kide anitzeko kudeaketa-organoa, eta bere eginkizun nagusia Presidentetzarekin eta Zuzendaritza Kontseiluarekin lankidetzan aritzea da, beren funtzioei kalterik egin gabe, jarduerak deskontzentratzeko eta erabaki jakin batzuk azkarrago hartu ahal izateko.

**Zuzendaritza Kontseilua** – EAEFren kide anitzeko kudeaketa-organoa, Zuzendaritza Batzordearen baliokidea dagozkion lege-ondorioetarako, eta bere eginkizun nagusia atletismoaren kirola Federazioaren eskumen-eremuan arautzea da.

**EAEF Ordezkaritzak** – Atletismoko kirol-federazio autonomikorik ez dagoen hiri eta erkidego autonomikoetan, erkidegoko lurralde-ordezkaritza gisara, sortutako federazio-egiturak.

**Epailleak** – Atletismoko lehiaketa, jarduera, gertaera eta ekitaldiak zuzentzea eta kontrolatzea xede duten pertsonak, erregelamenduak eta araudi teknikoak zein lehiaketakoak aplikatuta.

**Gobernu Batzordea** – EAEFren hautazko eraketa-organoa, Zuzendaritza Kontseilua eta Batzorde Eskuordetua elkarrekin bilduz eratzen dena.

**Entrenatzaileak** – Atletismoko kirol-teknikariaren titulazio akademikoa zein federazio-titulazioa izanik atletak prestatzeaz arduratzen diren pertsonak.

**Erkidegoetako kirol-federazio integratuak** – Bere autonomia-hiriko edo -erkidegoko agintari eskudunen aitortza ofiziala izanik eta indarrean den integrazio-hitzarmen baten bidez EAEFn integratuta dauden atletismoko kirol-federazio autonomikoak.

**Ofizialak** – Kiroleko klubetako edo erakundeetako edo atleten staffeko langileak, entrenatzaileez bestelakoak (eskuordetuak, medikuak, laguntzaile teknikoak, etab.).

**Antolatzaileak** – Beren lan-jarduera, profesionala edo soziala, era eskusiboan zein ez-esklusiboan, atletismoko lehiaketak antolatzea duten pertsona juridikoak.

**Atleten ordezkariek** – Beren lan-jarduera, profesionala edo soziala, era eskusiboan zein ez-esklusiboan, atleten eta, halaber, entrenatzaileen eta beste teknikari batzuen ordezkariek edo bitartekari izatea den pertsona fisikoak edota juridikoak.

## **BOSGARRENA. LABURDURAK**

Estatutu hauek idaztean, laburdura hauek erabili dira:

**CENAED** – EAEFren araubide bereziko kirol-irakaskuntzako zentro baimenduak

**CENFA** – EAEFren entrenatzaileen etengabeko prestakuntzarako eta eguneraketarako zentro nazionala

**EOB** – Espainiako Olinpiar Batzordea

**NOB** – Nazioarteko Olinpiar Batzordea

**KKG** – Kirol Kontseilu Gorena

**EA** – European Athletics

**CAA** – Kirolaren Administrazio Auzitegia

**WA** – World Athletics

**I. TITULUA:**  
**ESPAINIAKO ATLETISMOKO ERREGE FEDERAZIOA (EAEF)**

**I. KAPITULUA:**  
**XEDAPEN OROKORRAK**

**1 artikulua. Eraketa eta aitortza**

Espainiako Atletismo Federazioa 1920ko martxoaren 27an sortu zen, eta Espainiako Atletismoko Errege Federazioa (EAEF) izena hartu zuen gerora zegokion baimena lortu ondoren. Elkarte izaerako erakunde pribatu bat da, iraupen mugagabekoa eta onura publikokoa. Irabazi asmorik gabekoa da, ondare propioa du –elkarteko kideengandik berezia–, nortasun juridiko independentea eta jarduteko gaitasun osoa.

Kirol Kontseilu Gorenak ofizialki aitortua du estatu eta nazioarte mailan atletismo-modalitatearen kudeaketa ofizialaz eskusiboki arduratzen den Espainiako kirol-federazio gisa, eta behar bezala inskribatuta dago Kirol-erakundearen Estatuko Erregistroan.

**2. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa**

EAEF hauek arautzen dute: Kirolaren Legeak, horren garapenerako arauzko xedapenak, Estatutu hauek eta horien garapenerako erregelamendu eta barne-araudiek, eta bere organoek balioz hartutako erabakiek.

Horrez gainera, hauek ere arautzen dute: World Athletics (WA) eta European Athletics (EA) erakundeek –nazioarteko federazio horien kide den aldetik, beharturik dago betetzera–, Olinpiar Gutunak eta Nazioarteko Olinpiar Batzordearen (NOB) eta Espainiako Olinpiar Batzordearen (EOB) xedapenek, Olinpiar Jokoetan parte hartzearen ondorioetarako.

Hori guztia, Espainiar antolamendu juridikoaren esparruan eta bere eginkizunetan aritzeko duen autonomiaren kalterik gabe.

**3. artikulua. Egoitza**

**1.** EAEFk bere egoitza sozial nagusian izango du egoitza: Valladolid etorbidea 81, Madril. Egoitza hori Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta, hartutako erabakiaren bidez bakarrik aldatu ahalko da.

Justifikatutako edo ezinbesteko arrazoi batengatik aldi baterako ordezkoko helbide bat izendatu behar izanez gero, Batzorde Eskuordetuak erabaki ahal izango du hori, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta, eta herri berean edo mugakideetan egon beharko du.

**2.** EAEFk beste lokal, bulego eta instalazio batzuk ere izan ahalko ditu bere beharrak eta bere funtzionamendua betetzeko.

**4. artikulua. Erakunde- eta lurralde-egitura**

**1.** EAEFren erakunde-egitura Estatutu hauek eta hori garatzen duen Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudiak ezarriko dute. Demokraziaren eta ordezkariaren printzipioetara egokituko da.

**2.** EAEFren lurralde-egitura Estatuaren egiturara egokituko da, autonomia-erkidego eta -hiritan banatuta baita, eta EAEFn integratutako atletismoko erkidegoetako kirol-federazioen bidez

egituratuko da, edo, erkidegoko federaziorik edo integratuta ez diren federazioen kasuan, autonomia-erkidegoko edo -hiriko federazioaren ordezkartzen bidez.

Federazio eta Ordezkartza horiek beren egitura ezarri ahalko dute; hala ere, EAEFren zuzeneko harreman organikoak edo funtzionalak izateko eredu deszentralizatuak ezarri nahi badira, horiek EAEFk aurretik eta berariaz onartu beharko ditu.

## **5. artikulua. Xede nagusia**

**1.** Indarreko legerian ezarritakoari jarraituz eta World Athleticsen Espainiako ordezkaria den aldetik, EAEFren xede nagusia da atletismoaren kirol-modalitatea estatu mailan modu eskusiboa eta bakarrean antolatzea, arautzea, garatzea eta praktikatzeta.

**2.** Atletismoaren kirol-modalitateak honako espezialitate hauek biltzen ditu, zein formatutan (aurrez aurrekoa, birtuala edota elektronikoa –urrunetik plataforma digital baten bidez konektatuta–) egiten diren alde batera utzita.

- a) Pista
- b) Errepideko edo bideko lasterketak
- c) Landako lasterketak
- d) Martxa atletikoa
- e) Trail running-a
- f) Hondartzako atletismoa
- g) World Athleticsen Lehiaketa Araudian halakotzat hartzen diren beste batzuk, Kirol Kontseilu Gorenak aurretik oniritzia eman ondoren.

**3.** EAEFren atletismoko lehiaketa, jarduera eta ekitaldien araudiak ezarriko ditu espezialitateen arteko identifikazio-irizpideak eta desberdintasunak, eta zehaztuko ditu horiek egituratu, zatitu edo antolatuko diren atletismoko azpiespezialitate, diziplina, espezialitate eta probak.

## **II. KAPITULUA: JARDUTEKO XEDEAK ETA PRINTZIPIOAK**

## **6. artikulua. Xedeak eta helburuak**

**1.** EAEFk, Estatutu hauean, Espainiako ordenamendu juridikoan eta World Athleticsen estatutu eta jarraibideetan xedatutakoarekin bat etorriz, Espainiako atletismoaren eta EAEFren beraren helburuak bultzatzeko beharrezkoak, desiragarriak, komenigarriak edo onuragarriak diren ekintza eta ekitaldi guztiak egin ditzake eta egin behar ditu.

**2.** Batzuk aipatzearen, eta baztertzeko eta zehatz-mehatz azaltzeko asmorik gabe, indarrean dagoen legeriak eta World Athleticsen arauak esleitutako estatu mailako eskumen-eremuaren barruan, EAEFk honako xede eta helburu hauek ditu:

- a) Espainiako atletismoaren organo zuzentzailea izatea.
- b) Atletismoan, maila guztietan, zabalkundea eta parte-hartzea bultzatu, garatu eta sustatzea, lehiaketak, ekitaldiak, programak eta jarduerak antolatuz eta federazioko estamentu guztiei laguntzeko neurriak ezarriz.
- c) Atletismoaren integritatea babestea, arau etikoak eta jokabide-arauak garatzea eta betearaztea, eta Espainiako atletismoan gobernantza onaren kultura ezartzea.
- d) Atletak eta atletismoa babestea, Dopinaren aurkako Munduko Kodea eta arlo horretan aplikagarri den gainerako araudia aplikatuz eta betearaziz, arauak, programak, sistemak eta diziplina-neurriak ezartzea barne, Espainiako ordenamendu juridikoaren arabera.
- e) Atletismoa autonomia-erkidegoetan eta maila txikiagoan garatu eta antola dadin bultzatu eta laguntzea, erkidegoetako federazio integratuen edo, halakorik ezean, sortzen diren EAEFren ordezkartzen bidez.

- f) Erkidegoetako federazio integratuei laguntzea atletismoa sustatzen eta garatzen, munduko, Europako eta Espainiako atletismoaren helburuekin bat etorriz.
- g) Atletismoaren hobekuntza sustatzea, etengabeko ikerketa eta garapenaren bidez, ezagutza teknikoak, medikoak, logistikoak, ikerketak, azterlanak eta horrekin lotutako beste ekimen eta jarduera batzuk zabalduz.
- h) Pertsona orok, adiskidetasun-, elkartasun-, errespetu- eta joko-espíritu garbia bitarteko, atletismoan parte hartzeko duen eskubidea zaintzea, inolako legez kanpoko diskriminaziorik jasan gabe.
- i) Kirol Kontseilu Gorenaren eta World Athleticsen aintzatespenari eustea, eta lidergo aktiboa garatzea Espainiako kirol-mugimenduan eta atletismoaren nazioarteko mugimenduan.
- j) Kiroleko eta beste edozein motatako erakundeekin eta agintari publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, Espainia osoan, oro har, kirolaren interesak eta, bereziki, atletismoarenak sustatzeko.
- k) Espainiako atletismoaren ondare historikoa zaintzea eta sustatzea, eta, bereziki, edozein motatako argitalpen, objektu, dokumentu, argazki eta oroitzapen historiko garrantzitsuen ondare-bilduma mantentzea.
- l) Enpresekin eta beste erakunde publiko eta pribatuekin akordioak, hitzarmenak eta kontratuak elkartzea edo ezartzea, merkataritza-, babes- eta marketin-akordioak barne, Espainiako atletismoaren eta EAEFren mesedetan, bai eta jabetza intelektuala, industrial eta EAEF titular den edozein motatako jabetza babestu eta hobetzeko ere.
- m) Espainiako atletismoaren iraunkortasuna bermatzeko programak eta praktikak sustatzea eta ezartzea, atletismoa gauzatzen den ingurune naturala, soziala eta ekonomikoa barne.
- n) Indarrean dagoen legeriak, Kirol Kontseilu Gorenak, World Athleticsek, European Athleticsek edo Nazioarteko Olinpiar Batzordeak esleitzen dizkion gainerako eginkizun guztiak, edo aurreko horien garapen edo adierazpen direnak.

**3.** Bere helburuak eta xede soziala hobeto garatu eta betetzeko, eta bere interesak, banakakoak edo hirugarrenenekin batera, egoki edo hobeto defendatzeko, EAEF atletismoaren esparruko elkarte, federazio eta konfederazio nazional edo nazioartekoetan afiliatu edo horiei atxiki daiteke. Atxikipen hori behin-behinekoz onartuko du Batzorde Eskuordetuak, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta, eta Batzar Nagusiak berretsi beharko du ondoren.

Aurreko paragrafoan adierazitakoen bestelako esparruetako elkarte, federazio eta konfederazioetarako atxikipena Zuzendaritza Kontseiluak onartu eta, jarraian, Batzorde Eskuordetuak berretsi ondoren egin ahalko da.

Arestian aipatutako afiliazio edo atxikipenak eteteko edo ezeztatzeko, antzeko prozedura bete beharko da.

## **7. artikulua. Jarduketa-printzipioak**

**1.** EAEFk konpromisoa adierazten du printzipio hauekin: giza eskubideak, haurren eta nerabeen babesa, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, errespetua, fair play eta dopinaren, arrazakeriaren, indarkeriaren, intolerantziaren (edozein motakoak) eta xenofobiaren aurkako borroka. Horretarako, giza eskubideak eta pertsonaren duintasuna, adingabeen eskubideak eta babesa, intimitatearekiko errespetua, datu pertsonalen babesa eta gardentasunaren eta gobernu onaren irizpideak errespetatuz jarduteko konpromisoa hartzen du.

**2.** EAEF erakunde neutrala da ondorio guztietarako, eta, horretarako, ez du onartuko bere irudia edo lehiaketena, hautaketena edo hautatutakoena helburu politiko, sindikal, erlijioso edo aldarrikatzaileekin erabili ahal izatea.

Alde horretatik, ahaleginak egingo ditu bere kideek jarduteko printzipio berari jarrai diezaioten atletismoan parte hartzen dutenean, hargatik eragotzi gabe bere eskubide indibidualak errespetatzea, une, leku edo inguruabarren ondorioz EAEFrekin lotura zuzena edo zeharkakoa sor daitekeenean izan ezik.



**3.** EAEFren ustean, atletismoaren mundua osatzen duten pertsona guztiak errespetuz eta duintasunez tratatu behar dira, eta babestu egin behar dira (bereziki, kolektibo ahulenak). Helburu hori lortzeko, EAEFk konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Beren karguagatik edo eginkizunagatik edo beste arrazoi edo inguruabar batzuegatik agintea eta eragina duten pertsonak jazarpena, abusua, zabarkeria, esplotazioa edo antzeko beste edozein arrisku saihesteko eta ezabatzeko neurri eta jokabide aktiboak sustatzen eta hartzen dituztela bermatzea.
- b) Egon daitezkeen jokabide desegokiak aurrean trebatzeko, prebenitzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko mekanismoak antolatzea.

**4.** EAEF indarkeria, arrazakeria, xenofobia edo intolerantzia mota ororen aurka dago, eta, ildo horretan, haren barne-erregulazioa, funtzionamendua eta jardueren garapena bideratuko ditu. Bereziki, baztertu eta debekatu egingo du sexuagatik edo sexu-orientazioagatik, edo edozein izaera pertsonal edo sozialengatik edo arrazoi politiko, arrazako, erlijioso edo bestelakoengatik (adibide gisa, eta ez zehatz-mehatz) edozein diskriminazio mota.

Ondorio horietarako, honako hauek ez dira diskriminaziotzat hartuko:

- a) Lehiaketetan parte hartzeko edo nazionalitateagatik edo hautagarritasunagatik selekzio nazionala osatzeko mugak jartzea edo bereiztea.
- b) Lehiaketak mailaren, adinaren edota sexuaren arabera egituratzea, bereziki, World Athletics edo European Athletics erakundeen irizpideei jarraituz.
- c) Lizentzia bat ez ematea edo eraginkorra ez izatea Espainian legezko bizilekurik ez dagoenean edo hori justifikatzen duten legezko beste arrazoi batzuk daudenean, bereziki diziplinakoak edo dopinarekin lotutakoak.

**5.** EAEFk dokumentazioa izapidetzea, bere prozedurak kudeatzea eta informazioa bitarteko telematikoen bidez eta bere web-orri ofizialaren bidez zabaltzea bultzatuko du, desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasuna ahal den neurrian bermatzen saiatuz.

### **III. KAPITULUA: EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK**

#### **8. artikulua. Eginkizun eta eskumen motak**

EAEF izaera pribatuko elkarte bat da eta eginkizun propioak eta pribatuak ditu, indarreko legerian ezarritako eginkizun publiko eskuordetuak, kasu.

#### **9. artikulua. Eginkizun publiko eskuordetuak**

EAEFk administrazio izaerako honako eginkizun publiko hauek ditu, Kirol Kontseilu Gorenaren babesean:

- a) Kirol Kontseilu Gorenak eta EAEFk atletismoari dagokionez sinatzen dituzten Kirol Garapeneko Programetan ezarritakoa gauzatzea, Kirolaren Legean eta hura garatzeko arauetan aurreikusitakoari jarraituz.
- b) Estatuko atletismoko kirol-lehiaketa ofizialak kalifikatzea, bai eta erkidegoaz gaindikoak ere (estatuan edo nazioartean ondorioak izatea nahi denean).
- c) Estatuko atletismo-lehiaketa ofizialak antolatzea. Lehiaketa horiek antolatzeko eskumen publikoa lehiaketa horien esparru orokorra arautzen duena izango dela ulertzen da.
- d) Estatuan atletismoa egiteko lizentziak ematea edo ukatzea, Kirolaren Legean eta hura garatzeko xedapenetan aurreikusitako baldintzetan. Ondorio horietarako, lizentzia emateko edo ukatzeko egintza edo ebazpena baino ez da izango administrazio-esparruko funtzio publikotzat.

- e) Ahal publikoak baliatzearen ondorioz, EAEFri lotutako kirol-elkarte eta -erakundeei esleitzen zaizkien diru-laguntzak ematea eta kontrolatzea, erregelamendu bidez zehazten den moduan.
- f) Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta autonomia-erkidegoekin lankidetzan aritzea, bai atletismoko kirol-teknikarien prestakuntzan, araubide bereziko kirol-irakaskuntzak arautzeko eta kontrolatzeko esparruan, bai etengabeko prestakuntzako programetan.
- g) Diziplina-ahala erabiltzea Kirolaren Legean eta lege hori garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzetan, Estatutu hauetan eta EAEFren Diziplina Araudian ezarritakoaren arabera, baldin eta ezarritako zehapenek lizentziari datxezkion eskubide guztiak kentzea, ezeztatzea edo behin betiko etetea badakarte.

## **10. artikulua. Eginkizun propioak edo pribatuak**

**1.** Indarreko kirol-legean ezarritakoaren arabera, EAEFren eginkizun propioak edo pribatuak dira honako hauek:

- a) Espainian egiten diren nazioarteko atletismo-lehiaketa ofizialak antolatzea edo babestea, aplikatzekoa den legedian aurreikusitakoaren arabera.
- b) Kalifikatu dituen estatuko eta erkidegoaz gaindiko kirol-jarduera eta -lehiaketa ofizialak antolatzea.
- c) Kirol-elkarteak antolatzeko, ezingo da inolako merkataritza-harremanik ezarri (hau da, komisiok jasotzea edo emaitza ekonomikoan parte hartzea) jardunean dauden eta bertan parte har dezaketen atletekin, eta, ondorio guztietarako, Kirolaren Legeak lehiaketa horien gainean aitortzen dituen eskubideak izango ditu, kirol-erakundeen eta horietan parte hartzen duten atleten eskubide eta interes legitimoek kalterik egin gabe.  
Debeku hori ez da aplikatuko atleta batentzat lehiaketan parte hartzeagatik hitzartutako sari, prima edo diru-kopuruetan.
- d) Autonomia-erkidego bat baino gehiagoko talde edota atletek parte hartzen duten atletismoko jarduera eta lehiaketa ez-ofizialak aitortzea eta, hala badagokio, antolatzea (EAEFk edo federazio-aitorpena eskatzen duten erakunde publiko edo pribatuak sustatuak), eta jarduera eta lehiaketa horiek egiteko betekizunak eta baldintzak finkatzea.
- e) Lan-harremanak eta harreman ekonomikoak dituzten lehiaketetan, kaudimengabezia prebenitzeko eta atletei zor zaizkien zorrak eta soldatak ordaintzeko sistemak ezartzea, lehiaketan parte hartzea edo bertan jarraitzea mugatuz edo baldintzatuz, EAEFtik datozen diru-sarrerak atxikiz edo birbideratuz, federazio-zerbitzuen prestazioa etenez edota ez-betetze horiek diziplina-organo eskudunei salatuz. Sistema horiek erregelamendu bidez ezarriko dira, eta Kirol Kontseilu Gorenak onartu beharko ditu.
- f) Barne-araudia prestatu eta onartzea. Kirolaren Legeak agintzen dituen estatutuen eta erregelamenduen kasuan, Kirol Kontseilu Gorenera bidali beharko da, berretsia izan dadin.
- g) Atletismoaren eta bere espezialitateen garapena sustatzea lurralde nazional osoan, oinarrizko atletismoa eta talentua sustatzeko eta garatzeko neurriak ezarri.
- h) Goi mailako eta errendimendu handiko atletak prestatzeko planak diseinatzea, egitea eta gauzatzea, zuzenean Estatuan eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoetako federazioekin eta EAEFren balizko ordezkariarekin koordinatuta.
- i) Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta autonomia-erkidegoekin laguntzea debekatutako substantzia eta talde farmakologikoen erabilera prebenitzen, kontrolatzen eta zigortzen, eta atletismoan arauzkoak ez diren metodoak erabiltzen.
- j) Espainiako atletismo-selektzioak osatuko dituzten atletak aukeratzea.
- k) Diziplina-ahala erabiltzea, aurreko paragrafoan adierazitako kasuetatik kanpo eta, aplikatzekoa den legedian xedatutakoaren arabera, jarduera hori pribatua denean, EAEFren diziplina-erregelamenduan ezarritako baldintzetan.
- l) Kirol-teknifikazioko programak garatzea.
- m) Administrazio Publikoekin elkarlanean aritzea, oro har, kirolarekin eta, bereziki, atletismoarekin lotutako politika publikoak eta ekintzak garatzeko.
- n) Berezkoak diren eta atletismoko kirol-modalitatea eta bere espezialitate guztiak edo batzuk garatzeko balio duten jardueren onurarako izan daitezkeen beste guztiak.

- o) Kirol-modalitatea garatzea edo atleten errendimendua hobetzea ekarriko duten teknologia berriak ikertzen eta diseinatzen laguntzea.
- p) Atletismoko kirol-modalitateari lotuta EAEFren autofinantzaketan laguntzen duten jarduerak egitea.
- q) Gizartean kirol-jarduera sustatzea, maila guztietan.
- r) Indarreko legerian aurreikusitako edo legedi horretatik kanpo dagoen beste edozein.

**2.** Era berean, World Athletics erakundearen kide delako EAEFren eginkizun propioak edo pribatuak dira honako hauek, zeinak Espainiako antolamendu juridikoarekin bat etorri garatu eta interpretatuko baitira:

- a) Espainian atletismoa administratu, sustatu eta garatzea, World Athleticsen helburuekin bat etorri, haren ordezkari eskusiboa den aldetik.
- b) Espainian egiten diren estatuko, erkidegoz gaindiko edota nazioarteko lehiaketa ofizialak antolatzea, ezartzea, kudeatzea, kontrolatzea eta ikuskatzea, aurreko artikuluan eginkizun publiko eskuordetu gisa eta lege-jatorriko eginkizun pribatu gisa jaso ez diren alderdi guztietan.
- c) Atletismoa arautzea arauak, erregelamenduak eta araudiak garatuz eta aplikatuz, eta aurreko artikuluan eskuordetutako eginkizun publiko gisa eta legezko jatorriko eginkizun pribatu gisa jaso ez diren alderdi guztietan atletismoa betetzen dela bermatzea.
- d) EAEFn afiliatzen diren edo bertan sartzten diren pertsona fisikoek eta juridikoek World Athleticsen estatutuak eta arauak betetzen dituztela bermatzea, eta betetzen direla egiaztatzea.
- e) Espainiako errekorrak aitortzea eta berrestea, estatuko eta nazioarteko erregelamenduetan ezarritakoaren arabera.
- f) World Athleticsen estatutu, erregelamendu eta araudi propioei behar bezala egokituta mantentzea.
- g) World Athleticsen estatutu, erregelamendu eta araudietatik eratorritako beste guztiak, bai eta nazioarteko federazio horretan sartzeko hitzarmenean ezarritako betebeharrak ere. Ildo beretik, European Athleticsen edo Nazioarteko Olinpiar Batzordearen arauetatik datozen guztiak.

Estatutuen, EAEFren eta World Athleticsen erregelamendu eta araudien artean desadostasunik edo gatazkarik egonez gero, azken horrenak nagusituko dira; era berean, horiek interpretatzeari buruz egon daitezken zalantzak World Athleticsen arauen irizpideak edo edukia aplikatuz ebaztuko dira. Hori guztia, beti ere bateragarria bada Espainiako ordenamendu juridikoarekin.

## IV. KAPITULUA: NAZIOARTEKO EREMUA

### 11. artikulua. Nazioarteko ordezkaritza

1. EAEF da legez gaitutako erakunde bakarra, eta nazioarteko esparruan Espainiako atletismoaren ordezkari ofiziala izateko eskumena du.

2. Horretarako, EAEFk World Athletics (WA), European Athletics (EA), Atletismoko Elkarte Iberoamerikarra (AIA), World Mountain Running Association (WMRA), International Trail Running Association (ITRA), International Association of Ultrarunners (IAU) eta Mediterranean Athletics (MA) erakundeak ordezkatzeko Espainian, eta Espainiaren ordezkaritza du erakunde horietan.

Era berean, Espainiaren ordezkaritza eskusiboa du Espainian eta Espainiatik kanpo egiten diren nazioarteko atletismoko jarduera eta lehiaketetan, ofizialetan eta lagunartekoetan.

### 12. artikulua. Atletismoko taldeak, ordezkaritzak eta selekzio nazionalak

1. Espainiako atletismoa nazioartean ordezkatzeko duen eskumen eskusiboaren esparruan, EAEFri dagokio atletismoko taldeak, ordezkaritzak eta selekzio nazionalak kudeatzea, eta hautatzaileak, staffeko langileak eta horiek osatzen dituzten atletak aukeratzea.

2. EAEFren presidenteari dagokio hautatzaile nazionala askatasunez izendatzea eta kargutik kentzea, Zuzendaritza Kontseiluari eta Kirol Zuzendaritzari entzun ondoren. Kirol Zuzendaritza duen pertsonari dagokio staff teknikoko langileak izendatzea, hautatzaileei entzun ondoren.

3. Hautatzaile nazionalak dagokie atletismoko selekzio nazionalak deialdiak osatzen dituzten atletak askatasunez hautatzea. Izendapen hori egiteko, lehiaketa bakoitzerako egokitasun-, hautagarritasun- eta errendimendu-irizpide orokorrak eta espezifikokoak hartuko dira kontuan, eta interesgarriak izan daitezkeen inguruabar pertsonalak eta lehiaketa ere baloratuko dira.

4. Estatu mailako federazio-lizentzia indarrean duten atletek nahitaez joan behar dute EAEFren atletismo-selekzio nazionalen deialdietara. Era berean, atxikita diren kirol-erakundeek nahitaez ahalbidetu eta erraztu behar dute erakunde horietan sartzea. Betebehar horiek betetzen ez badira, diziplina-zehapena ezarriko da.

5. Hautatutako atletei dagokienez, eta indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera:

- a) Beste lan-jarduera bat, jarduera akademikoa edo amateurra egiten dutenean, Kirol Kontseilu Gorenari eskatuko zaio jarduera horrekin jarraitzea bateragarri egiteko egin beharreko jarduerak egin ditzala.
- b) Atleta profesionalen kasuan, EAEFk antolatutako talde, ordezkaritza edo selekzioetan sartzen diren bitartean, ez da aplikatuko lan-arloko legeria.
- c) EAEFri dagokio atlethen irudi-eskubideak kudeatzea, atletismoko talde, ordezkaritza eta selekzio nazionalak integratzen direnean.
- d) Talde, ordezkaritza eta selekzio nazionalak parte hartzeagatik pizgarri, sari edo kalte-ordainen sistemak ez du desberdintasunik ezarriko emakumeen eta gizonen artean, kategoria berberen barruan.

## **II. TITULUA:** **EAEF-REN ESTATUTUAK, ARAUDIAK ETA GAINERAKO ARAUAK**

### **13. artikulua. EAEF araudia**

- 1.** Espainiako ordenamendu juridikoaren eta World Athleticsekin bateragarria den araudiaren arabera, hauek osatzen dute EAEFren araudi soziala, hierarkiari jarraituta:
  - a) Estatutuak
  - b) Araudiak
  - c) Barne-arauak edota Arau erregulatzailak
  - d) EAEFren organoen, kontseiluen eta batzordeen erabakiak
- 2.** Estatutuen, araudien eta barne-arauen onarpenak eta aldaketak Zirkular bidez zabalduko dira eta EAEFren web-orri ofizialean argitaratuko dira.

### **14. artikulua. Estatutuak**

- 1.** EAEFren Estatutuak maila goreneko federazio-xedapen orokorra dira, eta federazio-organo eskudunen erabakiz erregelamendu bidez gara daitezke, bai eta interpretatu edo zehaztu ere.

Horren testuak aplikatu beharreko legeriak eta araudiak ezarritako gutxieneko edukia jaso beharko du, eta hura onartu eta aldatzea EAEFren Batzar Nagusiaren eskumena da, jarraian Kirol Kontseilu Gorenak berretsi beharko duelarik.

Araudien eta Estatutuetako edukia urratzen duen beste edozein xedapen edo federazio-akordio deuseza izango da ondorio guztietarako.

- 2.** EAEFren Batzar Nagusiak onartzeko edo aldatzeko prozedurak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Proposamena presidentek, Batzorde Eskuordetuak, Zuzendaritza Kontseiluak edo Batzar Nagusiko kideen laurdenak bakarrik egin ahal izango dute. Batzar Nagusian ordezkariak duen estamenturen bateko kideen hiru laurdenek ere egin ahal izango dute, baldin eta aldaketaren xedek estamentu horri bakarrik eragiten badio.
- b) Proposamena berriaz jaso beharko da deialdian, gai-zerrendatik aparteko puntu gisa. Gai-zerrendarekin batera, onartu beharreko testua, aldatzeko proposatzen den testuarekiko konparazio bat eta hori justifikatzen duten arrazoien txosten labur bat aurkeztu beharko dira.
- c) Erabakia bertaratutako gehiengo soilez hartuko da, salbu eta Estatutuetan bertan quorum edo gehiengo handiagoa aurreikusten denean, kasuan kasuko gaiaren arabera. Nolanahi ere, aldeko botoen kopuruak Batzar Nagusiko kide guztien herena ordezkatu beharko du, gutxienez.

- 3.** Batzar Nagusiak proposamena onartu ondoren, hartutako erabakia eta haren edukia Kirol Kontseilu Gorenera bidaliko dira, horrek berretsi dezan. Kirol Kontseilu Gorenak berretsi ondoren, Kirol Erakundearen Estatuko Erregistroan inskribatuko da.

- 4.** Kirol Kontseilu Gorenak Estatutuen onarpena edo aldaketa berrestea eragozten edo zailtzen duten oharrak edo eragozpenak egiten badiu, EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak, Batzorde Eskuordetuari horren berri emanez, honako modu hauetakoren batean jardun ahal izango du:

- a) Igorri zuen proposamenari lotuko zaio.
- b) Ongitu egingo du, proposamenaren xedeari eta asmoari eragiten ez dioten doiketa edo zuzenketa txikiak diren kasuetan.
- c) Proposamena baztertu egingo du.

- 5.** EAEFren Estatutuen onarpena edo aldaketa indarrean sartzen denean, onartutako eta berretsitako testuak ez duenean horri buruzko xedapen espezifikorik jasotzen, Estatuko Aldizkari

Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta inguruabar hori zirkular bidez zabalduko da.

EAEFren web-orri ofizialak indarrean dauden estatutuen testua jasoko du, autonomia-estatutuek aitortuta dituzten hizkuntza ofizial guztietan, eta aurreko bertsioak mantenduko ditu, behar bezala bereizita eta antolatuta.

## **15. artikulua. Araudiak**

**1.** EAEFren araudiak Estatutuak baino maila txikiagoko federazio-xedapen orokorrak dira, eta gai jakin bat garatzen edota arautzen dute. Era berean, barne-arauen edo federazio-organo eskudunek hartutako erabakien bidez garatu edo zehaztu daitezke.

**2.** EAEFk honako araudi hauek izango ditu, nahitaez:

- a) Diziplina Araudia
- b) Huteskunde Araudia
- c) Atletismoko Lehiaketa, Jarduera eta Ekitaldien Araudia
- d) Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudia
- e) Lizentzien eta Gaikuntza-tituluen Araudia. Araudi hori independentea izan daiteke, edo atletismoko lehiaketa, jarduera eta gertakarien arautegiaren parte izan daiteke, arautegi horretatik bereizitako liburu gisa.

EAEFk egoki irizten dion beste araudi batzuk ere onartuko ahal izango ditu elkartearen antolamendurako dituen eskumenak gauzatzean.

**3.** EAEFren araudiak onartzea edo aldatzea Batzorde Eskuordetuaren eskumena da, eta baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Proposamena presidenteak, Batzorde Eskuordetuko kideen herenak, gutxienez, eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen herenak, gutxienez, bakarrik egin ahal izango dute.
- b) Proposamena berariaz jaso beharko da deialdiaren gai-zerrendan, aparteko puntu gisa. Horrekin batera, onartu beharreko testua, aldatzeko proposatzen denarekin alderatzea eta hori justifikatzen duten arrazoiak jasotzen dituen txosten labur bat aurkeztu beharko dira.
- c) Erabakia bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko da, salbu eta Estatutuek edo erregelamenduak berak quorum edo gehiengo handiago bat aurreikusten badu gaiaren arabera. Nolanahi ere, aldeko botoen kopurua Batzorde Eskuordetuko kide guztien herena izango da, gutxienez.

**4.** Nahitaezko araudien kasuan, haien testuek aplikatu beharreko legeriak eta araudiak ezarritako gutxieneko edukia jaso beharko dute, eta horiek onartu eta aldatzeko, Kirol Kontseilu Gorenak berretsi beharko du.

Horretarako, Batzorde Eskuordetuak proposamena onartu ondoren, hartutako erabakia eta haren edukia Kirol Kontseilu Gorenari bidaliko zaio, hark berretsi dezan. Kirol Kontseilu Gorenaren berrespena lortu ondoren, Kirol Erakundearen Estatuko Erregistroan inskribatuko da.

Kirol Kontseilu Gorenak nahitaezko araudiak onartzea edo aldatzea eragozten edo zailtzen duten oharra edo eragozpenak egiten baditu, Zuzendaritza Kontseiluak aurreko artikuluan Estatutuei buruz adierazitako moduan jokatu ahal izango du.

Araudi horien onarpena edo aldatzea, aldeztu aurretik berretsi eta inskribatu ondoren, Federazioaren webgune ofizialean argitaratzen denean jarriko da indarrean. Argitalpen hori, gehienez ere, Kirol Kontseilu Gorenak berretsi eta hilabetera egin beharko da, eta zirkular bidez zabalduko da.

**5.** EAEFren hautazko erregelamenduen kasuan, ez da beharrezkoa izango Kirol Kontseilu Gorenaren berrespena, eta erregelamenduzko testuak berak edo Batzorde Eskuordetuak libreki

zehazten duen datan jarriko dira indarrean. Data horretan argitaratu beharko dira Federazioaren webgune ofizialean, eta zirkular bidez zabalduko da inguruabar hori.

**6.** EAEFk bere webgune ofizialean sartuko du bere erregelamendu guztien testua, hizkuntza ofizial guztietan eta autonomia-estatutuek aitortutakoetan. Gainera, txertatze- eta indartze-data jasoko du, eta aurreko bertsioak behar bezala bereizita eta antolatuta mantenduko ditu.

## **16. artikulua. EAEFren barne-arauak edota arau erregulatzailerak**

EAEFren barne-arauak edota arau erregulatzailerak dira erregelamendu bat garatzen edo zehazten duten federazio-xedapen orokorrak, edo gai jakin bat modu independentean arautzen dutenak.

Zuzendaritza Kontseiluak onartu behar ditu, bere ekimenez edo bere xede den gaiari buruzko eskumenak bereganatuta dituen organoaren proposamenez; nolahi ere, onarpen hori berariaz eskuordetu ahal izango dio Zuzendaritza Kontseiluari.

Barne-arauak edo -araudiak iraunkorrak edo aldi baterakoak izan daitezke, zirkular bidez zabalduko dira eta EAEFren webgune ofizialean argitaratuko dira.

## **17. artikulua. Beste akordio batzuk**

Era berean, EAEFren organoek, beren eskumenen esparruan, akordioak hartu ahal izango dituzte jende osoari, hartzaile-talde edo -kolektibo jakin batzuei edo hartzaile jakin bati edo batzuei zuzenduta.

Akordio horiek izan daitezke aginduzkoak eta nahitaez bete beharrekoak, edo izan daitezke gomendio hutsak.

Irismen orokorra dutenean edo hartzaile-talde edo -kolektibo jakin batzuei zuzenduta daudenean, zirkular bidez zabalduko dira.

## **18. artikulua. Zirkularrak**

Zirkularra federazio-jarduera bat da, eta, haren bidez, jendaurrean zabaltzen dira EAEFren arauen onarpena edo aldaketa, federazio-organoei hartzen dituzten irismen orokorreko edo askotariko akordioak, deialdiak eta interesgarritzat jotzen diren gainerako informazio guztiak.

Zirkularrak Zuzendaritza Nagusi Betearazlearen buru den pertsonak edo horretarako eskuordetu dezakeenak sinatuko ditu, eta EAEFren webgune ofizialean argitaratuko dira, modu antolatuan eta denboraldiz denboraldi, baita erraz bilatu eta lokalizatu ahal izateko kronologikoki eta gaika ere, organo edo sail igorlearen arabera.

### **III. TITULUA: EAEF-REN KIDEAK ETA PARTAIDEAK**

#### **19. artikulua. EAEFren kideak eta partaideak**

1. EAEFren kideek legez, Estatutuetan, erregelamenduetan eta araudietan ezarritako eskubide eta betebeharrak izango dituzte.
2. EAEF honako pertsona fisiko eta juridiko hauek osa dezakete:
  - a) Kide gisa: atletak, epaileak, entrenatzaileak, bestelako teknikariak, ofizialak, atleten ordezkarriak, klubak eta antolatzaileak.
  - b) Partaide gisa: autonomia-erkidegoetako atletismo-federazioak.
3. EAEF-ren kideak eta partaideak betetzera beharturik daude eta, hala dagokionean, elkarteko kideak betetzera behartuaraziko dituzte EAEFk indarreko legeria betez, bere ekimenez edo World Athletics erakundeko kide izateagatik onartzen dituen estatutuak, erregelamenduak, araudiak, politikak zein prozedurak.

### **I. KAPITULUA: EAEF-REN KIDEAK**

#### **20. artikulua. Pertsona fisikoak**

1. Pertsona fisikoak dira jarraian adierazten diren mota eta egoeretarako urteko federazio-lizentzia, estatukoa zein erkidego batekoa, indarrean duten EAEFren eskubide osoko kideak:
  - a) Atleta, izan norbere izenean edo era independentean, izan EAEFn afiliatutako kirol-erakunde baten bitartez, Estatuko jarduera eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko aukera emanez.
  - b) Epailea, EAEFren arbitraje-erakundearen parte hartzeko aukera ematen duena, betiere erregelamendu bidez ezartzen diren federazio-titulazioak edukitzearen baldintzapean.
  - c) Entrenatzailea, erregelamendu bidez ezartzen diren titulu akademikoak edo federaziokoak edukitzearen baldintzapean.
  - d) Atleten ordezkarria, atleten edota kirol-erakundearen bitartekaritza-lanak ofizialki egiteko aukera ematen duena. Batzar Nagusiko ordezkaritzari dagokionez, atleten ordezkarriak diren erakundeekin batera beste kolektibo interesdun batzuen estamentuan integratuko dira.
2. Hurrengo pertsona fisiko hauek ere EAEFren kide dira, zeinak lizentzia bat edo gaitzen duten beste titulu bat izango baitute:
  - a) Bestelako teknikariak (besteak beste, monitorea).
  - b) Ofizialak (delegatuak, medikuak, etab.).

Erregelamendu bidez ezarriko da beste kide horien eskubideen eta betebeharren araubide berezia. Horien artean, ez dute izango EAEFren Presidentetzarako edo Batzar Nagusirako hautatua izateko ez eta hautatzeko eskubidea.

#### **21. artikulua. Pertsona juridikoak**

1. Pertsona juridikoak dira jarraian adierazten diren mota eta egoeretarako urtero berritu beharreko federazio-lizentzia, estatukoa zein erkidego batekoa, indarrean duten EAEFren eskubide osoko kideak:
  - a) Kluba edo kirol-erakundea, EAEFn erregistratutako erakundearen kasuan, baldin eta beren helburuetako bat atletismoko lehiaketetan parte hartzea bada, izan berak antolatutako lehiaketak, izan bertako kideek antolatutakoak. Araudi autonomiko aplikagarriaren arabera eratuko da, eta federazio autonomikoak edo dagokion autonomia-erkidegoak onartzen badu, EAEFri lotuko zaio, azken horrek ezingo duela baldintza gehigarriak ezarri.



- b) Antolatzailea, baldin eta, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera kirol-kluba ez izanik, beren helburuen edo helburu sozialaren artean atletismo-lehiaketak antolatzea badute.
- c) Atleten erakunde ordezkaria, hautazkoa eta betiere WArek onartzen badu, atleten edota kirol-erakundeen bitartekaritza-lanak ofizialki egiteko aukerarekin. Batzar Nagusiko ordezkariak dagokionez, atleta fisikoen ordezkariekin batera beste kolektibo interesdun batzuen estamentuan sartuko dira.

**2.** Erregelamendu bidez ezarri ahalko da beste pertsona juridiko batzuk ere EAEFren kide izateko aukera, dela lizentzia bidez, dela gaitzen duten beste titulu batzuen bitartez.

Erregelamendu bidez ezarriko da beste kide horien eskubideen eta betebeharren araubide berezia. Horien artean, ordea, ez dute izango EAEFren Presidentetzarako edo Batzar Nagusirako hautatua izateko ez eta hautatzeko eskubidea.

## **II. KAPITULUA: EAEF OSATZEN DUTEN AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO ATLETISMOKO KIROL-FEDERAZIOAK**

### **22. artikulua. Erkidegoetako atletismoko federazioen integrazioa**

**1.** Autonomia-erkidegoetako atletismoko kirol-federazioek nortasun juridiko independentea dute EAEFrekin, eta dagokien autonomia-erkidegoko legediak, beren estatutu, erregelamendu eta gainerako barne-xedapenek eta, osagarri gisa, indarrean dagoen Espainiako kirol-legediak arautzen dituzte.

**2.** Autonomia-erkidegoetako atletismoko kirol-federazioak EAEFn sartu ahal izango dira, dagokion hitzarmena formalizatu ondoren.

Federazio autonomikoek EAEFren politikak, prozedurak, Estatutuak, erregelamenduak eta araudiak onartu beharko dituzte, bai eta Estatuko atletismoaren gaineko eskumenak ere; halaber, World Athletics eta European Athletics erakundeen printzipioak eta arauak onartu beharko dituzte, aplikagarriak izan daitezkeen heinean.

EAEFrentzat, integrazioak esan nahiko du dagokion autonomia-erkidegoan dagokion ordezkariak erkidegoko federazio integratuari egokituko zaiola, eta ezingo dela ezarri lurralde-egitura paralelorik.

**3.** Estatuko kirol-jarduera edo -lehiaketa ofizialetan -berak edo bere kideek antolatutakoetan parte hartzeko, erkidegoetako atletismoko federazioak EAEFn sartuta egon beharko dira.

Nazioarteko kirol-jarduera edo -lehiaketa ofizialetan parte hartzeko ere EAEFn nahitaez sartuta egon beharko dira, legez ezarritako kasuetan izan ezik, eta hori EAEFri jakinarazi beharko zaio, aldez aurretik.

**4.** Estatutuekin, erregelamenduekin edo EAEFren araudiekin integratutako federazio autonomiko baten estatutuen, erregelamenduen edo araudien artean desadostasunik edo gatazkarik izanez gero, EAEFrenak nagusituko dira Estatuko edo nazioarteko eremuari eragin diezaiotkeen guztian.

### **23. artikulua. Integratzeko prozedura**

**1.** EAEFn sartzeko, elkarren arteko akordio bat formalizatu beharko da, eta akordio hori autonomia-erkidegoko federazioaren organo eskudunak eta EAEFren Batzar Nagusiak onartu edo berretsiko dute. Akordioa Kirol Kontseilu Gorenari igorriko zaio, hark berretsi eta gero Kirol Erakundearen Estatuko Erregistroan inskribatu dadin.

**2.** Akordioak aurreikusi beharko du integrazioak, gutxienez, ondorio hauek sortuko dituela:

- a) Federazio autonomikoak bere nortasun juridikoa, ondare propioa eta bereizia, aurrekontua eta araubide juridiko partikularra izango ditu.
- b) Federazio autonomikoak EAEFren araudia errespetatu eta beteko du, zuzenean edo zeharka, edo egituraz, Estatuko eta autonomiaz gaindiko lehiaketa atletiko ofizialekin edo EAEFren eskumenekin zerikusia izan dezakeen guztian.
- c) Federazio autonomikoa EAEFren Batzar Nagusian ordezkaturata egongo da, Hauteskunde Araudian ezarritako baldintzetan.
- d) Estatuko edo autonomia-erkidegoz gaindiko lehiaketa edo jarduera ofizialak direnean, kirol-diziplinaren araubidea EAEFren araudian aurreikusitakoa izango da, eta, osagarri gisa, Estatuko legerian aurreikusitakoa.
- e) Federazio autonomikoak izango du, eskusiboki, EAEFren ordezkariak dagokion autonomia-erkidegoan edo -hirian, zehazten diren muga eta baldintzekin; besteak beste, EAEFri eragin diezaioketen kontratu edo hitzarmenak sinatzeko, aldeztu aurreko adostasuna beharko da.
- f) Federazio autonomikoak ez du inolako oztopo edo murrizketarik jarriko atzeritarrek antolatzen dituzten lehiaketetan parte hartzea oztopatzeko edo eragozteko, baldin eta atzeritarrek legezko bizilekua Espainian badute, hargatik eragotzi gabe lehiaketa bakoitzaren arau erregulatzaile eta teknikoetan atzerriko atleten parte-hartzeari buruz ezarritakoa.
- g) Federazio autonomikoak EAEFk ezar dezakeen hitzarmen bakarra sinatu beharko du, eta horren betebeharrak guztiak bete.
- h) Federazio autonomikoak EAEFri dagozkion lizentziatutako eratorritako kuota ekonomikoak ordaindu beharko ditu, ezarritako epeetan.
- i) Autonomiaz gaindiko atletismo-lehiaketak antolatzeko edo horietan parte hartzeko, aldeztu aurretik eta berariaz jakinarazi beharko zaio EAEFri, hark kalifikatu edo baimendu ditzan, eta hark arautu ahal izango du lehiaketa horiek gaitzeko prozedura.

**3.** Federazioan formalki integratu aurretik, EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak erkidegoetako federazioekin adostu ahal izango du behin-behineko integrazioa, egoki irizitako irismen eta ondorio mugatuekin.

## **24. artikulua. Integratutako federazio autonomikoen eskubideak**

**1.** EAEFn integratutako erkidegoko atletismoko kirol-federazio bakoitzak, gutxienez, honako eskubide hauek izango ditu, Estatutu hauetan, EAEFren erregelamendu eta araudietan eta integratzeko hitzarmenean ezarritakoari jarraituz:

- a) EAEFren Batzar Nagusian duen ordezkarietatik eratorritakoak, hala nola bertan egiten diren bozketetan parte hartu eta esku hartzea.
- b) EAEFk antolatutako batzordeetan, lantaldeetan eta bestelako foroetan parte hartzeko ordezkariak izendatzea.
- c) Batzorde Eskuordeturako hautagaitza aurkeztea.
- d) Estatuko edo autonomia-erkidegoz gaindiko txapelketa edo lehiaketa ofizialak (Estatuan edo nazioartean ondorioak izatea nahi denean), eta beren autonomia-erkidegoan ekitaldiak, programak eta jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko akordioak egitea proposatzea.
- e) Hautaketa-prozeduraren bidez eratzen diren edo osa daitezkeen batzordeetako kide izateko hautagaitza aurkeztea.
- f) EAEFren Zuzendaritza Kontseiluaren urteko txostena jasotzea, bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak izan daitezkeen beste txosten batzuekin batera.
- g) Kideei bidaltzen zaizkien zirkularrak eta informazio ofiziala jasotzea.
- h) Autonomia-erkidegoetako federazioen Espainiako txapelketetan atletak inskribatzea, erregelamendu eta araudi aplikagarriekin bat etorrituz.

- i) EAEFren Estatutu, erregelamendu eta araudi hauetan ezarritako beste edozein eskubide eta pribilegio.

**2.** Autonomia erkidegoko atletismoko kirol-federazio bat EAEFren barruan dagoenean, bere lurralde-eremuan erabakiak hartzeko agintaritza eskuordetua izango du, Estatutu hauetan, erregelamenduetan eta EAEFren araudietan xedatutakoaren arabera, eta ezin izango ditu gainditu legez edo bestela ezartzen diren mugak edo baldintzak.

Hala ere, EAEFn integratutako atletismoko kirol-federazio autonomiko batek ez du aginpiderik EAEFren agente edo ordezkari gisa jarduteko, ezta EAEFren izenean inolako akordio, hitzarmen, kontratu edo konpromisorik baliozkotasunez formalizatzeko ere, Estatutu hauetan, EAEFren erregelamenduetan eta araudietan berariaz baimendua denean edo EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak alde aurretik berariazko eta idatzizko baimena ematen duenean izan ezik. Aurrekoarekin bat ez datozen egintzak neurritz gainekotzat eta gaikuntzarik gabekotzat joko dira, eta EAEF ez da inolaz ere horiei lotuta geratuko.

## **25. artikulua. Integratutako federazio autonomikoen eginbeharrak eta betebeharrak**

**1.** EAEFn integratutako atletismoko kirol-federazio autonomiko bakoitzak, gutxienez, honako eginbehar eta betebehar hauek izango ditu, Estatutu hauetan, EAEFren erregelamendu eta araudietan eta integratzeko hitzarmenean ezarritakoari jarraituz:

- a) Bere autonomia-erkidegoan edo hiri autonomoan atletismoa administratu, sustatu eta garatzea, EAEFren helburuekin bat etorritik.
- b) Esleitzen zaizkion autonomia-esparruko lehiaketa ofizialak, programak, ekitaldiak eta jarduerak kudeatu eta antolatzea.
- c) EAEFren Estatutuak, erregelamenduak eta araudiak betetzea, bai eta World Athletics eta European Athletics erakundeenak ere aplikagarriak diren gaitan.
- d) Integrazio-hitzarmenean ezarritako betebeharrak uneoro betetzea.
- e) EAEFk eskatzen dizkion txostenak eta informazioa ematea, indarrean dagoen legerian, Integrazio Hitzarmenean eta EAEFren erregulazioan xedatutakoaren arabera, edo horretarako eskatzen zaionean.
- f) EAEFri urteko txosten bat aurkeztea, EAEFren erregelamenduetan edo araudietan ezarritako edukiarekin.
- g) Funtzionamendu demokratikoa izatea, eta presidentea eta gobernu- eta ordezkari- organoak osatzen dituztenak demokratikoki hautatzea.
- h) Kirol-denboraldi bakoitzean, gutxienez, lehiaketa edo txapelketa nazional batean modu eraginkorrean parte hartzea, salbu eta, egon daitezkeen lurraldeko edo bestelako inguruabar bereziak kontuan hartuta, eta modu justifikatuan, hori egitea ezinezkoa denean.
- i) Bere autonomia-erkidegoaren edo hiri autonomoaren aitorten ofizialari eustea, bai eta nortasun juridiko propioari, ondare propio eta bereziari eta aurrekontu eta araubide juridiko partikularrari ere, aplikatzekoa den legeria autonomikoaren arabera.
- j) Bere estatutuak, erregelamenduak eta araudiak onartzea, Estatutu hauekin eta EAEFren erregelamendu, araudi, politika eta prozedurekin bat datozenak eta bateraezinak ez direnak.

**2.** Autonomia-erkidegoko atletismoko kirol-federazioetako presidentek ziurtatuko dute zuzentzen duten federazioak betetzen dituela artikulua honetan ezarritako eginbeharrak eta betebeharrak, bai eta arauen edo konbentzioen bidez aplikatzekoak diren guztiak ere.

## **26. artikulua. Ez-betetzeak eta gatatzak**

**1.** EAEFn integratutako erkidegoetako atletismoko federazioen batek urratu egiten badu integrazio-hitzarmena, EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak hartu beharreko erabakiak aztertuko ditu. Bereziki, honako kasu hauetan:

- a) Estatuko edota autonomia-erkidegoz gaindiko lehiaketa ofizialak antolatzeari edo garatzeari buruzko EAEFren araudia edo eskakizunak ez dituenen betetzen.
- b) Lizentziak emateko eta afiliatutako erakunde eta pertsona fisikoei buruzko informazioa jakinarazteko ezarritako betebeharrak ez direnean betetzen.
- c) Nazioarteko kirol-federazio batean edo EAEF kide den atletismoarekin lotutako nazioarteko kirol-elkarte batean onartzeko formalki eskatzen denean. Helburu horrekin negoziazioak hasten badira, EAEFk Federazioaren integrazioa kautelaz eten ahal izango du, formalki eta berariaz uko egiten ez zaion arte.
- d) EAEFren aurretiako eta berariatikoa baimenik gabe nazioarteko edo Estatuko lehiaketa ofizialak edo EAEFk ezarritako prozedura urratzen duten autonomiaz gaindiko lehiaketak egiten direnean.
- e) EAEFren hitzartutako betebeharrak ekonomikoak ez direnean betetzen.
- f) EAEFk bere lurraldean duen ordezkari-tuntzioa gainditzen bada, bereziki kalte ekonomikoak edo izen onekoak sortzen direnean edo egon daitezkeenean.
- g) EAEFren Estatutuak, erregelamenduak, araudiak, politikak eta prozedurak edo EAEFren organoen erabakiak ez direnean betetzen.
- h) Integrazio-hitzarmena betetzen ez denean.
- i) Berariaz ezarritako edo onartutako beste ez-betetzereen bat denean.

Aurreko betebeharrak edo eginbeharretakoren bat betetzen ez dela ikusita, EAEFk haren izaera eta nolakotasuna azteretuko ditu, eta federazio autonomikoari jakinarazpen bat bidaliko dio, ez errepikatuzeko eskatuz, epe bat emanaz kargugabetzeko edo zuzentzeko (bereziki ere betetze-egoeran jartzeko), diziplina-organo eskudunei salatuz, edo, ez-betetzea bereziki larria edota errepikatua edota iraunkorra bada, zuzenean desintegrazio-prozedura eskatzeko.

Diziplina-salaketa izapidetzen bada, zuzenean edo kargugabetzeko edo zuzentzeko errekerimenduari jaramonik ez egiteagatik, EAEFren Diziplina Araudian aurreikusitakoak izango dira organo eskuduna eta arrazoi horrengatik ezarri beharreko zehapenak. Arrazoi horrengatik ezar daitezkeen zigorrak artean, ohartarazpen publikoa, ez-betetzearen erantzulea ez-gaitzea eta EAEFren kide gisa eskubideak aldi baterako etetea aurreikusi beharko dira.

Ez-betetzearen ondoriozko desintegrazio-prozedura erregelamendu bidez arautuko da, hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

**2.** EAEFren eta atletismoko federazio autonomiko integratuen artean sor daitezkeen gatazka konpontzeko, ez badute diziplinako arloko arau-hausterik eragiten, ez eta desintegrazteko arrazoirik ere, batzorde parekide baten mende jarriko dira. Batzorde hori presidentek eta inplikaturako federazio bakoitzak izendatutako hiru kidek, gehienez jota, osatuko dute. Alderdi bakoitzak kanpoko bi aholkulari izan ditzake.

Hiru hilabeteko epean ez bada akordiorik lortzen, gatazkaren konponbidea aldeek adosten duten organoaren bitartekaritzapean jarriko da.

Hor ere ez bada hiru hilabeteko epean akordiorik lortzen, gatazkaren konponbidea EAEFren Estatutuaren ezarritako judizioz kanpoko konponbidearen sistemaren mende jarri ahal izango da, edo organo juridikoz eskudunen aurrean aurkeztu ahal izango da.

Gatazkaren izaerak edo izan ditzakeen ondorioek premiazko edo berehalako konponbide bat behar dutenean, paragrafo honen lehen lerroan aipatzen den bilera amaitu ondoren, zuzenean jo ahal izango da aurreko lerroan adierazitako aukeretara, eta EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak beharrezkoak, justifikatuak eta proportzionatuak diren behin-behineko edo kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu; neurri horien ondorioak nazioarteko, Estatuko eta autonomiaz gaindiko esparruetan soilik izan ahal izango dituzte.

## **27. artikulua. Desintegrazeko prozedura**

**1.** EAEFren eskariz erkidegoko atletismoko kirol-federazio integratu bat desintegrazeko prozedura erregelamendu bidez arautuko da eta gidalerro hauei jarraituko dio:

- a) EAEFren Zuzendaritza Kontseiluaren erabakiaren bidez hasiko da, eta eraginpeko federazio autonomikoari eta Batzar Nagusiko kideei jakinaraziko zaie.
- b) Zuzenbideko titulazioa duten instruktore bat eta idazkari bat izendatuko dira. Biak ala biak errekusatu ahal izango dira, administrazio-legerian aurreikusitako moduan.
- c) Ez-betetzeak oso larriak badira, edo kalte handiak eta konponezinak eragin baditzakete, Batzorde Eskuordetuak behin-behineko edo kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu, eta integrazioa behin-behinean etetea ere erabaki ahal izango du, zeina behar bezala arrazoitua eta proportzionala izango baita, eta Batzar Nagusian errekurritu ahal izango da.
- d) Prozedurak entzunaldi-eskubidea bermatuko du, bai eta frogak proposatu eta egitea ere. Desintegrazioa proposatuz gero, ebazpen-proposamena federazio autonomikoari, Batzorde Eskuordetuari eta, egonez gero, aholkularitza juridikoari jakinaraziko zaie, loteslea ez den txostena egin dezaten; EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak beste txosten bat egingo du bi erakundeen arteko egoerari buruz, elkarren arteko harreman juridiko eta ekonomikoak banantzeari begira.
- e) Txostenak egin ondoren, edo horretarako ezarritako epea igaro ondoren, desintegrazio-proposamena EAEFren Batzar Nagusiaren esku utziko da, eta horrek dagokion erabakia hartuko du, gehiengo soilez. Eraginpeko federazioko kideek ez dute bozkatzeko eskubiderik izango, dauden interes-gatazkak direla-eta, baina hitza izango dute bertan.
- f) Batzar Nagusiak desintegrazioa onartzen badu, erabakia federazio autonomikoari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpena egiten denetik berehala betearaztekoa izango da, horretarako data zehatz bat aurreikusten denean izan ezik.
- g) Prozedura hasi eta Batzar Nagusiak erabakia hartu bitartean ezin izango dira sei hilabete baino gehiago igaro. Hala ere, Zuzendaritza Kontseiluak beste sei hilabetez luzatu ahal izango du epe hori.

**2.** Autonomia-erkidegoko atletismoko federazio integratu batek EAEFtik banandu nahi duenean, bere organo eskudunek zentzu horretan onartutako erabakia hartu ondoren, eskaera EAEFri igorriko dio, behar bezala arrazoituta, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenarekin. Halere, eskaera horrek ez du ondorioz izango uneko kirol-denboraldia amaitu arte.

Aurreko paragrafoan adierazitako txostenak egingo dira, zeinak federazio autonomiko jarduleari jakinaraziko baitzaizkio, dagozkion ondorioetarako.

**3.** Autonomia-erkidegoko atletismoko kirol-federazio bat EAEFregandik banantzea Kirol Kontseilu Gorenari bidaliko zaio, organo horrek berretsi eta Kirol Erakundeen Estatuko Erregistroan inskribatua izan dadin.

**4.** Autonomia-erkidegoko atletismoko kirol-federazio bat desegiten denean, berriro integratu ahal izango da, erregelamendu bidez garatuko den eta arrunta edo laburtua izan daitekeen prozedura baten bidez.

Prozedura arruntaren bidez, beste integrazio-hitzarmen bat sinatzeko akordioa negoziatu eta lortuko da.

Prozedura laburtuaren bidez, berriz, EAEFren Batzorde Eskuordetuak bertaratutako gehiengo osoz hartutako erabakiaren bidez eta Batzar Nagusiarengandik banandutako federazio autonomikoari horren berri emanez, berriro onartu ahal izango da, baldin eta banantzearen arrazoa federazio horrek modu baliozko eta frogagarrian zuzendu dituen ez-betetzeak izan badira, eta hori ez errepikatzeko berariazko konpromisoa hartu bada eta sortutako kalteak aldeztatik konpondu badira.

## **28. artikulua. EAEFren Ordezkaritzak**

**1.** Hiri autonomiko edo autonomia-erkidego batek ez badu autonomia-erkidegoko atletismoko kirol-federaziorik, edo federazio hori ez badago EAEFn sartuta, ordezkari bat eratuko da bertan, Estatuko atletismo-jarduera garatzeko edo Estatuko edo nazioarteko lehiaketetan parte hartzea gaitzeko.

Kirol-arloan eskumena duten organo autonomikoei eta atletismoarekin zerikusia duten eta horren berri duten pertsona fisiko eta juridiko guztiei jakinaraziko zaie, datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeria errespetatuz.

**2.** EAEFren Ordezkaritzak federazioaren organo periferikoak dira, eta administrazio-egitura propioa izan dezakete, baina ez dute nortasun juridikorik eta jarduteko gaitasunik. Bere ondarea eta aurrekontua EAEFrenean integratuta egongo dira, behar bezala bereizita, bere baliabideak eta egoera ekonomikoa uneoro ezagutu ahal izateko. Laguntzak eta diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte, eta horiek jakinarazi eta justifikatu egin beharko dira.

**3.** EAEFren Ordezkaritza bakoitzaren buru Ordezkaritza bat egongo da, eta bera izango da Federazioak hiri autonomikoan edo autonomia-erkidegoan izango duen ordezkaria. EAEFren presidenteari dagokio hura izendatzea eta kargutik kentzea, Zuzendaritza Kontseiluari entzun ondoren, erregelamendu bidez garatzen diren baldintzetan eta irizpide demokratiko eta ordezkatzaileri jarraituz.

**4.** EAEFren Ordezkariek autonomia-erkidegoko atletismoko federazioetako presidenteen aintzatespen bera izango dute, eta EAEFren Ordezkaritzek integratutako federazio autonomikoen aintzatespen bera izango dute. Alde horretatik, Ordezkaritza horiek Batzar Nagusiko kide izango dira, indarrean dagoen legeriak hala onartzen badu, hargatik eragotzi gabe ordezkari bat beste pertsona bati esleitzea, erregelamendu bidez ezartzen den moduan. Ordezkaritzek, bestalde, parte hartuko dute federazio autonomiko integratuen ordezkari bat edo parte-hartzea duten organo, batzorde, komisio edo lantalde guztietan.

**5.** EAEFren Ordezkaritza baten eta autonomia-erkidegoan edo hiri autonomoan den baina EAEFn integratuta ez den kirol-federazio autonomikoaren arteko harreman orok EAEFren presidenteari edo Zuzendaritza Kontseiluaren alde aurreko eta berariazko baimena beharko du.

## **IV. TITULUA: EAEF-REN EGITURA ORGANIKOA**

### **29. artikulua. EAEFren organoak**

**1.** EAEFren egitura organikoa demokrazia- eta ordezkartza-printzipioei lotuta dago, eta honako organo mota hauen bidez gauzatzen da:

1. Gobernu eta ordezkartzakoak
2. Osagarriak
3. Diziplinakoak
4. Lehiaketakoak
5. Hauteskundeetakoak
6. Gatazken judizios kanpoko konponketena
7. Organo teknikoak eta kirol-organoak
8. Barne funtzionamendukoa
9. Kontrolakoa

**2.** Integritate Atala eratzten da EAEFren baitan, zeinak bere arautzeari buruzko Kapituluaz azaltzen diren organoak bilduko baititu.

### **30. artikulua. Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudia**

**1.** EAEFren Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudiak Estatutu hauen oinarritzko edukia beteko du, eta alderdi hauek ezarriko ditu: Federazioaren egitura organikoa; organo bakoitzaren osaera, eginkizunak eta eskumenak; kideak izendatzeko edo hautatzeko modua; eta, funtzionatzeko behar den guztia. Era berean, federazio-organoetako kideen eskubideak, betebeharrak, bateraezintasunak eta erantzukizun-araubidea ere arautuko ditu.

Aurreko paragrafoan adierazitakotik salbuetsita daude:

- a) Hauteskunde-organoak, horien erregulazioa Hauteskunde Araudian jasoko baita.
- b) Diziplina-organoak, Diziplina Araudian arautuko baitira.

**2.** EAEFk, eraginkortasun-irizpideak kontuan hartuta, zenbait organo bateratu edo taldekatu ahal izango ditu funtzionalki, betiere indarrean dagoen legediaren edo World Athleticsekin edo European Athleticsekin hartutako arau eta konpromisoen aurkakoa ez bada.

Mota bereko organoei eragiten dienean, erabaki hori Zuzendaritza Kontseiluaren eskumena izango da, eta beste mota bateko organoena bada, berriz, Batzorde Eskuordetuarena.

### **31. artikulua. EAEFren organoetako kideak izendatzea eta horien erantzukizunaren oinarritzko araubidea**

**1.** EAEFren kide bakarreko edo kide anitzeko organoetako kide izateko izendapena Estatutu hauetan arautuko da eta gobernantzari eta barne-araubideari buruzko araudian garatuko da, eta era honetan gauzatuko da:

- a) Hautaketa bidez, aldez aurretik hautapen-prozesu bat garatzen denean.
- b) Izendapen askez, organo batek beste pertsona bat edo batzuk zuzenean izendatzeko eskumena duenean.
- c) Berez, aplikatzekoa den legeriak edo araudiak ezartzen duenean organo jakin bat, nahitaez, pertsona fisiko edota juridiko jakin batzuek osatuko dutela.

**2.** Gobernantza eta Barne-antolamenduaren Araudiaren bidez garatzearen kalterik gabe:

- a) EAEFren presidentek korporazio mailan hartzen dituen egintzen eta parte hartzen duen erabakien edukari eta ondorioei buruz erantzungo du. Era berean, EAEFren, bere kideen eta hirugarren batzuen aurrean bere izenean erantzungo du, dagokion erantzukizun-ekintza

gauzatu ondoren, egintza eta erabaki horien ondorioz kalteak sortzen direnean, egotzi ahal zaizkion doloa edo zabarkeria tartean direla, eta hori EAEFk zuzenean esku hartuz edo, esleituta dagoenean, ikuskatze-betebeharra bete gabe utziz egin dituen betebeharrak zibil, komertzial, administratibo eta publikoetara ere hedatzen da. Balizko erantzukizun hori EAEFk aseguratu egingo du presidenteari bere lanetatik ordainsaririk jasotzen ez duenean, beti ere Batzar Nagusiak ezartzen diren mugekin hala onartzen badu.

- b) EAEFren zuzendaritza-, ordezkari- eta kudeaketa-organoetako kideek hartuko dituzten egintzen eta parte hartzen duten erabakien edukari eta ondorioei erantzunak diete maila korporatiboan. Era berean, erantzukizun pertsonala izango dute EAEFren, haren kideen eta hirugarrenen batzuen aurrean, dagokion erantzukizun-ekintza gauzatu ondoren, baldin eta egintza eta erabaki horiek direla-eta kalteak sortzen badira, egotz daitezkeen dolo edo zabarkeria larria tartean dela. Erantzukizun hori EAEFk zuzenean esku hartuz edo, esleituta dagoenean, ikuskatze-eginbeharra bete gabe utzita izan dituen betebeharrak zibil, komertzial, administratibo eta publikoetara ere aplikatuko zaie. Balizko erantzukizun hori EAEFk aseguratu egingo du interesdunek beren lanetatik ordainsaririk jasotzen ez dutenean, beti ere Batzar Nagusiak ezartzen diren mugekin hala onartzen badu.

**3. Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudiaren bidez garatzen bada ere, presidentea, zuzendaritza-eginkizunak dituzten pertsonak eta zuzendaritza-eginkizunak dituzten organoetako kideak, bereziki EAEFrentzat edo EAEFren kideentzat ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko gaitasuna dutenak, interes-gatazkan egongo dira jarraian azaltzen diren kasuetan. Hala, horri buruz ohartarazi beharko dute, eta ez dute inola ere esku hartuko horri buruzko erabakiak hartzeko prozesuaren ezein fasean, salbu eta horretarako eskumena duten organoek alde aurretik eta berariaz baimentzen badituzte:**

- a) Erabakiak hartzeak, zuzenean edo zeharka, abantaila ekonomiko edo ondarezkoa ekar dezakeenean bere onurarako edo harreman edo lotura berezia duen edo izan duen pertsona juridiko edo fisiko baten onurarako, elkarte, sozietate, boluntario, familia edo adiskidetasun estu edo nabarmeneko mailan.
- b) Erabaki horiek hartzea, zuzenean edo zeharka, ondarezkoa ez den onura edo abantaila izan badaiteke, norberaren edo lehen aipatutako pertsona edo erakundearen mesederako.
- c) EAEFn duen posizioak beste eremu batzuetan duen posizioarekin interes kontraesankorrak edo kontrajarriak sor ditzakeen kasu guztietan.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioetarako, ez da interes-gatazkatzat hartuko EAEFren organoetan esku hartzea, berezko egoeran edo ordezkari hautetsi gisa, baldin eta akordioak eta erabakiak hartzeak ondorioak izan badituzte EAEFren kidearengan berarengan, baldintza horretan, organo horri esleitutako eskuduntzen ondorioz.

Paragrafo honetan aipatzen diren pertsonetako batek interes-gatazka sortzen duela uste denean, Araudia Betetzeko Ordezkaritari eta eragindako organoaren presidenteari jakinaraziko zaie, edo, kide anitzeko organo baten esparruan jarduten ez duen pertsona bat bada, EAEFko presidenteari, eta salaketan barne-kanala ere erabili ahal izango da horretarako.

Izendapen askeko karguen kasuan, interes-gatazken debekua urratzeak, horretarako ezarritako prozeduraren bidez egiaztatu ondoren, horiek izendatu zituenak kargugabetu egingo du; kargu hautetsien kasuan, berriz, errebotatze-espeditante bat hasteko aukera zabalduko da, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen diziplina-erantzukizunak.

## **32. artikulua. EAEFren organoetako kideen kargu-uztea**

Gobernantza eta Barne-antolaketako Araudian edo organo bakoitzaren estatutuetako oinarriko erregulazioan ager daitezkeen gainerako arrazoi zehatzak alde batera utzi gabe, EAEFren organoetako kide izateari uzteko arrazoi orokorrak dira honako hauek:

1. Pertsona fisikoaren kasuan:



- a) Heriotza edo ezgaitasuna.
- b) Ordezkatzen duten erakundearen desegitea edo EAEFregandik banantzea, edo erakunde horren ordezkaritza-izaera galtzea, izendapena egiteko baldintza edo arrazoia denean.
- c) Hautatuak izan zireneko agintaldia amaitzea.
- d) Borondatez uko egitea edo dimisioa ematea.
- e) Hautaezintasun- edo bateraezintasun-kausaren batean erortzea, legearen edo Estatuen arabera.
- f) Izendatu zituenak kargutik kentzea, izendapen askeko organoen kasuan.
- g) Etendura edo desgaitasuna dakarren diziplina-zehapena jasotzea.
- h) Presidentearen kasuan, zentsura-mozioa onartzea.
- i) Presidentetza eta Zuzendaritza Kontseilua betetzen duten pertsonen kasuan, epai irmo bidez kondenatuak izatea.

## 2. Pertsona juridikoen kasuan:

- a) Erakundearen desegitea, EAEFren kide izateari uztea edo EAEFregandik banantzea.
- b) Hautatuak izan zireneko agintaldia amaitzea.
- c) Borondatez uko egitea edo dimisioa ematea.
- d) Izendatu zituenak kargutik kentzea, izendapen askeko organoen kasuan.
- e) Afiliatu gisa dituen eskubideak etetea dakarren diziplina-zehapena jasotzea.

3. Era berean, organoko kide gisa kautelaz etetea erabaki ahal izango da, arrazoiak emanez, kargua uzteko arrazoi izan daitezkeen inguruabarren zantzuak daudenean, horiek egiaztatzen diren bitartean.

# I. KAPITULUA: GOBERNU- ETA ORDEZKARITZA-ORGANOAK

## LEHEN ATALA: XEDAPEN OROKORRAK

### 33. artikulua. Gobernu- eta ordezkaritza-organook

1. Federazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organook izango dira erakundearen jarduera zuzentzen eta horren ordezkaritzan aritzen direnak, eta horien izendapena edo eraketa aurretiko hautaketa-prozesu baten bidez egingo da.

EAEFren gobernu-organook dira hauek:

- a) Batzar Nagusia
- b) Batzar Nagusiaren Batzorde Eskuordetua

EAEFren ordezkaritza-organoa da hau:

- c) Presidentetza

2. Organo horiek EAEFren Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudiaren bidez arautuko dira, Estatutu hauetan ezartzen denaren eta aplikagarria den legeria eta araudia zuzenetan aplikatzearen kalterik gabe.

## BIGARREN ATALA: BATZAR NAGUSIA

### 34. artikulua. Kontuan hartzeko oinarrizko elementuak

1. Batzar Nagusia da EAEFren eta Espainiako atletismoko kirolaren gobernu-organo gorena.

**2.** Batzar Nagusia hauek eratuko dute:

- a) Federazioaren presidentetza betetzen duen pertsona.
- b) EAEFn integratutako autonomia-erkidegoetako atletismoko federazioek edo, hala badagokio, EAEFren Ordezkaritzek **izendatutako ordezkaria**, araudi bidez ezarritako zehaztapenen arabera.
- c) EAEFren kirol-erakundeen, atleten, entrenatzaileen, epaileen eta beste kolektibo interesdunen (antolatzaileak eta atleten ordezkariak) ordezkaritza, helburu horretarako dagokion hauteskunde-prozesuaren bidez hautatuak izan direnean.

**3.** Batzar Nagusiko kideak lau urterako hautatuko dituzte, eta hautaketak Udako Olinpiar Jokoak egiten diren urteetan egingo dira, sufragio aske, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez, atletismoko estamentu bakoitzeko kide eta partaideen artean, indarrean dauden hauteskunde-xedapenen arabera.

Agintaldia amaitu baino lehen Batzar Nagusian hutsik geratzen diren eserlekuak badira, Hauteskunde Araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

**4.** Batzar Nagusia ohiko bilkuran edo ez-ohiko bilkuran bildu ahalko da edo idatzizko prozedura bidez hartu ahalko ditu erabakiak, hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

### **35. artikulua. Eraketa eta banaketa**

**1.** EAEFren Batzar Nagusia indarreko legeriak ezartzen duen kide-kopuruak osatuko du, edo, halakorik ezean, horretarako onartzen den Hauteskunde Araudiak ezartzen duenak, aplikatu beharreko aginduzko zuzenbidea errespetatuz.

Indarreko legeriak ez badu kide-kopuru jakinik ezartzen, kopuru-tarteak baizik, kopuru zehatza Batzorde Eskuordetuak finkatuko du, oro har eta estamentuz estamentu, eta ondoren Batzar Nagusiak berretsi beharko du.

Lehen aipatutako estamentuetan agintaldian gerta daitezkeen aldaketak ez dira Batzar Nagusiak osaera aldatzeko arrazoi izango, eta hurrengo hauteskunde-prozesuan berritu arte iraungo dute.

**2.** Hauteskunde Araudiak kontuan hartuko ditu hautagai-zerrendak aurkeztean edota estamentuetako ordezkariak aukeratzean bete beharko diren parekotasun-irizpideak, hori posible denean, betiere aplikatu beharreko lege-xedapenak betez.

### **36. artikulua. Egiteko tokia**

**1.** Batzar Nagusia egiteko data eta tokia Zuzendaritza Kontseiluak erabakiko du. Deialdian, gai-zerrenda eta erantsitako dokumentazioa jasoko dira.

Batzar Nagusietarako deialdia eta garapena Estatutu hauetan eta horren garapenerako erregelamendu eta araudietan ezarritakoari jarraituz egingo dira.

**2.** Arau orokor gisa, Batzar Nagusiko bilkurak aurrez aurrekoak izango dira, eta horra joateko gastuak EAEFren kontura izango dira, horretarako ezartzen diren zehaztapenen arabera.

Hala ere, EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak erabaki ahal izango du Batzar Nagusiaren bilera bitarteko telematikoen bidez egitea, justifikatutako edo ezohiko arrazoiren batengatik, kideetako bat bera ere fisikoki bertaratu gabe.

Kasu horretan, erabiltzen den sistemak sarbide mugatua izango du, eta informazioaren segurtasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna eta benetakotasuna bermatu beharko dira, bozketen balizko sekretua barne.

### **37. artikulua. Batzar Nagusietara joatea**

EAEFren Batzar Nagusietara hauek joan ahalko dira:

- A) Botoa eta ahotsa dutela, eskubide osoko bere kideak.
- B) Ahotsa dutela baina botorik gabe, presidenteak aldeztatik gonbidatuta edo baimenduta:
  - a) Kirol Kontseilu Gorenaren presidentea, edo hark eskuordetutako pertsona.
  - b) Espainiako Olinpiar Batzordeko presidentea, edo hark eskuordetutako pertsona.
  - c) World Athleticseko edota European Athleticseko presidenteak, edo haiek eskuordetzen dituztenak.
  - d) EAEFren aurreko presidentea.
  - e) EAEFren, World Athleticseko eta European Athleticseko Zuzendaritza Kontseiluko kideak.
  - f) Zuzendaritza Betearazleko eta Batzorde Betearazleko kideak, eta CENFAko, CENAEDeko eta, EAEFren Batzorde, Komisio eta funtzio-arloetako presidenteak.
  - g) Presidenteak gonbidatzen edo deitzen dituen pertsonak, joratu beharreko gaiak kontuan hartuta; batik bat, aholkulariak eta auditoreak.
  - h) Legez, estatutuz edo erregelamenduz horretarako eskubidea onartuta duten gainerako pertsonak.
- C) Behatzaile gisa, ahotsik (presidentearen berariazko baimena izan ezean) eta botorik gabe, presidenteak aurretik eta berariaz eskatuta:
  - a) EAEFren presidente ohiak.
  - b) EAEFren langileak edo kolaboratzaileak.
  - c) Batzordeetako, komisioetako eta lantaldeetako edo Zuzendaritza Kontseiluak izendatutako beste talde batzuetako kideak.
  - d) EAEFrekin edo atletismoarekin lotura duten beste pertsona batzuk.

### **38. artikulua. Ohiko eta Ez-ohiko Batzar Nagusia**

1. EAEFren Batzar Nagusia gutxienez urtean behin bilduko da, ohiko izaeraz, honako gai hauei buruz eztabaidatzeko eta erabakitzeko:
  - a) Kirol-egutegia onartzea.
  - b) Hurrengo ekitaldiko aurrekontu-proiektua onartzea.
  - c) Gobernu onari buruzko txostena onartzea.
  - d) Urteko karguak berritzea edo berrestea.

Ohiko Batzar Nagusiaren deialdiak gai-zerrendako beste edozein puntu gehigarri ere jaso ahal izango du, horren aurreko edo ondorengo Ezohiko Batzar Nagusirako deialdirik egin beharrik gabe.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa baztertu gabe, EAEFren Batzar Nagusia behar den guztietan bildu ahal izango da ezohiko izaeraz, EAEFren presidentearen ekimenez, Batzorde Eskuordetuaren erabakiz edo Batzar Nagusiko kideen % 30ek, gutxienez, eskatzen dutenean, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

### **39. artikulua. Eskumenak**

EAEFren Batzar Nagusiaren eskumenak izango dira hauek:

- a) Aurreko artikuluan ohiko Batzar Nagusiarentzat aurreikusitakoak.
- b) EAEFren presidentea aukeratzea.
- c) Batzar Nagusiko Batzorde Eskuordetuko kideak hautatu eta kargutik kentzea, eta horren agintaldian sortzen diren hutsuneak betetzea.

- d) Presidentearen aurkako zentsura-mozioa, Estatutu hauetan eta Hauteskunde Araudian araututako moduan. Mozioa, hain zuzen, osatzen duten kideen gehiengo osoak onartu beharko du.
- e) EAEFren Estatutuak onartu eta aldatzea, gutxienez bertaratutako kideen 2/3ren gehiengoarekin.
- f) EAEFren egoitza soziala aldatzea. Horretarako, gutxienez botoen 2/3 beharko dira, Estatutuak aldatzen baitira.
- g) Urteko kontuak onartzea eta aurreko ekitaldiko aurrekontua likidatzea.
- h) Biziarteko ohorezko presidentearen titulua ematea.
- i) EAEFren ondasun higiezinaren karga edo besterentzea onartzea, eragiketaren zenbatekoa aurrekontuaren ehuneko 10ekoa edo handiagoa denean, hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen legerian nahitaezkoak izan daitezkeen gainerako baldintzak betetzea. Akordio horrek bertaratutako kideetako 2/3ren gehiengoa beharko du, gutxienez.
- j) Zuzendaritza Kontseiluak eta Batzar Nagusiko kideek aurkeztutako proposamenak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea, erregelamenduz zehaztutako moduan eta baldintzetan.
- k) Gatazkak konpontzeko judiziorik kanpoko sistema komun bat ezartzea, Estatutuetan edo araudietan berariaz aurreikusita ez dagoenean.
- l) Kontrol Ekonomikoko Batzordeko kideak edo Kontrol Ekonomikoko Ordezkaria aukeratzea, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta.
- m) Diziplina-organoetako kideak aukeratzea, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta.
- n) Autonomia-erkidegoko atletismoko federazioak desegitea.
- o) Lizentzien kuoten zenbatekoa finkatzea.
- p) EAEF desegitea eta likidatzea, Estatutu hauetan eta horiek gara ditzaketen erregelamenduetan araututako baldintzetan.
- q) Legez, estatutuz edo erregelamenduz ezarritako edo, Batzar Nagusiaren eskumena izanik, izaera arruntekoak ez diren beste gai guztiak.

#### **40. artikulua. Deialdia, quoruma eta garapena**

**1.** Batzar Nagusirako deialdia EAEFren presidenteak egingo du alde zuzenetik. Zuzendaritza Betearazlearen buru denak jakinaraziko die kide guztiei, eta jendaurrean jarriko da (erantsitako dokumentazio guztia edo zati bat publikatuz kanpo uzteko aukera baztertu gabe), erregelamendu bidez zehaztutako aurrerapenarekin. Ohiko Batzar Nagusiaren kasuan, ezingo da izan egutegiko hogeita hamar egun baino lehenago, eta Ezohiko Batzar Nagusien kasuan, ezingo da izan egutegiko hamar egun baino lehenago.

Justifikatutako arrazoiren batengatik, deialdiaren aurreabisua egiteko epea erdira murriztu ahal izango da, eta deialdiari erantsitako dokumentazioa, gutxienez, egutegiko bost egun lehenago bidali ahal izango da, aurrekontuari eta urteko kontuei dagokiena izan ezik, hori hamabost egun natural lehenago bidali ahalko baita.

Ohiz kanpoko egoeran, larrian zein premiazkoan, eta Batzorde Eskuordetuak alde zuzenetik hala erabakitzen badu, Batzar Nagusia gutxienez 48 ordu lehenago deitu ahal izango da.

**2.** Batzar Nagusirako deialdiak, gutxienez, alderdi hauek zehaztu beharko ditu:

- a) Tokia, data eta ordua.
- b) Gai-zerrenda.
- c) Gai-zerrendako puntuak aztertu ahal izateko igorriko den dokumentazioa.
- d) Erabiliko den formatua (aurrez aurrekoa edo telematikoa).

**3.** Batzar Nagusia behar bezala eratzeko, gutxienez boto-eskubidea duten kideen heren bat egon beharko da bertan, batzarra hasteko aurreikusitako orduan. Hala ez bada, ordubetaz atzeratuko da, eta epe hori igarotakoan baliozkoa izango da haren eraketa, gutxienez boto-eskubidea duten kideen % 25en parte-hartzearekin, Estatutu hauek eta horiek garatzeko erregelamenduek gai jakin batzuk onartzeko ezar dezaketen quorum handiagoaren kalterik gabe.

**4.** Batzar Nagusiko presidentea EAEFren presidentea izango da (zentsura-mozio batean aurreikusitakoa izan ezik). Hura ez badago, berriz, Federazioko lehen presidenteordea izango da. Zuzendaritza Kontseiluak ere ezin badu parte hartu, gainerako presidenteordeetako bat izendatuko du horretarako. Aurrekoen absentsia edo ezintasunen bat gertatuz gero, bertaratutakoen artean adin handiena duen eskubide osoko kidea izango da batzarreko buru.

Batzarreko presidenteak balio osoz eratzat joko du, eztabaidak antolatuko ditu, gaitzerrendako puntuen ordena aldatu ahal izango du, hitza eman eta kendu egingo du, hitza uztea aginduko dio horren garapena larriki oztopatzen duen pertsonari, atsedendialdiak egitea erabaki ahal izango du, bozketak zuzenduko ditu, kalitateko botoa izango du berdinketa gertatuz gero, eta batzarra amaitutzat emango du, hargatik eragotzi gabe hura behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak eta Estatutuetan edo erregelamenduetan aurreikusita daudenak hartu ahal izatea.

**5.** Arau orokor gisa, erabakiak bertaratutakoen gehiengo soilez hartuko dira, legez edo Estatutuetan aurreikusitako quorum edo gehiengo handiagoen kalterik gabe. Baliozkoak izan daitezten, deialdiarekin batera bidalitako gai-zerrendan jaso beharko dira. Botoa emateko prozedura esku hutsezkoa izango da, salbu eta presidenteak edo bertaratutakoen % 10ek, gutxienez, isilpekoa izatea eskatzen badute. Kasu horretan, emandako botoen konfidentzialtasuna bermatzeko moduan egingo da.

Batzar Nagusien akta Estatutuetan edo erregelamenduetan aurreikusitako moduan egingo da, eta hurrengo bileran onartu beharko da, edo, bestela, gehienez jota zazpi egun naturaleko epean egiaztatu beharko dute bertaratutakoen artean izendatzen diren bi kidek. Jendaurrean zabalduko da, eta isilpekotzat jotzen diren informazio jakin batzuk mugatu ahal izango dira.

## **HIRUGARREN ATALA: BATZAR NAGUSIAREN BATZORDE ESKUORDETUA**

### **41. artikulua. Eraketa eta funtzionamendua**

**1.** EAEFren Batzar Nagusiko Batzorde Eskuordetua hamabost kidek eta EAEFren presidenteak osatuko dute. Azken hori izango da batzordeburua, eta idazkari gisa Zuzendari Betearazlea edo hark eskuordetzen duen pertsona arituko da, zeinak hitza izango baitu, baina botorik ez.

Bertako kideak Batzar Nagusiko kideek aukeratuko dituzte, lau urteko hauteskunde-prozesu bakoitza amaitu ondoren egingo den lehen bileran, sufragio aske, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez, eta posta bidezko botoa eta botoa eskuordetua ez dira onartuta egongo.

Haren osaera eta banaketa legeria aplikagarrian aurreikusitakoa izango da, eta kopuru edo proportzio aldakor bat onartzen badu, kide kopuru handienari eta sektore edo estamentu bakoitzeko batez besteko portzentajezko ordezkari jarraituko zaie.

Nolanahi ere, ezin federazio autonomikok edo EAEF Ordezkaritzak ez du hiru kide baino gehiago izango Batzorde Eskuordetuan.

**2.** Batzorde Eskuordetuko kideak hautatzeko prozedura eta epeak EAEFren Hauteskunde Araudian aurreikusitakoak izango dira.

Agintaldia amaitzeko hamabi hilabete edo gehiago geratzen badira hutsik, hautaketa-prozesuan boto gehien jaso dituen hurrengo hautagaiari esleituko zaio eserlekua, edo, bestela, ordezkari eremuko kideen artean beste bozketa bat egingo da hurrengo Batzar Nagusian.

**3.** Batzorde Eskuordetuaren funtzionamendua, gutxienez lau hilean behin bilduko dena, EAEFren Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian aurreikusitakoa izango da, eta osagarri gisa aplikatuko da Batzar Nagusirako aurreikusitako araubidea.

4. Batzorde Eskuordetuaren bileretara ez joatea, justifikaziorik gabe, segidako hiru bileratan edo txandakako bostetan, eserlekua uzteko arrazoia izango da.

#### **42. artikulua. Eginkizunak eta eskumenak**

Batzorde Eskuordetuak honako eginkizun eta eskumen hauek izango ditu:

- a) Aurrekontua onartu aurretik txosten bat egitea. Txosten horretan, Kontrol Ekonomikoko Batzordeak edo Ordezkariek egindakoa berretsi ahal izango da.
- b) EAEFren jarduera ekonomikoari buruzko aurreiazko txosten bat egitea. Txosten hori Batzar Nagusiari bidaliko zaio, aurreko ekitaldiko kontuen likidazioarekin batera. Txosten hori Kontrol Ekonomikoko Batzordeak edo Ordezkariek egindakoaren berrespena izan daiteke.
- c) Atletismo jarduerari egindako jarraipenetik eratorritako urteko txostena egitea.
- d) Batzar Nagusiak alde aurretik onartutako lehiaketaren egutegia aldatzea.
- e) Batzar Nagusiak alde aurretik onartutako aurrekontua aldatzea.
- f) EAEFren araudiak onartzea edota aldatzea.
- g) EAEFren Arrisku Plana onartzea.
- h) EAEFren ondasun higiezinaren karga edo besterentzea onartzea, eragiketaren zenbatekoa aurrekontuaren ehuneko 10 baino txikiagoa denean, hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen legerian nahitaezkoak izan daitezkeen gainerako baldintzak betetzea. Akordio horrek, gutxienez, bertaratutako botoen 2/3ren gehiengoa beharko du.
- i) Funtzionamendu ona zaintzea eta organo betearazlearen independentzia bermatzea.
- j) Batzar Nagusiak berriaz eskuordetu edo agindu diezaioketen beste edozein gai, betiere legez egingarria denean.
- k) Legez, estatutuz edo erregelamenduz esleitura dituen gainerako eginkizun eta eskumen guztiak.

d), e) eta f) idatz-zatiei dagozkien eskumenak gauzatzeko ekimena EAEFren presidenteari edo Batzorde Eskuordetuko kideen bi hereni baino ez dagokio.

### **LAUGARREN ATALA: EAEF-REN PRESIDENTETZA**

#### **43. artikulua. Eraketa**

##### **1. Kontzeptua**

EAEFren Presidentetza da organo betearazle goren eta nagusia, eta Federazioaren ordezkarietza gauzatzen du nazio zein nazioarte mailan, edozein motako instituzio eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean, kirol arlokoak, gobernuak edo edozein motatakoak izan.

##### **2. Hautatua izateko eta agintzeko betekizunak**

EAEFren presidentea Batzar Nagusiak hautatuko du lau urterako, eta legez, estatutuz eta erregelamenduz aurreikusitako hautagarritasun-baldintzak bete beharko ditu, Estatutu hauetako hauteskunde-prozesuei buruzko tituluan eta Hauteskunde Araudian xedatutakoari jarraituz.

EAEFren presidente kargua betetzen duen pertsonak ezingo du zuzendaritza-kargurik bete Estatuko kirol-erakundeetan, horien helburuen artean atletismo kirola egitea badago, eta ezingo da ere zuzendaritzako kide izan Espainiako edo autonomia erkidegoko beste edozein kirol-federaziotan.

EAEFren presidentek ondoz ondoko hiru agintaldi bete ahalko ditu, gehienez.

##### **3. Lotura eta ordainsariak**

EAEFren presidente kargua betetzen duen pertsona goi-zuzendaritzako lan-harreman berezi baten bidez lotuta geratuko da EAEFrekin, eta bere kargua betetzearen ondorioz zuzenean bere gain hartu behar dituen gastuak konpentsatzeko eskubidea izango du.

Ordainsaria EAEFren webgunean argitaratuko da, eta Batzar Nagusiak urtero onartu edo berretsiko du.

Ordainsari hori agintaldiarekin amaituko da, ezin izango da luzatu agintaldiaz geroztik, eta ezingo da ordaindu Federazioak jasotzen dituen diru-laguntza publikoen kargura.

#### **4. Ordezkapenak**

Presidentea kanpoan bada edo aldi baterako ezinduta bada edo kargua uzten badu, lehen presidenteordeak hartuko ditu bere eginkizunak, eta, halakorik ezean, gainerako presidenteordeek, presidenteak horretarako ezarritako hurrenkeran. Hurrenkera hori zehaztu gabe badago, ondorengotza zaharrenetik txikienera egingo da presidenteordeen artean, eta, ondoren, Zuzendaritza Kontseiluko kideen artean.

#### **5. Kargua uztea**

EAEFren Presidentetza betetzen duen pertsonak bere karguari utziko dio arrazoi hauengatik:

- a) Hautatua izan zeneko agintaldia amaitzeagatik.
- b) Legez aitortutako heriotzagatik edo ezintasunagatik.
- c) Dimisioa emateagatik edo uko egiteagatik, berak hala eskatuta.
- d) Batzar Nagusiak zentsura-mozioa onartuta.
- e) Kargua betetzeko ezarritako bateraezintasunen batean egoteagatik.
- f) Kudeaketa Batzordeko presidentea izanik bere hautagaitza aurkezten duenean.
- g) Delituagatik kondenatua izan bada, eta epai irmoa badago.
- h) Boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo osoz hartutako Batzar Nagusiaren berrespena ez gainditzeagatik, auzipetzea edota zigor penala irmoa ez denean. Berrespen horretarako deialdia lehen presidenteordeak egin beharko du, eta gehienez ere hilabeteko epean egin beharko da, horren berri izan denetik zenbatzen hasita. Modu osagarrian jarraituko dira zentsura-mozioaren izapideak, behar bezala egokituak (eskatzaileen ehunekoa, ordezko hautagaiaren aurkezpena eta abar izan ezik).
- i) Estatutu hauetan edo aplikatu beharreko legerian zehaztutako gainerako arrazoiengatik.

#### **44. artikulua. Eginkizunak eta erantzukizunak**

**1.** EAEFren Presidentetza betetzen duen pertsonak honako eginkizun eta eskurantzak hauek izango ditu, zeinak legez eta estatutuz ezarritako mugen barruan eskuordetu ahal izango baititu:

- a) EAEFren legezko ordezkari gorena izatea Federazioa osatzen dutenen aurrean, eta era guztietako agintari, erakunde publiko eta pribatuen, epaitegi eta auzitegien, entitateen, korporazioen, partikularren, nazionalen edo nazioartekoen aurrean.
- b) Batzar Nagusiaren, Batzorde Eskuordetuaren, Zuzendaritza Kontseiluaren eta Batzorde Betearazlearen buru izatea, bai eta kide diren gainerako organo eta komisio guztien buru ere (bestelako xedapen espezifikorik ezean). Erabakiak hartzerakoan berdinketa gertatuz gero, kalitateko botoa izango du; ildo horretan, behar bezala antolatzen direla, eraginkortasunez funtzionatzen dutela, beren eskumenen barruan jarduten dutela eta beren betebeharrak eta erantzukizunak betetzen dituztela zainduko du.
- c) EAEFren batzorde eta lantalde guztietako berezko kidea izatea, horietan hitza eta botoa izanik; bileretara joan ahal izango da (kasu horretan, horko mahaiburua izango da, baina horretarako izendatutako pertsonaren esku utzi ahal izango du), eta Zuzendaritza Kontseiluaren bileren arteko aldietan horren jarduerak ikuskatuko ditu, eraginkortasunez

funtzionatzen dutela, bere eskumenen barruan jarduten dutela eta bere betebeharrak eta erantzukizunak betetzen dituztela bermatuz.

- d) Administrazio publikoekin, federazio autonomikoekin, nazioarteko federazioekin, federazio-elkarteekin, babesleekin eta beste alderdi interesdun batzuekin lotura izatea eta komunikazio eta harreman arin eta eraginkorrak izaten laguntzea.
- e) Federazioko organoen jarduna sustatzea eta koordinatzea.
- f) EAEFren bozeramaile nagusia izatea, Zuzendaritza Kontseiluak erabakitako politiken arabera, hargatik eragotzi gabe eskuordetzea.
- g) Transakzioak eta ordainketak baimentzea, bakarka edo batera, Estatuetan edo araudietan ezarritako zenbatekoaren arabera.
- h) Zuzendaritza Kontseiluaren edo Batzorde Betearazlearen izenean dokumentuak sinatzea.
- i) Federazioko organoek beren jarduna indarreko legerian, Estatu hauetan eta horiek garatzen dituzten erregelamenduetan xedatutakora egokitzen dutela zaintzea.
- j) Abokatuei, prokuradorei edo beste edozein mandatariri ahal bereziak edo orokorrak ematea, EAEFren legezko ordezkariak izan dezaten, bai epaiketetan, bai epaiketatik kanpo.
- k) Zuzendaritza Kontseilua osatzen duten pertsonak izendatu eta kargutik kentzea, bai eta Zuzendaritza Betearazlea, arloko zuzendaritzak eta, oro har, EAEFren batzordeak eta komisiok ere, alde aurretik egindako hauteskunde-prozesu baten ondorioz izendatu ez diren organoek osatzen dituztenak baino xedapen berariazkoak egon ezean.
- l) Zuzendaritza Betearazlearekin koordinatuta laguntzea, gainbegiratzea eta lan egitea, lan-harreman sendoa eta lankidetzakoa ezarri, eta harreman erregularrak izanez.
- m) Batzorde Eskuordetuari proposatzea kirol-egutegia aldatzea, aurrekontuak aldatzea eta erregelamenduak onartu eta aldatzea.
- n) Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Kontseiluak Presidentetzari eskuordetzen dizkieten eginkizunak betetzea.
- o) Hauteskundeetarako deialdia egitea, agintaldia amaitzen denean.
- p) EAEFren organo, batzorde eta komisiotako presidente edota kide gisa legez, estatutu edota erregelamenduz ezarritako beste eginkizun eta eskumen guztiak.
- q) EAEFren dagozkion eskumenak izanik organo eskudunari berariaz esleitu ez zaizkion beste guztiak, hargatik eragotzi gabe horiek eskuordetu ahal izatea.

**2.** Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzita, EAEFren presidente kargua betetzen duen pertsonak eginbehar eta betebeharrak nagusi hauek izango ditu:

- a) Kargua behar bezalako arduraz betetzea, eta une oro karguarekin bat datorren jokabidea izatea.
- b) Indarrean dagoen legeria betetzea eta betearaztea, bai eta EAEFren Estatuak, erregelamenduak eta araudiak ere, eta World Athleticsenak eta aplikagarriak izan daitezkeen beste erakunde batzuenak.
- c) EAEFren organoek eta batzordeek hartutako akordioak eta erabakiak betetzen eta aplikatzen direla zaintzea, bereziki Batzar Nagusiak, Batzorde Eskuordetuak, Zuzendaritza Kontseiluak eta Batzorde Eragileak hartutakoak.
- d) Hautagarritasun- eta bateragarritasun-baldintzei eustea, eta Estatu hauetan, erregelamenduetan eta EAEFren araudietan EAEFren organoetako kideentzat ezarritako eginbeharrak eta betebeharrak betetzea.

## **II. KAPITULUA: ORGANO OSAGARRIAK**

### **45. artikulua. Organo osagarriak**

**1.** Organo osagarriak dira gobernu- edota ordezkari-eginkizunak, zuzenekoak nahiz eskuordetuak, kudeatzen edota laguntzen dituztenak, baldin eta organo horietako kideak ez badira nahitaez aurretiazko hautapen-prozesu batetik etorriak.

**2.** EAEFren derrigorrezko organo osagarriak dira hauek:

- a) Presidenteordetzak
- b) Zuzendaritza Kontseilua



- c) Batzorde Betearazlea
- d) Erkidegoetako Atletismoko Kirol-federazio Integratuen Batzarra

**3.** EAEFren hautazko organo osagarriak dira hauek:

- a) Gobernu Batzordea
- b) Zuzendaritza Betearazlea

**4.** Estatutu hauetan jasotako oinarrizko erregulazioari eta beharrezko zuzenbidearen zuzeneko aplikagarritasunari kalterik egin gabe, EAEFren organo osagarrien erregulazioa horretarako onartzen den Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian egingo da, lege ezarritako baldintzak eta betebeharrak errespetatuz.

## **LEHEN ATALA: PRESIDENTEORDETZAK**

### **46. artikulua. Presidenteordetzak**

**1.** EAEFk lau presidenteorde izango ditu (parekidetasun arauarekin bat etorritik), eta horien agintaldia Batzar Nagusiaren lau urteko aldi berekoa izango da. EAEFren presidenteak izendatu ditu eta kargutik kenduko ditu, Batzar Nagusiari horren berri emanez. Hala ere, presidenteak uko egin ahal izango dio guztien edo horien zati baten izendapen zuzenari, hauteskunde-erregelamenduan edo, halakorik ezean, Batzorde Eskuordetuak erabakitako hautapenezko prozedura batera joz.

Presidenteordeek EAEFren organoetako kide diren pertsonentzat erregelamenduz ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete beharko dituzte. Ezin izango da presidenteorde bat baino gehiago egon federazio autonomiko integratu bakoitzeko.

**2.** Presidenteordeetako bat EAEFren presidenteak izendatuko du, eta lehen presidenteorde izango da. Presidenteorde horrek ordezkatuko du EAEFren edo bera buru den organoetako presidentea, aldi baterako absentziagatik edo ezintasunagatik. Biak falta badira, ondorengotzaririzpidea adinik handiena duena izango da.

**3.** Aurreko atalean azaldutako eginkizunaz gain, presidenteordeek eginkizun hauek izango dituzte:

- a) Presidentearekin EAEF zuzentzen kolaboratu.
- b) Zuzendaritza Kontseiluko kide izan.
- c) Batzorde Betearazleko kide izan.
- d) Integritate Atalaren Zuzendaritza Kontseilurako izendatuak izan, hala badagokio.

## **BIGARREN ATALA: ZUZENDARITZA KONTSEILUA**

### **47. artikulua. Eraketa**

**1.** EAEFren Zuzendaritza Kontseilua da Federazioaren kudeaketarako kide anitzeko organo bat, eta bere eginkizun nagusia Federazioaren eskumen-esparruan atletismoaren kirola gidatzea izango da.

**2.** Hauek eratzen dute Zuzendaritza Kontseilua:

- a) EAEFren presidente kargua betetzen duen pertsona, zeina horren buru izango baita eta kalitateko botoa izango baitu.
- b) EAEFren lau presidenteordeak; lehen presidenteordeak presidentea ordezkatuko du, behar izanez gero.

- c) Hala badagokio, World Athleticsen edota European Athleticsen Kontseiluan EAEFren ordezkari dena.
- d) Beren eginkizuna behar bezala betetzeko beharrezkotzat jotzen diren bokalak, gehienez ere hamabost. Bokal horiek EAEFren presidenteak izendatu eta errebokatuko ditu, eta Batzar Nagusiari jakinaraziko dio, bai zuzenean, bai ahal horri uko eginez, Hauteskunde Araudian zehaztuko den hautapen-prozedura baten bidez, edo, halakorik ezean, Batzorde Eskuordetuak erabakitako hautaketa-prozedura baten bidez. Prozesu hori guztiei buruzkoa edo horietako batzuei buruzkoa izan daiteke.

Kideak, gehienez, ondoz ondoko hiru agintalditarako aukeratu ahal izango dira (presidentearen kasuan, kide izatetik eratoritzen ez den kide izaera –aurrekoa edo ondorengoa– ez da kontuan hartuko ondorio horietarako). Osaera martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako osaera orekatuaren irizpidea beteko da, behar bezala arrazoitutako arrazoi oinarridun eta objektiboak direnean izan ezik.

Zuzendaritza Betezarazleko buruak ere parte hartuko du Zuzendaritza Batzordearen bileretan, hitzarekin baina botorik gabe, eta presidenteak gonbidatzen edo baimentzen dituen pertsonak ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta interesgarria bada aztergaien zerrendako puntu guztietan edo batzuetan jorratu beharreko gaiaren arabera.

**3.** EAEFren Zuzendaritza Kontseiluko kide izateak bateraezintasuna ekarriko du Espainiako beste kirol-federazio batean zuzendaritza-karguak betetzeko, eta presidentea izan ezik, ezin izango da ordaindu, hargatik eragotzi gabe bere izaeratik eratorritako bilera edo jardueretara joateagatik sortutako gastuengatik konpentsatua izateko eskubidea, Batzar Nagusiak erabakitzen dituen zenbatekoetan, funtzio publikorako ezarritakoak erreferentziatzat hartuta. Urteko memoria ekonomikoan Zuzendaritza Kontseiluko kideei ordaindutako diruzko edo gauzazko ekarpenak jasoko dira.

EAEFren Zuzendaritza Kontseiluko kideek atletismoaren interes orokorrera bideratuko dute beren zeregina, bereziki Espainiako atletismoa Estatuan eta nazioartean, eta EAEFren organoetako kideentzat araz ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete beharko dituzte.

#### **48. artikulua. Barne-funtzionamendua eta bilerak**

**1.** Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendua, Estatutu hauetan ezarritako irizpideetatik abiatuta, EAEFren Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian arautuko da, eta, era berean, bere kideek onartutako barne-funtzionamenduko erregelamendu baten bidez garatu ahal izango da.

Erregelamendu horrek, gutxienez, alderdi hauek zehaztuko ditu:

- a) Kargua utziz gero kideak ordezkatzeko prozedura.
- b) Kide bat aldi baterako kargutik kentzeko arrazoiak eta prozedura, honako hauek barne: arau-hauste oso larriengatik diziplina-espeditentza, bateraezintasun edo hautaezintasun kasuan egoteko arrazoizko zantzuak, eta prozedura judizialen –bereziki, penalen– xede izatea, haren arrazoia eta baldintza kontuan hartuta.
- c) Kide bat kargutik kentzeko arrazoiak eta prozedura; besteak beste, betebeharrak ez betetzea, diziplina-zehapen oso larria jasotzea, edo bateraezintasun- edo hautaezintasun-kausa dagoela egiaztatzea.
- d) Kargugabetzeak dakartzan ondorio osagarriak; besteak beste, Integritate Ataleko Batzorde Betezarazleko edo Zuzendaritza Batzordeko kide izateari uztea.

**2.** Zuzendaritza Batzordea hiru hilean behin bilduko da, gutxienez, presidenteak deialdia egin ondoren. Presidentearen ekimenez edo Batzorde Betezarazleak eskatuta ere bildu ahal izango da, beharrezkotzat jotzen denean. Edonola ere, deialdia gutxienez zazpi egun natural lehenago jakinarazi beharko zaie kideei, eta premiazko gaien kasuan, gutxienez hogeita lau ordura murriztu ahal izango da.

Zuzendaritza Kontseiluaren bilerak presentzialak, telematikoak edo mistoak izan daitezke, eta Batzar Nagusirako aurreikusitako araudia aplikatuko da osagarri gisa. Hala ere, urtean bilera bat, gutxienez, aurrez aurrekoa izango da, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Zuzendaritza Kontseilua behar bezala eratzeko, lehenengo deialdian kideen gehiengoa aurkeztu beharko da, eta bigarrenean, berriz, kideen heren bat, gutxienez. Bertaratutakoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak, eta botoa ezingo da eskuordetu, gehiengo indartua duten gaietan izan ezik. Bozketa publikoa izango da, isilpeko bozketa eskatzen denean izan ezik.

Bileren ondoren akta egingo da.

#### **49. artikulua. Eskumenak**

Zuzendaritza Kontseiluaren eskumenak dira hauek:

- a) Presidentetzarekin lankidetzan aritzea EAEFren ekonomia-, administrazio- eta kirol-zuzendaritzan eta sozietate-organoen erabakiak gauzatzen, hark ezartzen duen moduan.
- b) Batzar Nagusiaren eta haren Batzorde Eskuordetuaren oinarri izango diren ponentziak eta dokumentuak prestatzea, Batzordeak dagozkion eginkizunak bete ditzan, eta, era berean, agintzen zaizkion batzorde eta komisierei dagokienez.
- c) EAEFren aurrekontu-proiektua egitea, Batzar Nagusiari aurkezteko, eta urteko kontuak eta jardueren memoria egitea.
- d) Ohoreak, goraiamenak eta sariak ematea, edo horretarako eskumena duten organoei proposatzea, dagozkion erregelamenduan garatzen diren baldintzetan.
- e) Hauteskunde-deialdia egitea, presidentea aldeztatik kargutik kendu denean. Aurreratuz gero, Kudeaketa Batzordea eratuko da, eta agintaldia amaituz gero, Kudeaketa Batzordeko kideak izendatuko dira, aplikatu beharreko hauteskunde-araubidearekin bat etorritik.
- f) Estatutuaren aurreikusitako beste guztiak, edo erregelamendu bidez ezarritakoak, Estatutuaren beste organo bati esleitutakoak urratzen ez badituzte.
- g) Espainiako Atletismorako Helburu Estrategikoak Garatzeko Plana garatzea, Batzar Nagusiak onar dezan.
- h) EAEFren Plan Estrategikoa onartzea eta berrikustea, Batzorde Betearazleak eskatuta, eta Plan horrekin lotuta egindako aurrerapenak aldizka ikuskatzea.
- i) Araudiak, arau erregulatzailerak, politikak eta prozedurak onartu, aldatu eta indargabetzea, bai eta EAEFren jokabide-kodeak ere, berariaz beste organo bati esleituta direnean izan ezik.
- j) Urteko Txostena egitea edo baliozkotzea, bai eta indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen eta Batzarrak onartu behar dituen gainerako txostenak ere.
- k) Estatutuak eta araudiak aldatzeko zuzenketak eta proposamenak proposatzea, eta Batzarrari eta Batzorde Eskuordetuari gomendioak ematea hirugarrenek egin ditzaketenei buruz.
- l) Estatu mailako lehiaketa ofizialen urteko egutegia eta lehiaketen egitura egitea eta aldian behin berrikustea, Batzar Nagusiak onar ditzan.
- m) Txapelketa nazionalen egoitzak aukeratzea eta izendatzea.
- n) Estatu lurrean egiten diren autonomiaz gaindiko, nazioko eta nazioarteko lehiaketa ofizialeterako epaileak izendatzeko eta prestatzeko politikak eta prozedurak onartu eta aldatzea.
- o) Espainiako errekorrak baliozkotzea eta berrestea.
- p) Egokitze jotzen dituen batzordeak eta lantaldeak sortzea eta desegitea.
- q) Batzar Nagusiari eta Batzorde Eskuordetuari proposatzea edo gomendatzea Batzorde horrek izendatu behar dituen batzorde eta komisiotako kideen izendapena.
- r) Integritate Ataleko kide bat aukeratzea Zuzendaritza Batzordeko kide izateko.

- s) EAEFren etorkizuneko helburuetarako egokitzat jotzen dituen eta EAEFk interesak dituen erakunde eta entitateen jarduna ezartzea eta gainbegiratzea, Batzorde Betearazleak eskatuta.
- t) Nazioarteko federazioetako edo elkarteetako gobernu-organoetako eta batzordeetako kargu edo posizio hautatuetarako hautagaitzak onartzea.
- u) Estatutu hauek eta EAEFren araudiak interpretatzea, behar diren txostenak egin ondoren, beharrezkoa denean edo berariaz eskatzen zaionean.
- v) Estatutu hauetan, erregelamenduetan eta EAEFren araudietan ezarritako gainerako guztiak.

Aurreko eskumen horiek berariaz eskuordetu ahal izango zaizkie presidenteari, presidenteordeei, zehaztutako kideei, Zuzendaritza Kontseiluko kideei eta Batzorde Betearazleari, zehazten diren irismen, iraupen eta edukiekin.

## **HIRUGARREN ATALA: BATZORDE BETEARAZLEA**

### **50. artikulua. Batzorde Betearazlea**

**1.** EAEFren Batzorde Betearazlea da Federazioa kudeatzeko kide anitzeko organoa, eta bere eginkizun nagusia presidentearekin eta Zuzendaritza Kontseiluarekin haren eginkizunak betetzen lankidetzan aritzea da. Hori guztia, jarduerak deskontzentratzeko eta beste jarduera batzuk azkarrago hartzeko izaera propioz bere gain harturik dituen eginkizunen kalterik gabe.

**2.** Batzorde Betearazlea hauek osatuko dute:

- A) Berezko kide edo kide iraunkor gisa, haien agintaldia beren karguen iraupenekoa izango denean:
  - a) EAEFren presidentea, Batzordearen buru izango da eta kalitateko botoa izango du.
  - b) Lau presidenteordeak. Lehen presidenteordeak hartuko du presidentetza titularra falta denean edo beharrezkoa denean.
  - c) EAEFren Zuzendaritza Betearazlearen burua.
- B) Kide ez-iraunkor gisa, Batzar Orokorraren agintaldiarekin bat etorritik:
  - a) Bi pertsona (parekidetasun-araua errespetatuz), presidenteak izendatuak, Batzorde Betearazleak proposatuta, ahal dela Zuzendaritza Kontseiluko kideen artean.

Batzorde Betearazlearen bileretara EAEFren arlo funtzionaltako zuzendariak deitu ahal izango dira; kasu horretan, hitza izango dute, baina botorik ez.

### **51. artikulua. Barne-funtzionamendua eta bilerak**

Batzorde Betearazlearen funtzionamendua, Estatutu hauetan ezarritako irizpideetatik abiatuta, EAEFren Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian arautuko da, eta, era berean, bere kideek onartutako barne-funtzionamenduko erregelamendu baten bidez garatu ahal izango da.

Batzorde Betearazlea balio osoz eratzeko behar den quoruma lau kidekoa da. Erabakiak gehiengoz hartuko ditu, eta gutxienez hilean behin bilduko da, presidenteak edo hiru kidek proposatuta.

Ordezko gisa, Zuzendaritza Kontseilurako xedatutakoaren arabera arautuko da, behar diren egokitzapenak eginda.

### **52. artikulua. Eskumenak**

Batzorde Betearazlearen eskumenak dira hauek:

- a) Plan Estrategikoa egitea, Zuzendaritza Kontseiluak onar dezan, eta haren osotasuna egiaztatzea.
- b) Urteko aurrekontuaren proiektua onartzea, bai eta behar diren aurrekontu-aldaketen proposamenak ere, Batzar Nagusiak eta Batzorde Eskuordetuak onar ditzaten, hurrenez hurren, eta horiek betetzen direla egiaztatzea.
- c) Espainiako Atletismorako Helburu Estrategikoak Garatzeko Plana diseinatzea eta gainbegiratzea.
- d) Lau urteko planak, urteko planak eta plan partzialak betetzen direla gainbegiratzea, esleitutako urteko aurrekontua barne.
- e) Zuzendaritza Betearazlea duen pertsonaren jarduna egiaztatzea, eta, behar izanez gero, egoerari buruzko txosten bat bidaltzea Zuzendaritza Kontseiluari.
- f) Zuzendaritza Kontseiluari gomendioak eta proposamenak egitea.
- g) Zuzendaritza Kontseiluari lizentzien kuoten zenbatekoak proposatzea, ondoren Batzorde Eskuordetuak eta Batzar Nagusiak onar ditzan.
- h) EAEFrentzat eta Espainiako atletismoarentzat egon daitezkeen arriskuak eta aukerak identifikatzea eta kudeatzea.
- i) Zuzendaritza Kontseiluari araudiak onartu edo alda ditzala proposatzea.
- j) Taldeak, lantaldeak edo bestelako figurak sortzea, eskuordetzan emandako agintaritzapean beren egitekoak garatzeko, eta, gutxienez, finantza-kontrolaren, ikuskaritzaren eta arriskuaren, betetzearen eta gobernantzaren arloetan egon beharko dute.
- k) Hala badagokio, eragiketa eta transakzio jakin batzuen baimenean esku hartzea, Estatuetan edo erregelamenduetan ezarritakoaren arabera.
- l) Nazioarteko federazioetako edo elkarteetako gobernu-organismoetako eta batzordeetako hautazko kargu edo posizioetarako hautagaitzak proposatzea Zuzendaritza Kontseiluari.
- m) Politikak eta prozedurak prestatzea eta aldatzea, bere eskumenean eta erantzukizunen esparruan.
- n) Zuzendaritza Kontseiluari proposatzea araudiak onartu edo aldatu ditzan, edo Estatutuak edota erregelamenduak onartzeko edo aldatzeko proposamenak egitea.
- o) Oro har, EAEFren jardun-eremuak gainbegiratzea (ekonomikoa, kirolekoa, egiturazkoa, etab.), eta bidezkotzat jotzen diren txostenak eta proposamenak egitea.
- p) EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak eskuordetzen dizkion beste guztiak.

Batzorde Betearazleak bere eginkizunetako batzuk beste organo batzuen esku utzi ahal izango ditu; kasu horretan, eginkizun horiek garatzeko eta betetzen direla ikuskatzeko irizpideak ezartzeaz arduratuko da, eta edozein unetan baliogabetu ahal izango ditu askatasunez.

## **LAUGARREN ATALA: EAEF OSATZEN DUTEN AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO ATLETISMOKO KIROL-FEDERAZIOEN BATZORDEA**

### **53. artikulua. Erkidegoetako Kirol-federazioen Batzordea**

1. Erkidegoetako Kirol-federazio Integratuen Batzordea eta, hala badagokio, EAEFren Ordezkaritzena, EAEFren kide anitzeko organo osagarri bat da, eta hauek eratzen dute:
  - a) EAEFren presidente kargua betetzen duen pertsona, zeina Batzordeko buru izango baita.
  - b) Erkidegoetako atletismoko kirol-federazio integratuen presidente kargua betetzen duten pertsonak edo, hala badagokio, erkidegoko federazio integraturik ez den hiri eta komunitate autonomikoetako EAEFren Ordezkaritzak, edo batzuk zein bestek beren parte-hartzea eskuordetzen duten erakunde horietako pertsonak.

Era berean, EAEFren Zuzendaritza Betearazleko burua eta arlo funtzionalen zuzendaritza duten pertsonak ere joango dira bileretara. Horrez gain, presidentek gonbidatuta, beren kargua,

ezagutzak edo esperientzia dela-eta gai jakin bati heltzeko interesgarriak izan daitezkeen pertsonak ere joan ahal izango dira bileretara, guztiek hitza dutela baina botorik ez.

Batzorde hori lau hilean behin bilduko da, gutxienez, oinarrizko izaerarekin, eta Estatuko atletismoaren egoera orokorra, Espainiako atletismoa garatzeko sektoreen arteko koordinazioa eta lantzeko egokitzat jotzen diren beste gai guztiak aztertu beharko ditu.

Haren eskumenak eta funtzionamendu-arauak erregelamendu bidez arautuko dira.

## **BOSGARREN ATALA: GOBERNU BATZORDEA**

### **54 artikulua. Gobernu Batzordea**

Gobernu Batzordea hautazko eraketa-organo bat da, eta Zuzendaritza Kontseiluaren eta Batzorde Eskuordetuaren arteko elkarketa gisa eratzten da.

Erabaki eta akordio jakin batzuk koordinatu eta azkartzeko deituko da, bereziki Batzorde Eskuordetuaren eskumenekoak diren gaitan, Zuzendaritza Kontseiluaren alde aurreko esku-hartzearekin.

Gobernu Batzordearen esparruan, organo bakoitzak bere erregulazioari eta eskumenei eusten die, eta bakoitzak bere aldetik hartzen ditu dagozkion erabakiak.

Gobernu Batzordea hiru hilean behin bilduko da, gutxienez, eta horrako deialdia EAEFren presidenteari dagokio. Bi organoetarako aurreikusitako epeak eta prozedura errespetatu beharko dira.

## **SEIGARREN ATALA: ZUZENDARITZA BETEARAZLEA**

### **55. artikulua. Zuzendaritza Betearazlea**

**1.** Zuzendaritza Betearazlea da EAEFren hautazko eraketa-organo bat, eta Federazioaren presidenteari dagokio Zuzendaritza Betearazlea aktibatzea, horren burua izendatzea eta dagokionean kargutik kentzea. Organo hori aktibatuta ez dagoenean, presidenteak berak hartuko ditu bere gain horren erantzukizunak, horien zati bat beste organo batzuen esku uzteko aukera baztertu gabe.

Izendatutako pertsonak unibertsitate-prestakuntza eta lan- edo lanbide-esperientzia izan beharko ditu arlo juridikoan, ekonomikoan, komertzialean edota sozietatearen edo elkartearen kudeaketan eta zuzendaritzan.

**2.** Zuzendaritza Betearazlean aritzen den pertsonaren lan-lotura mota eta haren baldintza bereziak Batzorde Betearazleak erabakiko ditu, eta dedikazio eskusiboa eskatu ahal izango zaio.

**3.** Zuzendaritza Betearazlean aritzen den pertsonak ezin izango du inolako loturarik izan Espainiako edo autonomia erkidegoetako beste kirol-federazio batekin, ez eta helburu soziala atletismoa egitea edo atletismoko kirol-lehiaketak antolatzea duten kirol-erakundeekin ere. Erregelamendu bidez EAEFren organoetako kideentzat ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete beharko ditu, eta ezingo du parte hartu Batzar Nagusian, Zuzendaritza Kontseiluan eta Kontrol Ekonomikoko Batzordean.

### **56. artikulua. Eskumenak**

**1.** Zuzendaritza Betearazleari dagokio EAEFren eragiketak kudeatzea (Atletismoaren Integritate Atalarenak izan ezik, Integritate Ataleko presidentek kudeatzen baitu zuzenean), presidentek eta Batzorde Betearazleak ezar ditzaketen jarraibide eta mugekin bat etorri. Indarrean dagoen legeria eta araudia bete beharko du uneoro, eta EAEFren politika eta prozeduretara egokitu beharko du.

**2.** Aurrekoaren kalterik gabe, Zuzendaritza Betearazleak eginkizun eta erantzukizun hauek izango ditu:

- a) EAEFren eguneroko eragiketak eta jarduerak zuzentzea, bulegoaren kudeaketa eta EAEFren langileen zuzendaritza barne (Atletismoaren Integritate Atala izan ezik).
- b) EAEFren Plan Estrategikoa garatzea Batzorde Betearazlearekin koordinatuta, Zuzendaritza Kontseiluak onar dezan, eta ezartzea.
- c) Urteko jarduera-plan bat garatzea, Batzorde Betearazleak onar dezan, eta plan hori ezartzea.
- d) EAEFren diru-sarrera komertzialak mantentzea eta handitzea, Plan Estrategikoan ezarritako helburuak betetzeko, eta Espainiako atletismoaren hazkundera eta garapena bultzatzeko.
- e) Presidenteari laguntzea Plan Estrategikoa eta Espainiako atletismoa garatzeko planak betetzeko beharrezkoak diren jardueretan, honako hauek barne hartuta: autonomia-erkidegoetako atletismoko federazioekin, atletismoko komunitate estamentuekin, babesleekin, administrazio-agintaritzekin (bereziki, kirol-agintariekin) eta beste alderdi interesdun batzuekin kontaktuak eta harremanak izatea.
- f) Aplikatzekoa den legeria eta araudia betetzen dela bermatzea, bereziki Estatutu hauek, erregelamenduak eta EAEFren araudiak.
- g) Zuzendaritza Kontseiluari bidali beharreko urteko txostenak egitea Batzorde Betearazlearekin koordinatuta, hark onar ditzan edo izapidetu ditzan.
- h) Batzar Nagusiaren, Batzorde Eskuordetuaren, Zuzendaritza Kontseiluaren eta Batzorde Betearazlearen bileretako aktak egitea edo egiten direla bermatzea.
- i) Bere eginkizunak aurrekontu-mugen eta gobernantzaren, gobernu onaren eta gardentasunaren arauen esparruan garatzea, erregelamenduz edo arauz ezarritako edo Batzorde Betearazleak erabakitako eskumenak edo mugak gainditu gabe.
- j) Batzar Orokorraren, Batzorde Eskuordetuaren, Zuzendaritza Kontseiluaren eta Batzorde Betearazlearen bileretara joatea, hitzarekin baina boto-eskubiderik gabe, berariaz bestelakorik adierazi ezean.
- k) Legez edo EAEFren Estatutu, erregelamendu eta araudietan esleitzen zaizkion gainerakoak.
- l) Presidentek, Batzar Orokorrak, Batzorde Eskuordetuak, Zuzendaritza Kontseiluak edo Batzorde Betearazleak eskuordetu diezazkioketenak.

### **III. KAPITULUA: DIZIPLINA-ORGANOAK**

#### **57. artikulua. Diziiplina organoak**

**1.** Diziiplina-organoak dira zehapen- edo diziiplina-espeditenteak izapidetzeko, behin-behineko edo kautelazko neurriak hartzeko eta EAEFren kide eta partaideei zehapenak ezartzeko (neurri horien izaera edozein dela ere) eginkizuna dutenak.

Artikulu honetan aurreikusitako diziiplina-organoen eskumena kirol-arloko diziplinazko arau-hausteetara nahiz gizarteko diziplinazko arau-hausteetara hedatzen da.

**2.** Hauek izango dira EAEFren diziiplina-organoak, eratzen duten kideek Zuzenbideko tituludunak izan beharko direlarik:

- a) Lehen auzialdian, epaile bakar bat edo diziiplina-batzorde bat, zeinak eskumena izango baitu abiarazten diren diziiplina- edo zehapen-espeditenteak izapidetzeko, kautelazko/behin-behineko neurriak hartzeko eta ebazteko, legez eta Estatutuetan ezarritako moduan. Gainera, bere gain

hartuko du diziplina, eskumen edo antolakuntzako lehiaketa-organoek hartutako ebazpenen aurka jarritako errekursoak ebaztea, izaera teknikoa dutenak izan ezik.

b) Bigarren auzialdian, Apelazio Batzorde bat, zeinak aurreko batzordeak hartutako ebazpenak berrikusteko eskumenaz gain, EAEFren beste organo batzuen erabakien aurka jartzen diren errekursoak ebatziko baititu, Estatutueta hala jasota dagoenean. Halakotzat hartuko dira honako hauengandik datozenean:

- i. Egiaztapen-taldea.
- ii. Zaintzeko eta Babesteko Aholkularitza Batzordea.
- iii. Epaille Bakarra edo Lehiaketa Batzordea.
- iv. EAEFren arloetako organo arduradunek hartutako ebazpenak.

Horrez gain, EAEFk epaile bakarrak edo berariazko diziplina-batzordeak izendatu ahal izango ditu lehiaketa jakin batzuetarako, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, eta horien eginkizuna lehiaketa horiek behar bezala garatzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren ebazpenak hartzea izango da.

**3.** Artikulu honetan aurreikusitako organoen erregulazioa EAEFren Diziplina Araudian jasoko da. Araudi horrek legez ezarritako baldintzak eta betebeharrak errespetatu beharko ditu, bai eta Estatutu hauetan ezarritako oinarritzko erregulazioa ere.

## **IV. KAPITULUA: LEHIAKETA-ORGANOAK**

### **58. artikulua. Lehiaketa-organoak**

**1.** EAEFren lehiaketa-organoak dira lehiaketa-ebazpenak hartzeko eginkizuna dutenak, eta baita diziplina izaerakoak ez diren ebazpenak ere.

**2.** Zehazki, honako hauek dira lehiaketa-organoak:

- a) Lehiaketako Apelazio Epaimahaia, lehiaketan zehar sortzen diren eta berehala, zuzenean edo epaileek eta epaile-arbitroak hartutakoak berrikusteko aplika daitekeen erabaki bat hartzea eskatzen duten gai tekniko eta erregelamenduzkoei dagokienez.
- b) EAEFren Lehiaketa Batzordea, gainerako gaiei dagokienez; bereziki, lehiaketa egin aurreko edo ondorengo alderdiak xede dituztenak.

**3.** Apelazioko Epaimahaien osaera erregelamendu bidez arautuko da.

**4.** Lehiaketa Batzordea Zuzendaritza Kontseiluak izendatutako hiru pertsonak osatuko dute, Batzorde Betezarazleak proposatuta. Haren ebazpenen aurka Apelazio Batzordearen aurrean errekurtsioa aurkeztu ahal izango da.

**5.** Artikulu honetan aurreikusitako organoen erregulazioa Gobernantza eta Barne-antolaketako Araudian jasoko da. Araudi horrek legez ezarritako baldintzak eta betebeharrak errespetatu beharko ditu, bai eta Estatutu hauetan ezarritako oinarritzko erregulazioa ere.

## **V. KAPITULUA: HAUTESKUNDE-ORGANOAK**

### **59. artikulua. Hauteskunde-organoak**

**1.** EAEFren hauteskunde-organoak dira EAEFren gobernu- eta ordezkaritza-organoetako kideak hautatzeko prozesuak eta gerora sortzen diren eserleku hutsak eta gerta litezkeen zentsuramozioak erregulatu, bultzatu eta babesteko eginkizuna dutenak.

**2.** EAEFren hauteskunde-organoak indarrean dauden Espainiako kirol-federazioen hauteskunde-



prozesuak arautzen dituen aginduan ezarritakoak izango dira, bai eta, aplikagarria den legeriarekin bat etorriz, prozesu horien kudeaketa hobetzeko edo arintzeko eratu daitezkeenak ere.

Nolanahi ere, EAEFn Hauteskunde Batzorde bat egongo da. Batzorde horren eginkizunak eta osaera aipatutako aginduan eta Estatutu hauetan jasotako oinarritzko araudian ezarritakoak izango dira.

**3.** EAEFren hauteskunde-organoen izena, eginkizunak, kideen izendapena, osaera eta araubidea horretarako onartzen den Hauteskunde Araudian ezarriko dira, beharrezko Zuzenbidea zuzenean aplikatzearen kalterik gabe, eta legez ezarritako betekizunak eta betebeharrak errespetatuz.

## **VI. KAPITULUA: GATAZKAK JUDIZIOZ KANPO KONPONTZEKO ORGANOAK**

### **60. artikulua. Gatazken Konponketa Alternatiborako Batzordea**

**1.** EAEFren Gatazken Konponketa Alternatiborako Batzordearen helburua da bi aldeentzako bide federatiboa eskaintzea EAEFren kideen eta partaideen artean sor daitezkeen desadostasunak edo eztabaidak konpontzeko, betiere izaera pribatuko eta erabilera askeko gaiak badira. Borondatezkoa izango da bi aldeentzat.

Haren eskumena beste gatazka batzuk ebaztera ere heda daiteke, erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera.

**2.** Osaera, kideen izendapena, prozedurak eta aplikatu beharreko araubidea horretarako onartzen den Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian ezarriko dira, legez ezarritako betekizunak errespetatuz.

**3.** Horiek erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak publikoak izango dira.

## **VII. KAPITULUA: ORGANO TEKNIKOAK**

### **61. artikulua. Organo teknikoak**

**1.** EAEFren organo teknikoak dira arlo espezializatu baten kudeaketaz arduratzen direnak, eta horretarako autonomia eta egitura propioa dute.

**2.** EAEFren beharrezko organo teknikoak dira honako hauek:

a) Kirol Zuzendaritza

b) Lehiaketa Batzordea

c) Epaileren Batzorde Nazionala.

**e)** Atletismoko Prestakuntza Atletikoen Zentro Nazionala (gaztelaniaz, CENFA) eta Araubide Bereziko Kirol-irakaskuntzen Zentro Baimendua (gaztelaniaz, CENAED).

**f)** Egiartzapen-taldea.

Beharrezkoa edo komenigarria bada, aurrekoei laguntzeko beste organo tekniko batzuk sortu ahal izango dira aldi baterako, berezko eskumenekin. Horiek sortu, desegin eta arautzea EAEFren Zuzendaritza Batzordeari dagokio, eta hark onartuko du horiek arautzen dituen araudia.

**3.** EAEFren organo teknikoak izendatzeko eginkizunak, osaera, prozedura eta araubidea

horretarako onartzen den Gobernantza eta Barne Antolamenduko Araudian ezarriko dira, beharrezko Zuzenbidearen zuzeneko aplikagarritasunari kalterik egin gabe, eta lege ezarritako baldintzak eta betebeharrak errespetatuz. Hala ere, Zuzendaritza Kontseiluak onartutako araudien bidez arautuko dira.

## **VIII. KAPITULUA: BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ORGANOAK**

### **62. artikulua. Barne-funtzionamenduko organoak**

**1.** EAEFren barne-funtzionamenduko organoak dira jarraian zerrendatzen direnak, bai eta Estatuuetan edo erregelamenduetan jasota egon daitezkeen eta aurreko kategorietan sartuta ez dauden guztiak ere, erregelamendu edo araudi arautzailean esleituta dituzten eginkizunak eta eskumenak betez.

**2.** Hauek dira barne-funtzionamenduko beharrezko organoak:

- a) Kluben Batzordea
- b) Atleten Batzordea
- c) Entrenatzaileen Batzordea
- d) Epaileen Batzordea
- e) Antolatzaileen Batzordea
- f) Atletismoko Masterraren Batzordea
- g) Berdintasun eta Aniztasun Batzordea
- h) Atletismo Inklusiboaren Batzordea
- i) Lehiaketa Batzordea

Zuzendaritza Kontseiluak beste batzorde osagarri batzuk sortu ahal izango ditu, presidentek proposatuta, aldi baterako eta helburu zehatzetarako, eta araudi bidez arautuko ditu.

**3.** Kideak izendatzeko funtzioak, osaera, prozedura edo eskumenak, epe luzerako helburuak eta erreferentziatzko terminoak, bai eta EAEFren barne-funtzionamenduko organoen araubidea ere, horretarako onartzen den Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian ezarriko dira, betiere lege ezarritako baldintzak eta betebeharrak errespetatuta. Hala ere, Zuzendaritza Kontseiluak onartutako araudien bidez ere arautu ahalko dira.

## **IX. KAPITULUA: KONTROL-ORGANOAK**

### **63. artikulua. Kontrol-organoak**

**1.** Kontrol-organoak dira EAEFren organoen eta bere kideen jarduna eta EAEFren kideen eta partaideen jokabidea eta EAEFrekin harremanak dituzten pertsonena ere zaintzeko edota fiskalizatzeko eginkizuna dutenak. Organo horien jarduerak legezotasunera eta eska daitekeen araudira egokitzen direla egiaztatzen dute, bai eta haien eta Federazioaren jarduerak argitu behar dituen printzipio eta irizpideetara ere.

**2.** EAEFren kontrol-organoak dira honako hauek:

- a) Aholku Batzordea eta Zaintzeko eta Babesteko Ordezkarria.
- b) Arauak Betetzeko Ordezkarria.
- c) Kontrol Ekonomikoko Batzordea edo Ordezkarria.
- d) Etika Batzordea, hautazkoa.

Espainiako Atletismoaren Integritate Atala ere kontrol-organo bat da, berariazko erregulazioan ezarritakoaren arabera.

**3.** Arauak betetzeko organoaren, Kontrol Ekonomikoko Batzordearen edo Ordez kariaren, Espainiako Atletismoaren Integritate Atalaren eta Etika Batzordearen funtzioak, kideak izendatzeko prozedura, osaera eta araubidea EAEFren Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian arautuko dira, legez ezarritako baldintzak eta betebeharrak eta Estatutu hauetako oinarritzko erregulazioa eta jarraibideak errespetatuz.

Kontrol Ekonomikoko Ordezkaritza edo Batzordea osatzen duten pertsonak ezin izango dira aldi berean Batzar Nagusikoak, Zuzendaritza Kontseilukoak edo Zuzendaritza Betezarazlekoak izan, baina eginkizun berberak bete ahal izango dituzte Espainiako beste kirol-federazio batzuetan. Osaketa orekatuaren irizpidearen arabera izango da, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraituz.

4. EAEFk bermatuko du organo horiek askatasun eta independentzia osoz bete ditzaketela beren eginkizunak.

## **LEHEN ATALA: ZAINTEKO ETA BABESTEKO ORGANOAK**

### **64. artikulua. Aholkularitza Batzordea**

**1.** EAEFren Aholkularitza Batzordea kide anitzeko organoa da, eta zaintze eta babes arloan ezarritako barne-araudia betetzen dela zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizuna du. Horretarako, ekimeneko eta kontrolako botere autonomoak ditu, eta Zaintzeko eta Babesteko Ordez kariaren laguntza.

Batzordeko kideak Batzar Nagusiak izendatuko ditu, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta.

**2.** Aholku Batzordeak eskumen hauek ditu:

- a) EAEFren zaintza- eta babes-sistema proposatu, eguneratu, kontrolatu, gainbegiratu, ebaluatu eta hobetzea.
- b) EAEFren prestakuntza, hedapena, ezagutza eta babeserako arauak betetzea sustatzea.
- c) Teknikarien, epaileen, ofizialen eta afiliatutako kirol-klub eta -erakundeen prestakuntza zehaztea.
- d) Bere eskumeneko eremuan jasotako salaketak ikertzea eta ebaztea. Horretarako, dokumentazioa edota informazioa eskatu ahal izango dio EAEFren edozein organo edo langileri, eta edozein kideri zehapena jartzeko eskatu ahal izango du eskatutako dokumentazioa edota informazioa emateari uko egiten badiu, informazioa lortzea zailtzen badu edo nahita informazio okerra ematen badu, edo zaintza- eta babes-sistema osatzen duten protokoloak, prozedurak eta politikak betetzen ez badiu.
- e) Nahitaez bete beharreko jarraibideak edo gomendioak ematea EAEFren edozein organori Integritate Atalaren bidez.
- f) Prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak egitea.
- g) EAEFren zaintza- eta babes-politikak erkidegoetako atletismoko federazioetako organo baliokideekin harremanetan egonez koordinatzea.
- h) Etika Batzordearentzat aurreikusitako eskumenak bere gain hartzea, EAEFk ez aktibatzea erabakitzen badu.
- i) Estatutuetan edo erregelamenduetan berariaz esleitutako guztiak.

**3.** Bere eginkizuna betetzeko, Integritate Ataleko adituen taldeko kideek edozein unetan lagundu ahal izango diote Aholkularitza Batzordeari. Horretarako, Integritate Ataleko presidenteari horiek izenda ditzan eskatu beharko dio.

### **65. artikulua. Zaintzeko eta Babesteko Ordez karia**

**1.** EAEFren Zaintzeko eta Babesteko Ordezkaría kide bakarrekó organoa da, eta bere egitekoa da Zaintzeko eta Babesteko Araudia bultzatzea eta ebaluatzea eta hori betetzen dela egiaztatzea, Aholkularitza Batzordearen jarraibideei jarraituz.

Kargu hori betetzen duen pertsona Batzar Nagusiak izendatuko du, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta, eta funtzionalki Aholkularitza Batzordearen eta Integritate Atalaren mende egongo da.

**2.** Zaintzeko eta Babesteko Ordezkaríak eginkizun hauek beteko ditu:

- a) Aholkularitza Batzordeari bere eginkizunak betetzen laguntzea.
- b) EAEFren zaintze- eta babes-politikak autonomia-erkidegoetako atletismoko federazioetako organo baliokideekin harremanetan egonez koordinatzea.
- c) Zaintza- eta babes-arauen edukiarekin edo horien aplikazioarekin lotuta dagoen problematika antzematea, horren berri ematea eta horiek hobetzeko edo eguneratzeko neurri egokiak sustatzea.
- d) Aholkularitza Batzordeak eskuordetzen edo agintzen dizkion beste guztiak.
- e) Estatuetan edo erregelamenduetan berriaz esleitutako beste guztiak.

Aurrekoek gain, Aholkularitza Batzordearekin lankidetzan arituko da bere eginkizunak betetzeko, ezartzen diren modu eta baldintzetan, eta aurrekoarengandik zenbait eginkizunen eskuordetza jaso ahal izango du.

## **BIGARREN ATALA: ARAUDIA BETETZEKO ORGANOA**

### **66. artikulua. Araudia Betetzeko Ordezkaría**

**1.** EAEFren Araudia Betetzeko Ordezkaría pertsona bakarrekó organoa da, eta bere egitekoa aplikatzekoa den legería eta araudía barne-mailan bete dadin bultzatzea eta ebaluatzea da. Horretarako, ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoak ditu.

Kargu hori beteko duen pertsona Batzar Nagusiak izendatuko du, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta, eta funtzionalki Gobernu Batzordearen menpe egongo da, Integritate Atalaren barruan sartzearen kalterik gabe.

**2.** Araudia Betetzeko Ordezkaríak honako eginkizun hauek beteko ditu:

- a) EAEFren araudía betetzeko sistema proposatzea, eguneratzea, kontrolatzea, gainbegiratzea, ebaluatzea eta hobetzea.
  - b) Estatuetako, erregelamenduetako, Etika eta Jokabide Kodeko, gobernantza-erregelamenduko eta arlo horretako gainerako barne-arauetako prestakuntza, zabalkundea, ezagutza eta betearazpena sustatzea.
  - c) EAEFren salaketa-kanalaren funtzionamendu eta kudeaketa egokia ziurtatzea, eta Aholkularitza Batzordeari bere eskumenekoak direnak bidaltzea.
  - d) Datuak Babesteko Ordezkaríari eta, hala badagokio, Informazioaren Segurtasuneko Arduradunari laguntza ematea, haien jarduera independente eta eraginkorra sustatuz.
  - e) Esleitzen zaizkion barne-kontrolako prozesuen monitorizazioa eta jarraipena egitea, Kontrol Ekonomikoko Batzordearen edo Ordezkaríaren eskumenak errespetatuz. Horretarako:
    - Dokumentazioa edota informazioa eskatuko dio EAEFren edozein organo edo langileri.
    - EAEFren organoen bileretara joango da, hitzarekin baina botorik gabe.
    - Eskatzen den dokumentazioa edota informazioa emateari uko egiten dion, informazio lortzea edo ematea nahita zailtzen duen edo arauak betetzeko sistema osatzen duten protokoloak, prozedurak eta politikak betetzen ez dituen edozein kide zigortzea eskatuko du.
    - Nahitaez bete beharreko jarraibideak edo gomendioak emango dizkio Batzorde Eskuordetuaren bidez EAEFren edozein organori edo Batzorde Eskuordetuari berari.
- a) Prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak egitea.

- b) EAEFren araudia betetzeko politikak erkidegoetako atletismoko federazioetako organo baliokideekin harremanetan egonez koordinatzea.
- c) Estatutuetan edo erregelamenduetan berariaz esleitutako beste guztiak.

Aurrekoetz gain, Aholkularitza Batzordearekin lankidetzan arituko da bere eginkizunak betetzeko, ezartzen diren modu eta baldintzetan, eta aurrekoarengandik zenbait eginkizunen eskuordetza jaso ahal izango du.

## **HIRUGARREN ATALA: KONTROL EKONOMIKOAREN ORGANOAK**

### **67. artikulua. Kontrol Ekonomikoaren Batzordea edo Ordezkarria**

**1.** EAEFren Kontrol Ekonomikoko Batzordea Federazioaren eta, hala badagokio, berak antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol-erakundeen ikuskapen ekonomikoaz arduratzen den kide anitzeko organoa da.

**2.** Gehienez ere bost pertsona independente eta inpartzialek osatuko dute, Batzar Nagusiak izendatuta Zuzendaritza Kontseiluaren proposamenez, prestakuntza eta esperientzia egiaztatua duten profesionalen artean, ekonomia-, finantza- eta auditoretza-arlokoak. Lau urterako izendatuko dira, esanbidez edo isilbidez luzatu ahalko delarik.

Aplikatzekoa den kirol-legediak ez badu behartzen EAEFn Kontrol Ekonomikoko Batzordea eratzera, organo hori sortzea aukerakoa izango da. Batzordea ez eratzera erabakitzen bada, kide bakarreko organo batek hartu ahal izango ditu bere eginkizunak. Organo horrek Kontrol Ekonomikoko Ordezkarria izena izango du, eta Kontrol Ekonomikoko Batzorderako aurreikusitako arauen arabera arautuko da.

**3.** Kontrol Ekonomikoaren Batzordearen edo Ordezkariaren oinarrizko eginkizunak dira hauek:

- a) EAEFren barneko kontrol ekonomikorako sistema proposatzea. Aldez aurretik esku hartzeko sistemak edo ondorengo finantza-kontrola izan daitezke.
- b) EAEFren funtzionamendu ekonomikoa egiaztatzea.
- c) Kirol Kontseilu Gorenari irregulartasun ekonomikoen berri ematea, ofizios edo hirugarrenen salaketaren bidez hautemandakoak, haren eskakizunei jaramonik ez egitea, informazio nahikorik ez izatea edo Federazioaren kudeaketa ekonomiko ona zailtzen duen beste edozein inguruabar.
- d) Kirol Kontseilu Gorenari, urteko kontuak onartu eta hiru hilabeteko epean, ekitaldi horretako EAEFren kudeaketa ekonomikoari buruzko txosten bat bidaltzea. Txosten hori Federazioaren webgunean argitaratuko da.
- e) Estatutuetan edo erregelamenduetan ezarritako beste batzuk.

## **LAUGARREN ATALA: ETIKA-ORGANOAK**

### **68. artikulua. Etika Batzordea**

**1.** EAEFren Etika Batzordea hautazko organo bat da, eta Batzar Nagusiaren erabakiz eratuz gero, Federazioak onar dezakeen Etika eta Jokabide Kodea betetzen dela egiaztatu eta sustatuko du.

**2.** Batzar Nagusiak izendatuko ditu hiru pertsona independente eta inpartzialek osatuko dute, Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta, ospe handiko pertsonen artean. Pertsona horiek lau urteko agintaldirako izendatuko dira, eta agintaldia berariaz edo isilbidez luza daiteke.

**3.** Eratuta ez dagoenean, Aholkularitza Batzordeak hartuko ditu bere gain haren eginkizunak.

## **X. KAPITULUA: INTEGRITATE ATALA**

### **69. artikulua. Kontsiderazio orokorrak**

**1.** EAEFren Integritate Atalean funtzionalki taldekatuta daude Federazioaren barne-funtzionamendua, araudia betetzea eta gobernantza normaltasunez garatzen direla zaindu behar duten organoak, bere autonomia eta funtzionamendua errespetatuz.

**2.** Horren buruan Zuzendaritza Kontseiluko kideek izendatutako kide bat egongo da, eta bere eginkizun eta eskumenak Estatutu hauetan eta Integritate Atala arautu dezaketen erregelamendu eta araudietan ezarrita egongo dira. Zehazki, eginkizun hauek izango ditu:

- a) Arbitroak eta bitartekariak izendatzea.
- b) Adituen aholkularitza-taldeko kideen esku-hartzea adostea eta izendatzea.
- c) Integritate Atala ordezkatzea, oro har, baita EAEFren gainerako organoen aurrean ere.
- d) Bere helburuak betetzeko agintzen zaion beste edozein eginkizun.

### **70. artikulua. Eraketa**

Integritate Atala EAEFren organo hauek osatuko dute, zeinak Estatutu hauen aurreko artikuluetan aurreikusten baitira:

- a) Diziplina-organoak
- b) Lehiaketa-organoak
- c) Gatazkak Konpontzeko Batzorde Alternatiboa
- d) Etika Batzordea
- e) Zaintze- eta babes-organoak
- f) Arauak betetzeko organoak
- g) Egiatzen-taldea

Integritate Ataleko kide dira, halaber, instruktoreak eta Aditu-taldea.

### **71. artikulua. Instruktoreak eta Aditu-taldea**

**1.** Integritate Atalari atxikitako organoetan abiaraz daitezkeen espedienteak izapidetzeko eta beharrezkoak izan daitezkeen txosten espezializatuak egin ahal izateko, Zuzendaritza Kontseiluak, Integritate Ataleko presidentek proposatuta, honako hauek izendatuko ditu:

- a) Organo eskudunek instruktore gisa izendatu beharreko pertsonen zerrenda.
- b) Hainbat arlotako adituen zerrenda, beharrezkoak izan daitezkeen txosten espezializatuak biltzeko.

**2.** Instruktore-taldea lau pertsonak osatuko dute, gutxienez, eta Zuzenbideko tituludunak izango dira, EAEFrekin lan-harremanik edo harreman profesionalik ez dutenak. Ordezkaritza parekidea bermatuko da.

**3.** Adituen taldea bi pertsonak edo erakundeak osatuko dute, Integritate Atalaren erregulazioak ezartzen dituen espezializazio-arlo bakoitzeko. Pertsona fisikoen kasuan, ordezkaritza parekidea bermatuko da.

Beste espezializazio-arlo batzuetarako txostenak egin behar direnean, kasuan kasuko gaien adituak direnengandik lortuko dira, prozeduraren izaera eta edukia kontuan hartuta.

### **72. artikulua. Etika eta Jokabide Kodea**

Batzorde Eskuordetuak Etika eta Jokabide Kode bat onartuko du EAEFren Zuzendaritza Kontseiluak proposatuta. Kode horrek erregelamendu izaera izango du, eta honako hauei eskatuko zaizkien jokabide-arauak ezarriko ditu:

- a) EAEFren kide eta partaide guztiak, bereziki bertako organo, batzorde, komisio eta lantaldeetakoak direnak, baita lan-kontratupeko langileak eta boluntarioak ere.
- b) EAEFren kide edo partaide diren erakundeetako agintariak eta lan-kontratuko langileak, profesionalak nahiz boluntarioak, bereziki kirol-klub eta -erakundeetakoak, atleten ordezkarietakoak, antolatzaileenak eta erkidegoetako atletismoko federazio integratuetakoak edo, hala badagokio, EAEFren ordezkarietakoak.
- c) Aurreko paragrafoetan aurreikusitako pertsonen eta erakundeen laguntzeko langileak.
- d) Estatuko edo nazioarteko lehiaketak, jarduerak, ekitaldiak edo ekintzak antolatzeko edo hartzeko hautagaitza aurkezten duten pertsonak eta erakundeak.
- e) EAEFrekin edozein motako harremana duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

EAEFren Etika eta Jokabide Kodea ez betetzeak kode horretan aurreikusitako neurriak ekarriko ditu, eta diziiplina sozialeko arau-haustea izan daiteke, hartan eta EAEFren Diziiplina Araudian aurreikusitako baldintzetan.

## V. TITULUA: GOBERNANTZA ETA GARDENTASUNA

### 73. artikulua. Printzipio orokorrak

1. EAEFk gardentasunaren eta gobernu korporatibo onaren printzipioen arabera jarduteko konpromisoa hartzen du.

2. Beste organo batzuek izan ditzaketen eskumenei kalterik egin gabe, Arauak Betetzeko Ordezkariaren ardura da gardentasunaren eta gobernu korporatibo onaren politikak bultzatzea, koordinatzea, betearaztea eta egiaztatzea.

Arlo horietako eskumen jakin batzuk beste organo batzuek gauzatzen badituzte, Arauak Betetzeko Ordezkariak organo horiei lagunduko die beren eginkizunak betetzen.

3. EAEF eta haren gobernu-, ordezkaritza- eta kudeaketa-organoetako kideak Kirol Kontseilu Gorenaren ikuskapen-, jarduketa- eta kontrol-ahalmenen mende egongo dira. Era berean, agintari administratibo edo judizialek legez esleitutako eskumenen arabera dituzten jarduketan mende geratzen dira. Alde horretatik, ahal den lankidetzan handiena eman beharko zaie aipatutako agintariei, legezko eta arauzko mugen barruan.

## I. KAPITULUA: GOBERNANTZA

### 74. artikulua. Korporazio-gobernu ona

EAEFren organoetako kideek (bereziki, gobernukoek), bai eta batzorde eta komizioetako edo beste lantalde batzuetako kideek ere, indarrean dagoen legeria eta araudi aplikagarria bete beharko dute, eta, horrez gain, EAEFk onartutako politika eta prozedura aplikagarri guztiak.

Autonomia-erkidegoko kirol-federazioekin egindako integrazio-hitzarmenean, integrazio horren ondorioz federazioek arlo horretan ezartzen eta betetzen dituzten gutxieneko betebeharrak jasoko dira.

### 75. artikulua. Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudia

1. EAEFk Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudia izango du, zeina Batzorde Eskuordetuak onartuko baitu Zuzendaritza Batzordeak proposatuta. Ekimena, ordea, Araudia Betetzeko Ordezkariari dagokio.

2. Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudia bi liburu bereizitan banatuko da, gobernantzari edo korporazio-gobernu onari eta EAEFren barne-antolaketari buruzkoak, hurrenez hurren.

A. Gobernantza edo Korporazio-gobernu Onari Buruzko Liburuan honako hauek jasoko dira:

- a) Egitura gardena, osoa eta antolatua ezartzea, korporazio-gobernu onaren araei lotuta.
- b) Federazioaren organoetako kideak izendatzeko osaera, irizpideak eta prozedura. Justifikatutako arrazoirik ezean, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren parekidetasun-araua bermatuko da.
- c) EAEFren organoetako kideen hautagarritasun-baldintzak, bateraezintasunak eta interes-gatazken erregulazioa.
- d) Sozietate-organoen barne-funtzionamenduaren printzipioak, irizpideak eta oinarritzko erregulazioa; nolana ere, barne-funtzionamenduko araudi edo erregelamenduen bidez gara daitezke.
- e) Edozein esparruko legez kanpokoak prebenitzeko prozedurak, batik bat, arlo penalekoak.
- f) Arlo bakoitzean kontrol-mekanismoak ezartzea.



- g) Garapen-, elkartasun- eta iraunkortasun-ekintzak ezartzea.
- h) EAEFren eta bere kideen arteko kudeaketan eta ordezkartzan eredugarritasuna sustatzea.
- i) Eragiketa ekonomikoak baimentzeko sistema, EAEFk egiten dituen eragiketak nork edo zeinek onartu behar dituen adierazita, haien zenbatekoaren arabera sinatuta, eta eginkizunak bereizteko sistema bat araututa, non inork ezingo duen esku hartu transakzio baten fase guztietan.
- j) Diziplinazko espedientepean egotetik eratorritako ondorioak, edo, EAEFren organo bat arduratzen denean, zigor-arloko ikertua edo kondenatua izatetik eratorritakoak. Presidente kargua betetzen duenaren eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen kasuan, epai irmoaren bidezko kondena berehala kargutik kentzeko arrazoia izango da, eta horren berri eman beharko zaio Kirol Kontseilu Gorenari.
- k) EAEFk gardentasunaren eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloan bere gain hartzeko betebeharren konpromisoa.

B. EAEFren Barne-antolamenduko Liburuan honako hauek jasoko dira:

- a) EAEFren egitura organikoa, Estatutu hauetan ezarritakoa garatuz.
- b) EAEFren estatutupeko eta estatutuz kanpoko organoetako kideak izendatzeko betekizun eta prozedura zehatzak, bai eta haien eskumenak ere.
- c) EAEFren organoen barne-funtzionamenduaren oinarri orokorrak eta espezifikoak.
- d) EAEFren barne-antolamenduari buruz interesgarritzat jotzen diren gai guztiak.

EAEFren Barne-antolamenduko Liburua Kirol Kontseilu Gorenak berretsi beharko du, indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera.

## **76. artikulua. Gobernu Onaren Urteko Txostena**

Urtero, EAEFk gobernu onaren txostena egingo du. Txosten hori EAEFren webgunean argitaratuko da eta Batzar Nagusiak onartu beharko du. Txosten horretan zehaztuko da zer neurritan bete diren Arauak Betetzeko Ordezkariak emandako jarraibideak edo gomendioak, edo, bestela, zer arrazoiengatik ez diren bete.

Txostena, Batzar Nagusiak onartu ondoren, Kirol Kontseilu Gorenari bidaliko zaio.

## **77. artikulua. Korporazioaren Arriskuen Plana**

EAEFk korporazioaren arriskuen plan bat izango du, zeina Batzorde Eskuordetuak onartuko baitu Zuzendaritza Kontseiluaren aurretiko txostenarekin. Plan horretan jasoko dira jokabide desegokiak prebenitzeko hartu beharreko, jokabide horiek hautemateko eta aplikagarria den araudia hobetzeko neurriak.

Batzar Nagusia lau urtean behin berritu ondoren, eta presidentek edo Batzorde Eskuordetuak egokitzen dituzten duenean, EAEFk Korporazioaren Arriskuen Plana berritu edo eguneratuko du.

## **78. artikulua. EAEFren organoen funtzionamendua**

**1.** EAEFren organoen barne-funtzionamendua Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian arautuko da, eta honako arau orokor hauen arabera jardungo dute, horretarako ezar daitekeen berariazko erregulazioaren osagarri gisa:

- a) Deialdia presidenteari dagokio, Estatutuetan edo araudietan ezarritako aurreabisu-modu eta -epean, eta dokumentazioa behar besteko denboraz bidali beharko da, aztertua izan dadin. Prozedura bat antolatu ahal izango da presa bereziko kasuetarako.
- b) Bilerak presentzialak, telematikoak edo mistoak izan daitezke (batzarra izan ezik, horretan ez baita modalitate mistoa onartuko). Horretarako, deialdiak aurreko modalitateetako zein

- aplikatuko den jasoko du, bai eta zein izango den konexio eta bozketa telematikoetarako prozedura ere, batez ere isilpekoak izatea erabakitzen bada.
- c) Bilerak bideoa grabatzeko edota soinua erreproduzitzeko euskarri egokian erregistratu ahal izango dira, aktak egiteko eta eztabaidak eta hartutako erabakiak egiaztatzeko, eta erregelamenduz zehaztutako denboran gordeko dira. Horretarako, datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeria bete beharko da.
  - d) Bilkura hasteko gutxieneko quoruma kideen % 50ekoa izango da lehen deialdian, eta heren batekoa bigarren deialdian. Zenbait erabaki hartzeko, quorum handiagoak adostu ahal izango dira.
  - e) Organoa eratutzat jo ahal izango da, edozein leku eta unetan, aldez aurreko deialdirik gabe, baldin eta kide guztiak bertan badaude eta onartzen badute, edo bertaratzen ez diren kideek berariaz baimentzen badute.
  - f) Estatutu edo erregelamendu bidezko berariazko baimenik ezean, organoen bileretara nahitaez joan beharko da, eta ezingo dira eskuordetu horra joatea eta botoa ematea.
  - g) Bilerak presidenteak zuzenduko ditu, eta kalitateko botoa edo boto erabakitzaila izango du. Gai-zerrendako puntuen ordena ere aldatu ahal izango du.
  - h) Erabakiak gehiengo soilez eta esku hutsez hartuko dira, eta isilpeko botoa eman ahal izango da kideren batek edo ehuneko jakin batek (gehienez ere, % 10) hala eskatzen badu. Gehiengo handiagoa adostu ahal izango da gai jakin batzuk onartzeko.
  - i) Erabakiren baten aurka bozkatzen duten kideek erabakiaren aurkako boto partikularra eman ahal izango dute, erantzukizunetik salbuesteko. Boto hori aktan jasoko da.
  - j) Bileren laburpena eta hartutako erabakien berariazko edukia bilera bakoitzaren akta-liburu jakinean jasoko dira. Batzar Nagusiaren kasuan, bertaratuei, gai-zerrendari eta hartutako erabakiei buruzko akta betearazle bat egongo da, webgunean argitaratuko dena, eta akta bat, esku-hartzeen laburpenarekin eta dokumentazioari eta kontratuei buruzko aipamenekin, EAEFren barne-erabilera soilerako izango dena, Estatutu hauetan aurreikusitako baldintzetan.
  - k) Aktak behin-behinekoak izango dira, hurrengo bileran onartu arte. Hala ere, bi egiaztatzaile izendatu ahal izango dira, aktak egiaztatzen direnetik ondorioak izan ditzaten. Gehienez ere zazpi eguneko epean egin beharko dira, eta, organoaren bileratik aurrera ez bada berariazko erantzunik jasotzen, onartutzat joko da.

**2.** Ezinbestekoa den guztian, osagarri gisa aplikatuko da administrazio-organoei aplikatu beharreko erregulazioa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoa, EAEFk kirol-izaerako erakunde pribatu gisa duen izaerara eta berezitasunera egokituta, betiere.

## **79. artikulua. Kideak hautatzeko betekizunak**

**1.** EAEFren organoetako kideen hautagarritasun-baldintzak EAEFren Gobernantza eta Barne-antolamenduko Araudian arautuko dira.

EAEFren Araudia Betetzeko Ordezkaritari dagokio hura betetzen dela egiaztatzeko prozedura kudeatzea, izendatu aurretik eta federazio-organo bateko kide izaten jarraitzen duten bitartean.

Ez-betetzearen inguruko zalantzarik edo zantzurik izanez gero, organo eskudunari jakinaraziko dio izendatzeko, izendapenak egin ez daitezen edo errebokatu daitezen. Kide hautetsien kasuan, Zuzendaritza Kontseiluari jakinaraziko dio, hark baloratu dezan eta, hala badagokio, organo eskudunaren aurrean egin beharreko izapideak abiaraz ditzan.

**2.** EAEFren organoetan parte hartzeko, betekizun hauek bete beharko dira:

A) EAEFren organo guztien kasuan:

- a) Legerian edo EAEFren estatutu, erregelamendu eta araudi aplikagarrietan organo horrentzat oro har edo berariaz ezarrita direnak.

- b) Bereziki, aurreikusitako bateraezintasunetako bakar batean ere ez egotea.
- c) Bereziki, aurreikusitako interes-gatazkako egoera batean ere ez egotea.

B) Izendapena hautaketa-prozesu batetik kanpo egiten den organoen kasuan:

- a) Hemezortzi eta hirurogeita hamabost urte bitartean izatea, aplikatu beharreko araudiak hortik gora izatea berariaz onartzen duen kasuetan izan ezik.
- b) Ez egotea auzipetuta edo kondenatuta sexu-delituengatik, edo zerikusirik ez izatea kudeaketa txarrarekin edo dirua bidegabe erabiltzearekin edo pertsonen aurkako indarkeriarekin, edo abusuarekin, jazarpenarekin, dopinarekin, indarkeriarekin, arrazakeriarekin, xenofobiarekin edo intolerantziarekin. Beste delitu batzuen kasuan, edo ikertua izatearen kasuan, inguruabarrak baloratuko dira dagokion erabakia hartzeko.
- c) Dopinaren arloko arau-hausteagatik, kirol-diziplinako arau-hauste oso larriagatik edo kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia edo intolerantziaren arloko arau-hausteagatik zigortuta ez egotea. Aurreko gaiei buruzko prozeduraren bat izapidetzen ari bada, kasuan kasuko erabakia hartzeko inguruabarrak baloratuko dira.
- d) EAEFren jokabidea arautzen duten printzipioekin bateraezina ez den ospe eta jokabide pertsonalik ez izatea.

**3.** Arestian aipatutako inguruabarren egiaztapena bitarteko hauen bidez egin beharko da:

- a) Erantzukizunpeko adierazpen bat, betekizunak betetzen direla eta hautatua izatea galarazten duten arrazoietakoa batean ez dela erantzukizun osoz jasotzen duena.
- b) Dokumentazio egiaztagarria aurkeztuta.
- c) Araudia Betetzeko Ordezkariaren iritziz ontzat ematen dituen beste bitarteko edo prozedura batzuen bidez.

## **80. artikulua. EAEFren organoetako kideen eskubideak**

**1.** EAEFren organoetako kideek, gonbidatu edo behatzaile izaera dutenek izan ezik, zeinak organo bakoitzean berariaz aurreikusten diren eskubideak baino ez baitituzte izango, honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Kidetzat aitortuak izatea.
- b) Bilerei buruzko deialdiak eta dokumentazioa ezarritako moduan eta epeetan jasotzea.
- c) Bileretara joatea eta eztabaidetan parte hartzea, ahotsa izateko eskubidearekin.
- d) Erabakiak hartzen eta akordioak egiten parte hartzea, eta boto sekretua sustatzea (hala badagokio, ezarritako eskatzaile-ehunekoa lortzearen baldintzapean) eta aurkako boto partikularra ematea. Organoaren berariazko erregulazioan boto-eskubidetik kanpo geratzen diren kideak eskubide horretatik salbuetsita daude.
- e) Organora joateak eragindako gastuengatik konpentsatua izatea.
- f) Betetzen duten karguari edo eginkizunari dagozkion federazio-zereginetan parte hartzea, eta kide diren organoaren jardunean laguntzea.
- g) Kide diren organoaren bileren akten edukia ezagutzea.
- h) Beren datu pertsonalak babestea.

Horrez gain, kide diren organo zehatzaren izaera orokor edo espezifikoarekin legez, estatutuetan edo erregelamenduetan ezar daitezkeen beste guztiak ere izango dituzte.

**2.** EAEFren presidentek, Zuzendaritza Kontseiluko kideek eta Zuzendaritza Betezarleak informazioa eman beharko diote Araudia Betetzeko Ordezkariari, ezartzen den aldizkakotasunarekin, Federazioarekin lotura komertzialak edo profesionalak dituzten hornitzaileekin edo erakundeekin dituzten kontratu-, merkataritza- edo familia-harremani buruz, bai eta jarduera pribatuan beste erakunde, sozietate edo enpresa batzuetan betetzen dituzten beste zuzendaritza-kargu batzuei buruz ere. Informazio hori Kirol Kontseilu Gorenari bidaliko zaio, hark hala eskatuta.

## **81. artikulua. EAEFren organoetako kideen eginbeharrak**

**1.** EAEFren organoetako kideek eginbehar eta betebehar hauek dituzte:

- a) Deitzen diren bileretara joatea, behar bezala prestatuz eta horietan behar bezalako errespetuz eta zuzentasunez esku hartuz, justifikatutako arrazoirik izan ezean.
- b) Agindutako eginkizunak leialtasunez betetzea, berariaz atxikiz EAEFren kode eta erregulazioei, bereziki dopinaren, gobernantzaren, etikaren, babesaren eta babesaren arloan.
- c) Ordenamendu juridikoaren, Estatutuen edo EAEFren edo estatuko atletismoaren interesen aurkako erabakien kontra egitea.
- d) Karguak betetzean ezagutzen dituzten datu edo informazio guztiak isilpean gordetzea, eta datu edo informazio horiek norberaren edo hirugarren baten onurarako ez erabiltzea.
- e) Eztabaidetan eta bozketetan parte ez hartzea, baldin eta gai horretan interes partikularra badute edo organoko kide izatetik kanpoko interes-gatazka esanguratsuren bat sortzen badute. Administrazio-legeria erkidean ezarritakoak izango dira parte ez hartzeko nahitaezko kasuak, nahiz eta organoko gainerako kideei beste batzuk ezartzearen kalterik gabe.
- f) EAEFren ondarea bidegabeki ez erabiltzea, eta bere egoeraz ez baliatzea abantaila pertsonalak edo ondarezkoak lortzeko.
- g) Kide gisa ezagutzen dituzten negozio-aukerei dagokienez abantailarik ez lortzea, eta komisiorik edo bestelako onurarik ez onartzea beretzat, senideentzat edo hurbilekoentzat, zuzenean nahiz zeharka.
- h) Araudia Betetzeko Ordezkariari jakinaraztea organoko kide gisa duen hautagarritasunean eta bateragarritasunean eragin dezakeen edozein inguruabar pertsonal edo profesional, balizko interes-gatazkak barne, dagokion txostena egin dezan.
- i) Organo eskudunaren aurrean edozein jokabide irregular salatzea, horren berri izan badezake.

Horrez gain, kide diren organo zehatzaren izaera orokor edo espezifikoarekin legez, estatutuz edo erregelamenduz ezar daitezkeen beste guztiak ere izango dituzte.

**2.** EAEFren organo bakoitzeko idazkaria arduratuko da bere jardueren legezotasun formala eta materiala zaintzeaz, Estatutuen erregularatasuna eta organo arautzaileek emandako xedapenak betetzen direla egiaztatzeaz, eta gobernu onaren printzipioak edo irizpideak betetzen direla zaintzeaz.

## **II. KAPITULUA: GARDENTASUNA**

### **82. artikulua. Gardentasuna**

**1.** EAEFk gardentasunaren arloan ezarritako legezko betebeharrak bete beharko ditu, bereziki kirol-legerian jasotakoak eta gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzkoak, eta baita World Athleticsek ezar ditzakeenak ere. Horrez gainera, erakunde edo antolakunde espezializatuek ezarritako gardentasun-estandarrak ahalik eta gehien betetzen saiatuko da.

**2.** Batzorde Betezarleak proposatuta, Zuzendaritza Kontseiluak ezarriko ditu erabakiak eta akordioak hartzeari buruzko informazioa partekatze arauak eta modua, eta ezarriko du informazioa jendaurrean edo era mugatuan ematen zaien erakundeko kide guztiei, Batzar Nagusiko kideei edota beste organo, komisio eta batzorde batzuei, federazioko estamentu jakin batzuetako kideei edo alderdi interesdunei. Era berean, emandako informazioa mugatzeko

irizpideak ezarriko dira, jakinarazi ezin diren datu pertsonalak edo isilpekoak sar ditzakeenak anonimizatuta edo baztertuta.

Arau eta irizpide horiek ahalik eta gardentasun handiena lortzen saiatuko dira, EAEFren eta hari lotutako pertsona fisiko eta juridikoen interesak behar bezala babesteari kalterik egin gabe.

**3.** Autonomia-erkidegoko kirol-federazioekin izenpetutako integrazio-hitzarmenean, federazio horiek integrazio horren ondorioz ezarri eta betetzeko konpromisoa hartzen duten gutxieneko betebeharrak jasoko dira.

### **83. artikulua. EAEFren webgune ofizialeko informazioa**

1. EAEFren web-orri ofizialean, legez, estatutuz edo erregelamenduz erabaki daitezkeen beste publizitate-modu batzuk alde batera utzi gabe, honako alderdi hauek jasoko dira, gutxienez:

A) Ekonomia arloan:

- a. Azken batzarrak onartutako aurrekontua.
- b. Aurreko urteko aurrekontuaren likidazioa.
- c. Kontu-auditoretzaren txostena eta Kontrol Ekonomikoko Batzordearen edo Ordezkararen txostenak.
- d. Kirol Kontseilu Gorenaren urteko txostena, ekonomia- eta finantza-egoerari buruzkoa.
- e. Jasotako diru-laguntza eta laguntza publiko eta pribatuak, zenbateko individualizatua adieraziz publiko eta pribatuentzat, bai eta azken helburu eta hartzaileak ere, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legeria errespetatuz.

B) Korporazio arloan:

- a. Egoitza nagusiaren kokapena, jendaurreko ordutegia, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- b. Antolamendu-egitura, organoak osatzen dituzten pertsonak identifikatuta.
- c. Nahitaezko estatutuak eta erregelamenduak (gaztelaniaz eta autonomia-estatutuek ofizialtzat jotako hizkuntzetan), eta aplikazio orokorreko gainerako erregelamenduak eta araudiak.
- d. Bere eskumenekoak diren jardueren betetze-maila eta kalitatea baloratzeko behar den informazio estatistikoa.
- e. EAEFren lizentziak izapidetzeko prozedura.
- f. Autonomia-erkidegoko atletismoko federazio integratuak eta EAEFren ordezkaritzak, beren webguneetara lotuz.

C) Gardentasun eta gobernantza arloan:

- a. Batzar Nagusiaren betearazpen-aktak (konfidentzialtasuna, datu pertsonalen babesa edo enpresa-sekretuak izan ditzakeen edukia izan ezik) eta Zuzendaritza Kontseiluaren eta Batzorde Eskuordetuaren erabakiak, hartutako erabakiak berariaz aipatuta.
- b. Gobernu onaren urteko txostenak.
- c. Presidentearen kontratu-loturaren edo gastuen konpentsazioaren araubide zehatza, bai eta presidenteak eta goi-zuzendaritzako lan-harremana duten pertsonen jasotako ordainsariak ere.
- d. EAEFren organoetako kideei ordaindutako gastuen konpentsazioak.
- e. Sinatutako hitzarmen eta kontratu publiko eta pribatuak, hauek aipatuz: xedea, iraupena, alderdien betebeharrak, aldaketak eta, hala badagokio, esleipen-prozedura, lan-kontratuak izan ezik. Zenbatekoa modu zehatz eta banakatuan argitaratu beharko da, funtzionamendu- eta inbertsio-gastuak sortzen badituzte; diru-sarrerak sortzen badituzte, modu berean argitaratuko dira, publizitate- eta babes-kontratuetatik eratorritakoak izan ezik, horietarako zenbateko osoa baino ez baita adierazi beharko. Publizitate horretan, datu

personalei eta enpresa-sekretuei buruz indarrean dagoen legeria errespetatuko da.

- f. Hornitzaileei eta haien kontratazio-araubideari buruzko informazioa.

D) Kirol arloan:

- a. Atletismoaren modalitateari eta haren espezialitateei buruzko informazioa, bai eta hura garatzeko eta praktikatzeko baldintzak eta araudia ere.
- b. Kirol Kontseilu Gorenarekin sinatutako Kirol Garapeneko Programak.
- c. Urte anitzeko kirol-programa.
- d. Kirol-egutegiak.
- e. Kirolaren Administrazio Auzitegiaren eta beste diziplina-organo batzuen ebazpenak, datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legeriak ezartzen duen moduan.
- f. Kirol-jarduera ez-ofizialerako osasuna babesteko baldintza espezifikokoak, bai eta horien indarraldia, irismena eta egiaztapena ere.

Era berean, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera nahitaez eman beharreko informazioa ere jasoko da, eta, bereziki, kirol-legeriak, gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legeriak eta horiek garatzeko xedapenek ezar dezaketena.

**2.** Araudi bidez edo Zuzendaritza Kontseiluaren akordio bidez, web-orri ofizialean informazio gehiago sartzeko betebeharra ezarri ahal izango da, bai eta EAEFren kide izan daitezkeenei edo interesdunei informazio jakin bat eskuratzeko mugak ezartzeko ere, alde aurreko erregistro-prozedura baten bidez.

**3.** Informazio guztia modu seguruan eta ulergarrian eskaini beharko da, erraz aurkitzeko eta bilatzeko moduan eta gai-multzo argi eta zehatzetan banatuta. Indarrean dagoen legeria eta interesdunen eskubideak errespetatuko ditu, bereziki datuen babesari, enpresa-sekretuei eta adingabearen babesari dagozkienak.

**4.** Webguneko publizitatearen betebeharren gaineko erantzukizuna EAEFren Zuzendaritza Betezarlearen kargua betetzen duen pertsonari dagokio.

## **VI. TITULUA: LEHIAKETAK ETA LIZENTZIAK**

### **I. KAPITULUA: LEHIAKETAK**

#### **LEHEN ATALA: XEDAPEN OROKORRAK**

##### **84. artikulua. Lehiaketen kalifikazioa eta antolakuntza**

**1.** EAEF da Espainian atletismoko eta horren espezialitateetako kirol-modalitateko lehiaketa jakin bat estatu mailan ofizialtzat kalifikatzeko eskumena legez eta era eskusiboan esleitua zaion kirol-federazio bakarra.

**2.** Era berean, eta indarrean dagoen legerian berariaz aurreikusitako salbuespenei kalterik egin gabe, EAEF da estatu mailako eta Espainian egiten diren nazioarteko atletismo-lehiaketa ofizialen antolatzaile eskusiboa, lehiaketaren esparru orokorra arautzeari dagokionez, hargatik eragotzi gabe World Athleticsek atletismoko lehiaketak arautzeko eta antolatzeko dituen eskumenak.

Lehiaketa ofizialak antolatzeke eskumen hori modu hauetakoren batean egituratu ahal izango da, zeinak atletismoko lehiaketa, jarduera eta ekitaldien araudian garatuko baitira:

- a) Zuzeneko antolatzaile bakar gisa.
- b) Antolatzailekide gisa.
- c) Hirugarrenek antolatuz egutegi ofizialean onartzen diren lehiaketen arautzaile eta ikuskatzaile gisa.

## **85. artikulua. Atletismoko lehiaketen, jardueren eta ekitaldien antolaketa**

**1.** Estatuko, autonomiaz gaindiko edo nazioarteko antolatzaile gisa EAEFk duen eskumena, zehazki, ulertuko da kirol-federazio autonomiko integratu baten baino gehiagoren edo EAEFren Ordezkaritza baten estatu mailako lizentzia duten atleten edota World Athleticseko beste kirol-federazio batzuk ordezkatzan dituzten atleta edota talde atzerritarren parte hartzea onartzen duten lehiaketa, jarduera eta gertaerei buruzkoa izango dela.

Aurreko paragrafoan aipatzen den antolaketa- edo erregulazio-eskumenak honako hauek biltzen ditu:

- a) Atletismoko lehiaketa ofizialak, eksklusibotasun-araubidean.
- b) Atletismoko federazio-lehiaketa ez-ofizialak, legeria aplikagarrian ezarritakoaren arabera, eksklusibotasun-araubidean.
- c) Atletismoko kirol-jarduera federatibo ez-ofiziala.
- d) Hala dagokionean, Estatu mailan garrantzia duten atletismoko lehiaketako kirol-ekitaldi ez-ofizialak.
- e) Atletismoko beste ekitaldi batzuk, erregelamendu eta araudietan ezarritakoari jarraituz.

**2.** EAEFk antolatuko ditu Espainian, eksklusibotasunez, atletismoko nazioarteko lehiaketak, European Athleticsekin, World Athleticsekin, Atletismoko Iberoamerikako Elkartearekin, Mediterranean Athleticsekin, Espainiako Olinpiar Batzordearekin edo atletismoko edo kirol anitzeko nazioarteko beste erakunde batzuekin adostutako enkargu, ordezkaritza, hitzarmen, kontratu edo bestelako titulu gaidun baten bidez. Halaber, hirugarrenekin batera kirol anitzeko ekitaldiak antolatu ahal izango ditu, atletismoa garatu beharreko modalitateen artean denean.

**3.** Lehiaketa, jarduera eta ekitaldi horiek zuzenean antolatu ahal izango dira, hirugarrenen bidez edo hirugarrenekin batera, zeinak antolatzaile edo laguntzaile izaera izango baitute. Antolakunde horretan hirugarrenek parte hartzearen ondoriozko modua, prozedura, eskubideak eta betebeharrak hala nola erantzukizunak EAEFren Atletismoko Lehiaketa, Jarduera eta Ekitaldien Araudian arautuko dira, eta hura gauzatzeko kontratu, hitzarmen edo tresna juridikoan islatuko dira.

**4.** EAEFk bere lehiaketa, jarduera eta ekitaldien antolaketari datzekion eskubide eta produktuak merkaturatuko ditu, lege ezarritako baldintzetan eta, hala badagokio, parte-hartzaileen eskubide indibidualak errespetatuz.

**5.** EAEFk, antolatzailea den aldetik, lege ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak hartuko ditu bere gain.

## **86. artikulua. Atletismoko Lehiaketa, Jarduera eta Ekitaldien Araudia**

**1.** Atletismoko Lehiaketa, Jarduera eta Ekitaldien Araudia EAEFren nahitaezko araudi bat da, indarrean dagoen legeriari eta Estatutu hauen edukari lotuta egongo da eta alderdi hauek arautuko ditu:

- a) Atletismoko lehiaketa, azpiespezialitate, diziplina, proba eta jarduera eta ekitaldien modalitatea, motak eta espezialitateak.
- b) Arau erregulatzailerak eta betekizun teknikoak, edota garatu beharreko beste edozein motatakoak.

- c) Lehiaketak ofizialtzat jotzeko prozedura eta irizpideak, eta antolatzaileen eta egoitzen izendapena.
- d) Saillkapen-ondorioak eta bestelako alderdi batzuk.
- e) Lehiaketako oinarri zehatzen eredu orokor bat.
- f) Lehiaketako segurtasuna eta eska daitezkeen aseguramenduak bermatzeko beharrezko neurriak.
- g) Oro har, EAEFk antolatutako atletismoko lehiaketa eta jarduerak antolatzeko eta garatzeko behar den guztia.

Erregelamendu horrek lehiaketa, jarduera eta ekitaldi horietan parte hartzeko lizentziak eta gaikuntza-tituluak arautuko ditu, baldin eta EAEFk lizentzia eta bestelako gaikuntza-tituluen erregelamendu independente bat onartzen ez badu.

**2.** Atletismoko Lehiaketa, Jarduera eta Ekitaldien Araudia eta horren garapenerako, oro har, onar daitezkeen arau erregulatuak gauzatzean, lehiaketa-oinarri edo -arau batzuk egin eta onartuko dira atletismoko txapelketa edo lehiaketa, jarduera edo ekitaldi zehatz bakoitzerako. Horietan, antolaketari buruzko alderdi guztiak zehaztuko dira, eta publizitate egokia emango zaie.

## **BIGARREN ATALA: LEHIAKETAK**

### **87. artikulua. Nazioarteko lehiaketak**

EAEFk Espainian antolatu edo baimendu ahal izango ditu, zuzenean edo hirugarren batekin batera, edo hirugarren baten bitartez, eta Kirol Kontseilu Gorenak baimena eman ondoren, nazioarteko atletismo-lehiaketak, hau da, proba ofizialak edo ez-ofizialak egiten diren txapelketak, eta irekita egongo da World Athleticseko kide diren beste federazio batzuetako atletek, taldeek edo selekzioek ere parte hartzeko.

Alde horretatik, World Athleticseko beste federazio-kide bat ordezkatzeko duten edo bertan afiliatuta dauden atleta atzerritarrek parte hartzeko irekita dauden atletismoko ekitaldiak, hala nola lasterketak edo meeting-ak, nazioarteko lehiaketatzat hartuko dira, Kirol Kontseilu Gorenaren, World Athleticsen edo European Athleticsen baimena eta EAEFren baimena edo ikuskapena lortzeko, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

Lehiaketa horien antolakuntzak eta parte hartzeak World Athleticsek edota dagokion nazioarteko federazioak edo erakundeak ezarritako arauak eta baldintzak onartzea dakar.

### **88. artikulua. Estatu mailako edo erkidegoez gaindiko atletismoko lehiaketa ofizialak**

**1.** Estatu mailako atletismoko lehiaketa ofizialak izango dira EAEFk halakotzat jotzen dituenak. Lehiaketa horiek EAEFren egutegi ofizialean sartuko dira denboraldi bakoitzean, eta horietan lortzen diren emaitzak saillkapenatarako edo rankingenatarako balioko dute.

EAEFren lehiaketa bat ofizialtzat eta estatu mailakotzat hartzeko, besteak beste, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Lehiaketaren maila teknikoa.
- b) Parte-hartzaileen kirol-maila.
- c) Autonomia-erkidegoko atletismoko kirol-federazio integratuen edo, hala badagokio, EAEFren ordezkartzen kopurua.
- d) Atletismoaren testuinguru nazionalean edota nazioartekoan duen garrantzia.
- e) Hala badagokio, erakunde sustatzailearen antolaketa-gaitasuna eta -esperientzia.
- f) Lehiaketaren historia eta tradizioa.



- g) Emaitzek nazioarteko lehiaketetan edo rankingetan parte hartzeko izan dezaketen garrantzia.

Estatu mailako lehiaketa ofizial horietan EAEFn integratuta diren eta Estatuko kirol-lizentzia duten edo indarrean dauden kirol-lizentzia duten atletek, kirol-erakundeek eta autonomia-erkidegoetako federazioek edo EAEFren Ordezkaritzek parte hartu ahal izango dute, eta ez da inolako diskriminaziorik egingo, kirol-izaerako baldintza teknikoetatik eratorritakoak edo Atletismoko Lehiaketa, Jarduera eta Ekitaldien Araudian edota lehiaketa-araudi edo -oinarrietan jasota diren kirol-izaerako edo beste edozein motatako baldintza teknikoetatik eratortzen direnak izan ezik.

Atleta transgeneroek EAEFren eskumen-eremuko kirol-praktika, -ekitaldi eta -lehiaketetan duten parte-hartzeari dagokionez, World Athleticsek gai horri buruz duen araudi espezifikoan xedatutakoa beteko da, eta dopinaren aurka borrokatzeko arauak ere barne hartuko dira, berdintasun-printzipioaren aurkakoak izan daitezkeen lehia-abantailak saihesteko.

Horien markek eta emaitzek balio ofiziala izango dute, eta horretarako ezarritako baldintzak beteko dira.

**2.** Kalifikatutako lehiaketa ofizialaren izendapenak izen hori EAEFren alde erreserbatzea dakar. Horren haritik, EAEFk bakarrik antolatu eta erabili ahal izango ditu Espainiako Txapelketa, Txapelketa Nazionala, Estatuko Txapelketa, Liga Nazionala, Espainiako Kopa edo antzeko beste edozein izendapen.

**3.** Autonomiaz gaindiko lehiaketen kasuan, EAEFk alde aurretik baimendu baditu bakarrik onartuko dira markak eta emaitzak sailkapenaren edo rankingaren ondorioetarako.

**4.** Estatuko atletismo-lehiaketa ofizialak dira, halaber, legeak hala aginduta, eskola-lehiaketetako azken faseak eta unibertsitate-lehiaketetako azken faseak. Horiek EAEFk antolatu ahal izango ditu, dagozkion hitzarmenak edo kontratuak sinatu ondoren.

## **89. artikulua. Atletismoko federazio-lehiaketa ez-ofizialak**

Atletismoko federazio-lehiaketa ez-ofizialak dira EAEFk antolatzen dituenak baina bere lehiaketa ofizialen egutegian sartzen ez direnak.

Asmo nagusia kirol-sustapena duten unean uneko edo noizbehinkako ekitaldiek osatutako lehiaketa horiek EAEFk antolatu ahal izango ditu, zuzenean edo hirugarren baten bitartez, dagokion hitzarmena edo kontratua sinatu ondoren.

Horko markek eta emaitzek ez dute balio ofizialik izango rankingerako edo estatuko edo nazioarteko lehiaketetarako sailkatzeko.

## **90. artikulua. Atletismoko federazio mailako kirol-jarduera ez-ofizialak**

Atletismoko federazio mailako kirol-jarduera ez-ofizialak dira atletismoko lehiaketa ez-ofizialeko jarduera, ekitaldi, proba eta bestelako ekitaldiak, baldin eta parte hartzea EAEFn integratutako autonomia erkidegoetako kirol-federazio bat edo EAEFren Ordezkaritza bat baino gehiago ordezkatzen duten eta estatuko lizentzia edo gaitzen duen lizentzia bat indarrean duten edo parte hartzeko gaitzen duten beste tituluren bat duten atletei edota klubei edota World Athleticsen kide den beste federazio bat ordezkatzen duten atzerritar atletei edo klubei zabalik dagoenean.

Horiek aintzatesteko, besteak beste, gizartean, komunikabideetan eta bertaratutakoen artean izango duten eragina, eragin ekonomikoa eta behar dituzten prebentzio- eta segurtasun-neurriak balioetsiko dira.

Horietako markek eta emaitzek ez dute balio ofizialik izango rankingerako edo estatuko edo nazioarteko lehiaketetarako sailkatzeko.

### **91. artikulua. Atletismoko lehiaketako kirol-ekitaldi ez-ofizialak**

EAEFk estatu mailako garrantzia izango duten atletismoko lehiaketako kirol-ekitaldi ez-ofizialak antolatu ahalko ditu, horiek antolatzen dituen Administrazioarekin dagokion hitzarmena edo akordioa alde aurretik sinatu ondoren, Kirolaren Legearen araudizko garapenak ezartzen dituen zehaztapenei jarraituz.

Horietako markek eta emaitzek ez dute balio ofizialik izango rankingerako edo estatuko edo nazioarteko lehiaketetarako sailkatzeko.

### **92. artikulua. Atletismoko beste ekitaldi batzuk**

EAEFren Atletismoko Lehiaketa, Jarduera eta Ekitaldien Araudiak ezartzen duenari jarraituz, EAEFk atletismoko beste ekitaldi batzuk, kirol-mota bakarrekoak zein askotarikoak, antolatu ahal izango ditu, parte hartzea EAEFn integratutako autonomia erkidegoetako kirol-federazio bat edo EAEFren Ordezkaritza bat baino gehiago ordezkatzen duten eta estatuko lizentzia edo gaitzen duen lizentzia bat indarrean duten edo parte hartzeko gaitzen duten beste tituluren bat duten atletei edota klubei edota World Athleticsen kide den beste federazio bat ordezkatzen duten atzeritar atletei edo klubei zabalik dagoenean.

## **II. KAPITULUA: LIZENTZIAK ETA GAITZEN DUTEN BESTE TITULU BATZUK**

### **93. artikulua. Lizentziak**

**1.** Estatuko, autonomiaz gaindiko (Estatuan edo nazioartean ondorioak izatea nahi denean) eta nazioarteko atletismo-jarduera edo -lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da EAEFk emandako lizentzia bat izatea. Lizentzia horrek edukiaren uniformetasuna eta modalitate, estamentu eta kategoriaren araberrako baldintza ekonomikoak bermatuko ditu. Horren zenbatekoa finkatzeko eskumena Batzar Nagusiari dagokio.

**2.** Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, autonomia-esparruko federazioek emandako lizentziek lanbide-izaerakoak ez diren lehiaketetan parte hartzeko gaikuntza emango dute, baldin eta Espainiako kirol-federazioetan integratuta badaude, federazioek finkatzen dituzten gutxienezko baldintza ekonomikoen barruan ematen badira eta horiek ematen direnean jakinarazten bazaizkio.

Lizentzia horiek gaztelaniaz behintzat adieraziko dute harpidetutako aseguruaren kostua, berezita, bai eta EAEFri eta erkidegoko federazioari dagozkien kuotak ere.

Lizentzia horiei dagokienez, estatistika-, dokumentu- eta erregistro-araubidea ziurtatuko da, honako hauek bereizteko aukera emanez:

a) Lizentziaren ondorioak dagozkien lurralde-eremuetan, hautesle eta hautagai izaera zehazteko.

b) Jaulkipenaren ondorioz sortutako eskubideen partaidetza edo banaketa ekonomikoa.

- c) Federazio bakoitzaren lurralde-eremuan estaldura duen kirol-aseguru bakarra sinatzea, autonomia-erkidegokoa edo Estatukoa izan.
- d) Nahasterik sortu gabe, federazio nazionalak eta autonomikoak dagozkien eskumenak egikaritzea ahalbidetzen duten beste zedarritze batzuk.

EAEFk baldintza horiek betetzen dituzten eta jakinarazten zaizkion lizentzia autonomiko guztiak gaituko ditu.

#### **94. artikulua. Federazioaren lehiaketa ez-ofizialetarako gaitzen duten beste titulu batzuk**

**1.** Jarraian adierazten diren lehiaketa, jarduera eta ekitaldietan parte hartzeko, lizentziaren bestelako titulu zehatz gaidun bat izan beharko da, nahitaez. Titulu hori EAEFk edo erakunde horretan integratutako federazio autonomiko batek emango dute. Hauek dira lehiaketa, jarduera eta ekitaldiak:

- a) EAEFk onartutako edo antolatutako estatu-mailako federazio-lehiaketa ez-ofizialak, ofizialtzat kalifikatutakoekin batera edo horiekin aldi berean egiten direnak barne.
- b) EAEFk aintzatetsitako edo antolatutako Estatu mailako federazioen kirol-jarduera ez-ofizialak.
- c) EAEFk antolatzen dituen Estatu mailako lehiaketako kirol-ekitaldi ez-ofizialak.

**2.** Gaikuntza-titulu horiek urtero, aldi baterako edo unean unerako ematen direnak izan daitezke, eta horien titularren beharrezko kontrola eta ziurtapena bermatuko dute, baina sailkapen-ondoriorik ez dute eragingo Estatuko, autonomiaz gaindiko edo nazioarteko lehiaketetan, eta horietan lortutako markek ez dute balio ofizialik izango, ezta ere inolako ondoriorik rankingean.

**3.** Titulu gaitzaile horien titularrek ez dute eskubide politikorik izango, bereziki, Batzar Nagusirako eta EAEFren Presidentetzarako hautesle edo hautagai izateko.

#### **95. artikulua. Lizentzien eta Gaitzen duten beste Titulu batzuen Araudia**

**1.** Lizentzien eta Gaitzen duten beste Titulu batzuen Araudiak garatuko ditu lizentzia klase edo motak eta gaitzen duten beste titulu batzuk, horiek emateko edo gaitzeko baldintzak eta prozedura, ematen dituzten eskubide eta betebeharrak eta horiei buruzko gai guztiak.

Erregelamenduak ezarriko du lizentziak eta beste titulu gaitzaile batzuk emateko, ukatzeko edo eteteko eskumena duen organoa.

**2.** Araudi hori egiteko, oinarrizko irizpide hauei jarraituko zaie:

A) Lizentziei dagokionez:

- a) EAEFk hamabost egun balioduneko epean emango du, gehienez jota, lizentzia emateari, gaitzeari edo ukatzeari buruzko ebazpena. Epe hori eten egingo da lizentzia emateko behar diren baldintza guztiak jasotzen ez badira eta zuzentzeko eskatzen bada. Epe hori ez betetzea, behar bezala justifikatutako arrazoiak direnean izan ezik, lizentziak emateari justifikaziorik gabe uko egitea izango da, eta diziplina-zehapena ezarri ahal izango da.
- b) Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrei ezingo zaie murrizketarik ezarri lizentziak emateko edo gaitzeko.
- c) Lizentzien Araudiak lanbide-lizentziak daudela ezartzen badu, lizentzia horiek izapidetzeko betekizunen artean egon beharko da Gizarte Segurantzaren afiliatzea eta alta ematea, eta, lanbide-jarduna besteren kontura egiten denean, dagokion kontratua izatea dagokion lan-modalitatean.
- d) Klub baten eta atleta baten arteko lizentziaren indarraldia amaitutakoan, EAEFk ezin izango dio uko egin beste lizentzia bat emateari edo gaitzeari, izan daitezkeen

prestakuntza-eskubideak oinarri hartuta. Nolanahi ere, kirol-erakundeak, atletaren profesional izaerako lehen lan-kontratua egiten duenean, konpentsazio ekonomiko bat ordaindu beharko du, erakunde prestatzaileek izan duten kostuarekiko proportzionala izango dena, edo behar bezala justifikatutako bestelako konpentsazio batzuk.

- e) Estatu mailako lizentziak ematean eta gaitzean diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna bermatuko dira, dagozkien kategorietan, World Athleticsen, European Athleticsen eta Nazioarteko Olinpiar Batzordearen arauekin bat etorriz.

B) Gaitzen duten beste titulu batzuei dagokienez, berriz, soilik b) eta e) atalak, EAEFk askatasun osoa duelarik horiek arautzeko.

**3.** Dopinaren arloan, aplikagarri den legedian edo lizentzien eta beste titulu gaitzaile batzuen erregelamenduan ezar daitezkeen gainerako betebeharrei kalterik egin gabe, honako hau hartu beharko da kontuan:

- a) Lizentzia edo gaikuntza-titulua eskatzen duten pertsonen dopin-kontrol bat egin ahal izango zaie hori eman aurretik, indarrean dagoen legerian aurreikusitako baldintzetan.
- b) Ezin izango dute lizentziarik edo gaikuntza-titulurik eskuratu dopinagatik autonomia-erkidegoan, Estatuan edo nazioartean zigortuak izan diren pertsonen, kasuan kasuko zehapena betetzen ari diren bitartean.
- c) Gaikuntza-titulua lortzen duten pertsonen dopin-kontrolak egin ahal izango zaizkie lehiaketan parte hartu aurretik nahiz ondoren.

## **VII. TITULUA. HAUTESKUNDE-PROZESUAK ETA ZENTSURA-MOZIOA**

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **96. artikulua. EAEFren hautapenezko organoak**

EAEFren izaera demokratiko eta ordezkatzailearekin bat etorriz, EAEFren hautapenezko organoak dira hauek: Presidentetza, Batzar Nagusia (berezko kideak izan ezik) eta Batzar Nagusiaren Batzorde Eskuordetua. Baita, halaber, Estatuetan hala aurreikusita dagoen beste edozein organo edo organoren bateko kide dena ere.

Hautapenezko organoak izan ahalko dira, halaber, presidenteordetza guztiak edo batzuk, eta Zuzendaritza Kontseiluko kide guztiak edo batzuk, Estatu hauetan ezarritako baldintzetan eta presidentek hala erabakita.

#### **97. artikulua. Hauteskunde Araudia**

EAEFren Hauteskunde Araudia indarrean dagoen legediaren arabera egin eta onartuko da, eta, bereziki, Espainiako kirol-federazioetako hauteskunde-prozesuak arautzen dituen Ministro Aginduren arabera. Ahal den neurrian, Estatu hauetan xedatutakoari eta World Athletics eta European Athletics erakundeen araudiari egokituko zaie.

Batzar Nagusirako, Batzorde Eskuordeturako eta EAEFren Presidentetzarako hauteskunde-prozesuak garatzeko behar den guztia eta, halaber, legez ezarritako gutxieneko edukia jaso beharko du, EAEFren barne-mailako beste hauteskunde-prozedura batzuen erregulazioa jaso ahal izatearen kalterik gabe.

## **98. artikulua. Hauteskunde Batzordea**

- 1.** EAEFren Hauteskunde Batzordeari dagokio federazioen hauteskunde-prozesuen antolaketa, ikuskapena eta berehalako kontrola, hargatik eragotzi gabe eman dakizkiokeen eta Kirolaren Administrazio Auzitegiari dagozkion beste eginkizun eta eskumen batzuk, hala dagokionean.
- 2.** EAEFren Hauteskunde Araudiak ezarriko ditu haren osaera, kideak izendatzeko eta kargutik kentzeko prozedura, kide horien hautagarritasun-betekizunak, dituen eskumenak eta eskurantzak, funtzionamendu-araubidea eta ebazpenen aurka jar daitezkeen errekurtsuak.
- 3.** Haren ebazpenen aurka errekurtsua jarri ahal izango da Kirolaren Administrazio Auzitegian, Batzar Nagusiaren, Batzorde Eskuordetuaren eta Presidentetzaren hauteskunde-prozesuen barruan ebazten direnean.

## **99. artikulua. Kudeaketa Batzordea**

- 1.** EAEFren Kudeaketa Batzordeari dagokio Federazioa administratzea eta kudeatzea, Batzar Nagusiko, Batzorde Eskuordetuko eta Presidentetzako kideak hautatzeko lau urteko hauteskunde-prozesua deitu ondoren.

